# DURANGOKO INGURUMEN ETA GIZARTE ARLOKO DIAGNOSTIKOA

**2012ko IRAILA**

# DURANGOKO INGURUMEN ETA GIZARTE ARLOKO DIAGNOSTIKOA

***2012ko IRAILA***

## PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA: Durangoko Udala

**Aitziber Irigoras**, Alkatea

**GARAPEN IRAUNKORRAREN BATZORDEA**

**Iker Oceja,** Batzordeko presidentea
**Ander Gorrotxategi**, zinegotzia
**Jon Kepa Garro,** zinegotzia
**Natxo Martinez**, zinegotzia
**Arrate Elkoro**, zinegotzia
**Jon Bingen Oier Landabidea,** zinegotzia
**Pedro Roberto Fontaura**, zinegotzia
**Pilar Rios**, zinegotzia
**Idoia Agorria**, zinegotzia
**Juan Jose Gastañazatorre,** zinegotzia
**Iker Urkiza**, zinegotzia
**Aitor Larruzea**, Tokiko Agenda 21eko teknikaria

**SAILARTEKO BATZORDE TEKNIKOA**

**Ramon Sorarrain**, Idazkari orokorra
**Pili Velasco**, Kontu-hartzailea
**Fede Arruti**, Udal-arkitektoa
**Benjamin Arriolabengoa,** Udaltzaingoko ardururadun burua
**Elixabete Etxanobe**, Kontratazioko teknikaria
**Laura Vallejo**, Kulturako teknikaria
**Juan Antonio Atutxa,** Euskara teknikaria
**Ander Alvarez,** Kultura eta Gaztedia teknikaria
**Kety Arrabal,** Berdintasun teknikaria
**Maria Villar,** Gizarte Ekintza teknikaria
**Veronica Redondo** Immigrazio teknikaria
**Jose Manuel Rodriguez** Erakunde Atonomoen gerentea
**Jesus Iriondo,** Informatika eta Komunikazioen arduraduna
**Nerea Erauzkin,** informatika teknikaria
**Luis Bande** Mugikortasun Saila
**Ivan Espinosa**, Hirigintza eta Ingurumeneko aholkulari juridikoa
**Asier Guisasola**, Errepideetako ingeniaria
**Iñigo Andres**, Obra Publikoen ingeniari teknikoa
**Patricia Etxenagusia**, Udal-eraikinetako arkitekto teknikoa
**Aintzane Bengoetxea**, Ekipamenduen arkitekto teknikoa

## HERRITARREN ETA ERAGILEEN PARTAIDETZA

Durangoko elkarteek osatutako **Foro Soziala**

Garapen ekonomikoaren eremuko eragileek osatutako **Foro Ekonomikoa**

Durangoko herritarrek osatutako **Herritarren Foroa**

## LAGUNTZA TEKNIKOA

**PROSPEKTIKER, SA.**

**Olatz Errazkin.** Proiektuaren zuzendaritza
**Julen Rekondo.** Koordinazioan laguntza
**Ibon Zugasti.** Teknikaria
**Oihana Hernáez.** Teknikaria
**Iñaki Elzaurdi**. Teknikaria
**Eugenia Atin.** Teknikaria
**Cristina Bereciartua.** Teknikaria

# EDUKIEN AURKIBIDEA

**1. SARRERA** ... 6

**1.1. AURREKARIAK** ... 6

**1.2. HELBURUA** ... 7

**1.3. METODOLOGIA** ... 7

**2. LABURPEN-DIAGNOSTIKOA** ... 9

**2.1. DIAGNOSTIKOAREN EGITURA** ... 9

**2.2. DIAGNOSTIKOAREN FITXEN EGITURA** ... 10

**2.3. BETEARAZTEKO LABURPENA** ... 11

2.4 LURRALDE-ALDERDIAK ... 13

LURRALDEA ETA PLANGINTZA ... 14

ETXEBIZITZA ... 22

MUGIKORTASUN JASANGARRIA ... 27

BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA ... 35

2.5 BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA ... 39

URA ... 40

HONDAKINAK ... 45

ENERGIA ... 51

INGURUMEN KALITATEA ATMOSFERA, AKUSTIKA, LURZORUAK ETA IBAIAK ... 56

JARDUERA EKONOMIKOEN ETA ARRISKUAREN KUDEAKETA ... 64

EROSKETA PUBLIKOA ETA UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA ... 68

KLIMA ALDAKETA ... 71

2.6 SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNEKO KOORDINAZIOA ... 76

KOMUNIKAZIOA HERRITARREN PARTAIDETZA, ELKARTEGINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA. ... 77

BARNEKO KOORDINAZIOA ETA ZEHARKAKOTASUNA ... 81

2.7 GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA ... 83

BIZTANLERIA ... 84

JARDUERA EKONOMIKOAREN EGITURA ETA MAILA ... 90

LEHEN SEKTOREA ... 95

BIGARREN SEKTOREA ... 97

ERAIKUNTZAREN SEKTOREA ... 100

HIRUGARREN SEKTOREA ... 103

- LAN-MERKATUA: ........ 109
GIZARTE ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA........ 116
HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA ........ 125
**3. AZTERKETA ESTRATEGIKOA**........ 139
**3.1. AMIA METODOLOGIA**........ 139
**3.2. DURANGOKO AMIA MATRIZEA**........ 140

# 1. SARRERA

## 1.1. AURREKARIAK

Durangoko Tokiko Agenda 21 dagoeneko finkatuta dagoen kudeaketarako tresna da. Zazpi urte igaro dira lehenengo udal-diagnostikoa egin eta Durangoko Tokiko Agenda 21eko 2007-2011 Ekintza Plana Udalbatzak aho batez onetsi zuenetik. Beraz, Durangoko Tokiko Agenda 21en Lehenengo Ekintza Planak barne hartzen zituen gai-eremuetan jasangarritasunaren alde lan gogorra egitea ahalbidetu duen zazpi urteko ibilbidea izan da.

Orain, lehenengo Planaren indarraldia amaitu eta errealitate globala eta tokiko errealitatea aldatu denez, Udalak 2012-2020 aldirako Ekintza Plan berria egitea erabaki du. Plan berri horretan, jasangarritasunaren gaiari era integralean ekingo zaio eta tresna operatiboa eta izaera estrategikoa duena izango da, berriro ere 2002an Aalborg-eko Gutuna sinatzean, tokiko jasangarritasunaren alde hartutako konpromisoa berretsiz.

Egun, Durangoko Tokiko Agenda 21 “jarraitu beharreko eredu” gisa hartzen da, eta horixe berresten dute beste erakunde batzuek emandako aintzatespenek. Dena den, Tokiko Agenda 21en parte hartzen duten Udaleko ordezkariek, bai herritar, bai eragileek, badakite oraindik ere hobetu beharreko alderdiak zeintzuk diren, eta beraz, Durangoko jasangarritasunaren alde Tokiko Agenda 21eko formularen bidez lanean jarraitzeko konpromisoa hartu dute.

Durangoko etorkizunaren ibilbide-orria adierazten duen Ekintza Plan berria diseinatzearen mesedetan, eta hausnarketa estrategikoa laguntzeko asmoz, bi gertaera garrantzitsu identifikatu dira: 2007-2011 Ekintza Planaren ebaluazioa eta jarraian aurkezten den ingurumen eta gizarte arloko diagnostikoa egitea.

2007-2011 Ekintza Planaren ebaluazio-ariketari esker, lorpenak eta asmatu diren gauzak identifikatu dira, eta baita Tokiko Agenda 21en ezarpenean izan diren desdoitzeak ere, kontuan hartu beharreko oinarrizko alderdiak identifikatu ahal izateko eta hutsegite berdinak ez errepikatzeko. Bestalde, aztertu diren gaietan udalerriaren egungo egoera zehazten duen ingurumen eta gizarte arloko diagnostikoaren dokumentu honek lehentasunezko ekintza-eremuak identifikatu nahi ditu ondoren hausnarketa estrategikoaren bidez eztabaidatzeko. Eztabaida ezarritako partaidetza-bideen bidez garatuko da.

## 1.2. HELBURUA

Udalerriko gizarte eta ingurumenaren egoeraren diagnostikoaren helburua non gauden eta nolakoak garen jakitea da, 8 urte barru non egon nahi dugun eta nola egon nahi dugun azaldu ahal izateko, Tokiko Agenda 21ekin eta udal-jasangarritasunak adierazten dituen irizpideekin bat etorriz.

Beraz, udalerriko gizarte-alderdien, ingurumen-alderdien, alderdi ekonomikoen eta antolaketa-alderdien egungo egoera ezagutzea da kontua, 2012-2020 aldirako Tokiko Agenda 21en Ekintza Planeko zein gaitan esku hartu behar den identifikatzea ahalbidetuz.

Beraz, herritarrekin batera antolaketa eta benetako konpromisoak nork bere gain hartuz, garapen jasangarriaren printzipioak barne hartuko dituen tokiko politika diseinatzeko ezagutza-elementuak ematen dituen mekanismoa da udalerriko ingurumen eta gizarte arloko diagnostikoa.

Diagnostikoa burutzeko, datu kuantitatiboak aztertzeaz gain, udal-egoera aztertu da, biztanleriaren ikuspuntutik, sortu diren foroetan jasotako ekarpenen bidez, eta baita proiektuaren web-orrialdetik jaso diren ideia eta ekarpenen bidez ere.

## 1.3. METODOLOGIA

Metodologiari dagokionez, udalerriko ingurumen eta gizarte arloko diagnostikoa burutzeko, honako pausu hauek eman dira:

- Tokiko jasangarritasun-adierazleak bildu eta aztertzea.
- Datu osagarriak eta dokumentu-informazioa biltzea.
- Udalerrian eragina duten beste udaleko edo udalaz gaineko-hausnarketako plan eta esparru batzuk biltzea.
- Herritarren eta eragileen partaidetzaren bidez AMIA azterketak eta ekarpenak biltzea.

### Tokiko jasangarritasun-adierazleak bildu eta aztertzea

Lehenengo Ekintza Planaren jarraipena egiteko asmoz, jasangarritasun-adierazle batzuk zehaztu ziren IHOBEk proposatutako adierazleen multzotik abiatuta. Azken urteotan egindako adierazleen monitorizazioari esker, Tokiko Agenda 21en barnean garatutako ekintzek izan

duten inpaktuaren balorazioa burutu da. Ildo horretan, ingurumen eta gizarte arloko diagnostikoa egiteko, jasangarritasun-adierazleek adierazten duten joera ere kontuan hartu da.

## Datuak eta dokumentu-informazioa biltzea.

Durangoko Ingurumen eta Gizarte arloko Diagnostikoak dituen kapituluak kontuan hartuz, talde aholkulariak informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa bilatu du, diagnostikoan hausnartu diren gaientzako informazio garrantzitsua lortzearen mesedetan. Horretarako, kontsulta-prozedurak antolatu eta Udaleko sailetako eta beste administrazio batzuetako informazioa batu da, eta baita iturri estatistikoek eskaintzen dituzten datuak aztertu ere.

## Udaleko eta udalaz gaineko plan eta proiektuen dokumentuak biltzea

Bestalde, Udalak onetsi dituen plan eta proiektuak bildu dira, eta baita udalerrian eragina duten udalaz gaineko proiektuak ere, aztertzeko.

Horretarako, talde aholkularia Udaleko sail eta zerbitzuekin harremanetan jarri da, eta Sailak interesgarritzat jotzen dituen dokumentuak eskuratu ahal izateko eskaera egin du. Udalak duela gutxi onetsitako plan batzuk aipatu behar dira: Klima-aldaketaren aurka Borrokatzeko Udal-programa, Mugikortasun Jasangarriaren Udal Plana, Airearen Kalitatearen Plana, Zarataren Mapa eta Zarataren aurka Borrokatzeko Plana, etab.

Indarrean dauden udalaz gaineko planak ere aztertu dira, eta beraz talde aholkulariak planen edukiak eskuratzeko beharrezko kudeaketak burutu ditu: Durangoko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Plana, Ecoeuskadi 2020 Estrategia eta beste batzuk.

## Herritarren eta eragileen partaidetzaren bidez AMIA azterketak eta ekarpenak biltzea.

Ingurumen eta gizarte arloko diagnostikoaren lehenengo zirriborroa egin ondoren, eduki garrantzitsuenak aurkeztu eta herritarrekin eta udal-eragileekin eztabaidatu dira, eratutako partaidetza-foroen bidez. Halaber, partaidetza-batzarretan, AMIA azterketa burutu da, udalerriak dituen Ahulezia, Mehatxu, Indar eta Aukerak aztertzeko, diagnostikoko elementuetatik abiatuta.

# 2. LABURPEN-DIAGNOSTIKOA

## 2.1. DIAGNOSTIKOAREN EGITURA

Arestian aipatutako informazio-multzo kuantitatibo eta kualitatiboan oinarrituz, informazioa tratatu eta interpretatu egin da, gizarte eta ingurumen arloko diagnostikoa egiteko.

Diagnostikoak esku hartzeko Planaren lehentasunezko eremuen identifikazio sistematikoan jartzen du arreta batez ere. Zentzu horretan, ahalegin berezia egin da Diagnostikoa egiteko ekintzak zehaztea ahalbidetu dezaketen funtsezko alderdietan, beste gai batzuk kalterako. Ondorioz, dokumentua sintetikoa eta oso zehatza da, eremu garrantzitsuenak identifikatzeko bokazio argiz.

**Azterketa-eremuak**

**LURRALDE-ALDERDIAK**

- Lurraldea eta Plangintza
- Etxebizitza
- Mugikortasun Jasangarria
- Biodibertsitatea eta Paisaia

**INGURUMEN-ALDERDIAK**

- Ura
- Hondakinak
- Energia
- Ingurumen Kalitatea
- Jarduera ekonomikoen eta arriskuaren kudeaketa
- Erosketa publiko berdea eta ingurumen-kudeaketa
- Klima-aldaketa

**SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNEKO KOORDINAZIOA**

- Herritarren partaidetza eta komunikazioa eta elkartegintza eta sentsibilizazioa
- Barneko koordinazioa eta zeharkakotasuna

**GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA**

- Biztanleria
- Jarduera ekonomikoaren egitura eta maila
- Lehen sektorea
- Bigarren sektorea
- Eraikuntzaren sektorea
- Hirugarren sektorea
- Lan-merkatua
- Gizarte-ongizatea eta gizarteratzea

- Hezkuntza, euskara, kultura eta kirola

## 2.2. DIAGNOSTIKOAREN FITXEN EGITURA

Azterketa-eremu bakoitzeko fitxa bat egin da diagnostikoaren alderdi esanguratsuenekin. Ildo horretan, fitxetan honako informazio hau zehaztu da, azterketa-eremu bakoitzean:

- Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak.
- Diagnostikoaren oinarrizko alderdiak. Datu kualitatibo eta kuantitatibo esanguratsuenak (taulak, grafikoak, mapak, argazkiak, etab).
- Aurreko Tokiko Agenda 21en aipamenak lotura duten programa eta ildoei eta garatzeko dauden indarreko ekintzei dagokienez.
- Eskumen-eremua. Udaleko, zein udalaz gaineko plan eta araudi garrantzitsuen aipamenak.
- Egoeraren balorazioa. Aztertu den azpi-eremu bakoitzeko balorazio kualitatibo eta orokorra burutu da diagnostikatutako oinarrizko alderdiak kontuan hartuz:

**ONDO:** oinarrizko alderdi gehienak ondo baloratu dira. Oro har, ez dela neurri zuzentzailerik behar esan nahi du, egoera finkatu behar dela baizik.

**HALA-MODUZ:** balorazio on eta txarrak daude diagnostikoaren oinarrizko alderdiei buruz.

**TXARTO:** oinarrizko alderdien balorazio txarra egiten da batez ere. Oro har, gabeziak konpontzeko esku hartu behar dela esan nahi du.

**BALORTAU GABE:** Ez da azpi-eremua baloratu, Informaziorik ez dagoelako, edo baloratu behar ez den deskribapena delako.

.

## 2.3. BETEARAZTEKO LABURPENA

### LURRALDE-ALDERDIAK

**Durango** Ibaizabal ibaiaren ezkerraldeko azalera zabalean kokatuta dago, interes ekologiko eta paisaia-interes handia duen Urkiolako Parke Naturalaren barnean.

**Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO)** jasangarritasunezko irizpideekin aztertzea da udalerriaren hurrengo erronketako bat. Azterketa-prozesu horretan honako gai hauek hartu beharko dira kontuan, beste gai batzuen artean: erabiltzen ez diren lurzoruen berreskuraketa lurzoruaren artifizializazioa gehitzen ez jarraitzeko, Trenbidea Barnetik Berritzeko Plan Bereziaren bidez kohesioa hobetu eta Iurreta, Abadiño, Izurtza eta Durangoren arteko hiri-jarraitua osatzea.

Batez ere alokairuko erregimena sustatuko duen **etxebizitza-politika** ere behar da, gazteak udalerrian mantentzen lagunduko duena, hutsik dauden etxebizitzen stock-a handia baita., .

**Mugokortasun jasangarriaren plangintza eta kudeaketan** asko aurreratu da, bidegorrien sarea sortuz, oinezkoentzako kaleak eginez eta zirkulazio-neurriak hartuz..., baina alderdi batzuk hobetu egin behar dira. Eskualdeko udalerri batzuekin, edo Gasteizekin garraio publikoa, eta TAO sistema ere aztertu behar da. Herritarrentzako irisgarritasun-baldintzak oro har, asko hobetu badira ere, Durangon irisgarritasun unibertsala egoteko eta oinezkoentzako leku gehiago izateko eta bizikletentzako azpiegiturak gehitzeko joera jarraitu behar da.

### BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

**Uraren kudeaketari** dagokionez, nabarmendu beharreko alderdi gisa, azken urteotan uraren eskaera osoa (alta egindakoa) %16 murriztu dela aipatu behar da, eta isuriak 2007tik gaur arte nabarmen murriztu dira, gai horretan gehiago aurreratu badaiteke ere.

**Udalerriko egitura energetikoa**, EAEko beste udalerri batzuetakoaren antzekoa da eta erregai fosilen erabilera handia eskatzen du, beraz, maila publikoan, zein pribatuan energia berriztagarriak sustatzea erronka garrantzitsua da. Gainera, eraginkortasun eta aurrezpen energetikorako politikak sustatu behar dira. Azken alderdi hori udalerrian emaitzak izaten ari da, argi publikoen energia-kontsumoa %40 murriztu baita 2009an abian jarri zen eraginkortasun energetikoko planaren ostean.

**Urteko biztanle bakoitzak sortutako hondakinek** beheranzko joera dute, eta berreskurapena gehitu egin da, baina gaikako bilketa gehiago hazi behar da, hondakinen materia organikoaren kudeaketa-sistema abian jartzeak egungo berreskurapen-ratioak hobetzen lagunduko duela kontuan hartuz.

Udalerrian **kutsatuak egon daitezkeen lurzoruak izateak,** portzentajea handia ez bada ere, zaintza eta jarraipenerako ekintzak indartzeko eta leku horiek berreskuratzeko neurriak hartu beharra eskatzen du.

**Berotegi Efektudun Gasak murriztera** sustatzen dituen Europako testuinguruan, udalerrian abian jarritako Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Plana bere fruituak

ematen ari da, eta Plan horrek 2015. urterako jarritako helburuak gainditu egin dira.

Hurrengo urteetan **hobetu** behar diren gaiak hauek dira: ibaien hobekuntza ekologikoa, zarataren aurkako ekintzak abiaraztea, kutsadura elektromagnetikoaren kontrol handiagoa, eta argien kutsadura murriztea.

Nabarmendu beharra dago, **arnasten dugun airea** hobetu egin dela, zalantzarik gabe, azken urteotan.

**GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA**

**Eskualdeko estrategia ekonomikoa** ezarri behar da dibertsifikazio handia duten industria bezalako sektoreetan, eta turismoa askoz ere gehiago garatu behar da, tokiko produktu ekologikoen ekoizpena sustatzeaz gain..

Azken urteotan, **udalerriaren dinamizazio kulturalaren** aldeko apustu garbia egin da, jarduera ugari eta anitzekin. Dena den, Udala eta eragileen artean koordinatutako ekintzen garapena indartu behar da, antolatutako ekitaldiekiko gizarteak duen erantzuna handiagoa izan dadin.

**Zerbitzu eta ekipamendu sozialen eskaintza** egokia dela uste da, eta oraingoz egungo eskaerari erantzuten dio, zerbitzu sozialen kokapena eta irisgarritasuna egokienak ez diren arren.

**Kirol-ekipamenduen** eskaintzari dagokionez, egokia dela uste da.
**Euskararen** ezagutza, eta batez ere egunerokotasunean eta eremu guztietan **erabilera** sustatzeko politiken garapenean aurrera jarraitu behar da.

**SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNEKO KOORDINAZIOA**

Herritarren ohituren aldaketa, eta baita tokiko administrazioarena ere, **sentsibilizazio, kontzientziazio eta hezkuntzako** lanen bidez, eta baita egunerokotasunean **jardunbide egokiak hartzea**, pieza garrantzitsua da udalerriko tokiko jasangarritasun-prozesuan.

**Partaidetza-egituren** finkapenerantz aurrera egitea, herritarren partaidetzarako foroak adibidez, beren fruituak biltzen ari diren prozesuak dira, baina etengabe elementu berritzaileak behar dituzte.

Halaber, Durangok **elkarteen sare indartsua** daukala ikus daiteke, baina koordinazio handiagoa eta lankidetzarako bideen ezarpena behar du, eta baita jarduera garatzen jarraitzeko ondo kudeatutako espazioak edukitzea ere.

Burutzen ari diren udal-politiken zeharkakotasunak, **sailen arteko lankidetza eta koordinazioa** gehiago indartzeko beharra begi bistan jartzen du.

**Erosketa eta kontratazio publiko berdearen** ezarpen-maila benetako finkatze-egoeran dagoela esan daiteke.

# 2.4 LURRALDE-ALDERDIAK

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak.**

5. HIRIGINTZA PLANGINTZA ETA DISEINUA

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Kokapena** | o Durangoko udalerriak 10,91 $km^2$ko azalera du eta Durangaldeako eskualdean dago, gainera eskualdeko herri nagusia da. Durangoko kokapen geografikoari dagokionez, azken mendeko euskal industria-garapeneko ardatz garrantzitsuenen arteko lotura da, Nerbioiko itsasadarra eta Gipuzkoako haran industrialen artekoa eta bide-azpiegitura garrantzitsuek inguratzen dute.<br><br>o EAEko biztanleria-dentsitate handienetakoa duen udalerria da 2.589,54 biz/$Km^2$ (2011ko datua), probintziako batez bestekoa (521,04 biz/$km^2$) eta eskualdekoa (308,70 biz/km $^2$) baino ratio askoz ere handiagoa.<br><br>**1. Grafikoa. Durangoko populazioaren dentsitatearen bilakaera.**<br><br>*Iturria: Udalmap-en datuetatik egindako berezko lantzea.* | |
| **Lurzoruaren kalifikazioa** | o Egungo arau subsidiarioak (aurrerantzean AA.SS) 2005ean onetsi ziren eta "B" mota gisa kalifikatzen dira, horrek udal-lurzoruaren sailkapen hau egiten dela esan nahi du: hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta urbanizatu ezin den lurzorua. AA.SSek emandako kalifikazioarekin bat etorriz, udal-lurzoruaren %54,67 gutxi gorabehera, ez urbanizagarri gisa kalifikatzen da, %18,87 sistema orokorretarako erabiltzen da (bideak, ekipamendua, espazio libreak, oinarrizko azpiegiturak,...) lurzoruaren %8,18 jarduera ekonomikoetarako kalifikatzen eta %18,87 bizitegi-erabiltzeko. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | **2. Grafikoa. Durango-ko lurzoruaren kalifikazioa.**<br><br><br>*Iturria: Udalplanen datuetatik egindako berezko lantzea.*<br><br>o Urbanizagarria ez den azalerari dagokionez, erdiak baso-erabilera du eta %34,04 babes bereziko lurzoru bezala kalifikatzen dira.<br><br>**3. Grafikoa. Lurzoru ez urbanizagarriaren banaketa.**<br><br><br>*Iturria: Udalplanen datuetatik egindako berezko lantzea.*<br><br>o Durangok ez du Eusko Jaurlaritzaren 5/1988 Legearen Landa Gunearen ezaugarriak dituen eremurik. Urbanizagarriak ez diren lurzoruan dauden baserriak auzo edo eremu hauetan daude: Eguzkitza auzoa, Momotxo auzoa, Larrinagatxu auzoa eta Santa Luzia auzoa.<br><br>o Bestalde, Durangoren 138 hektarea Urkiolako Parke Naturalaren barnean daude (udal-lurzoruaren %12,64), hau da, Parkearen azalera osoaren %2,04. Beraz, azalera hau Urkiola Parke Naturala Erabili eta Kudeatzeko Plan Gidariak arautzen du. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | o Egun, udal-lurzoruaren %25,1 artifizializatua dago, batez ere hiri-lurrek, jarduera ekonomikoek eta sistema orokorrek okupatua. | |
| **Aurreikusitako garapenak** | o 2012an, indarrean dauden AA.SSen azterketarekin hastea aurreikusten da, beraz, jarraian adierazten diren garapen-aurreikuspenak aztertuko dira Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria burutzerakoan.<br><br>o Egungo antolamenduaren helburua jatorrizko hirigunea finkatu eta indartzea izan da "dauden uharteak" betez.<br><br>o Hiri-lurretan AA.SSek aurreikusitako bizitokien eskaintza 2.949 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 722 etxebizitzakoa da, hirigintza-jarduketa hauen bidez: 4 Barnetik Berritzeko Plan Berezi (Trenbidea, San Fausto, San Roke eta Artabilla), 19 Egikaritze-unitate (Askatasun, Birjinoste, Intxaurrondo-Laubideta, Odi-Bakar, Etxezurioste, Trenbide, Azoka-Montevideo, Intxaurrondo- Manaria ibaia, Urien-Intxaurrondo, Larrasoloeta, Ona-Larrasoloeta, Laubideta, Tabira-Gasteiz Etorbidea, Okaranza, Iparzabalarra, Arripausueta, Kabilduoste, Mikeldi eta Aramotz) y 5 egikaritze-jarduera zuzen (Magdalena, Fco. Ibarra, Txibitena, Lehengo Alhondiga eta Kurutziaga). Bstalde, urbanizagarria den lurzoruan bi hirigintza-operazio aurreikusten dira: Faustigoiena eta Eguzkitzagoiena. Egikaritze hauei esker, 551 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 290 etxebizitza gehitu dira. Ondorioz, egungo AA.SSekin bat etorriz, Durangoko egoitza-eskaintza 3.500 egoitza libre eta babes ofizialeko 1.012 etxebizitzakoa da.<br><br>o Bizitegi-eraikuntzaren oinarrizko tipologia familia anitzekoa da eta aurreikusten diren hirigintza-jarduketetatik, egikaritze-unitate hauek bete dira: Intxaurrondo- Laubideta, Odi-Bakar, Aramotz, Urien-Intxaurrondo, Laubideta, Tabira-Gasteiz Bidea , Okaranza eta San Roke eta Faustigoiena. Azken bi horiek partzialki egikaritu dira (Etxebizitzaren atalean horri buruzko datu gehiago eskaintzen dira).<br><br>o Jarduera industrialerako erabiltzen den lurzoruari dagokionez, eskaintza alde batetik, Eguzkitza II industrialdeko lurzoru urbanizagarriaren sektoreak osatzen du. Eremu hori aurreko AA.SSen garapenean onetsitako Eguzkitza II Plan Partzial Industrialak arautzen du. Plana gauzatu gabe dago. Eta bestetik, indarrean dauden AA.SSek agintzen duten Eguzkitza III | |

<table>
<tr><th>AZPI-EREMUA</th><th>DIAGNOSTIKOA</th><th>BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td></td><td>ere eskaintza horren barnean dago, lurzoru urbanizagarri gisa kalifikatuta dago, eta batez ere erabilera industriala du.<br><br>o Bestalde, Trenbidea Barnetik Berritzeko Plan Berezia da Durangoren erronka nagusienetakoa, Durangoko erdigunean trenbidea lurperatu eta Durangoko geltokia lurpean eraiki behar baita. Beraz, trenaren instalazioak eta lurrak, hots, geltokia, trenbidea, mantentze-lanetako tailerrak, biltegiak eta aire zabalean materialak uzteko lekuak, libratu egin beharko dira. Hortaz, trenbidearen lurperatze eta banatzea Alluitz, Sasikoa, Ezkurdi, Askatasun Etorbidearen atzealdea eta Bidebaltz arteko lurrak libratuko dira, 55.401 $m^2$ hain zuzen ere. Egun, lurperatze-fasea ia amaitu da. Hurrengo pausua azaleko lurzorua libratzea da, ondoren, berreskuratutako espazioaren bidez Durangoko hirigunetik Matienaraino hiri-ardatz edo bulebar garrantzitsuari jarraipena emateko espazio berreskuratuaren bidez.<br><br>1. Irudia. Trenbidea.<br>Zumalakarregi eta Ermodo kaleen arteko trenbide-pasagunea.<br></td><td></td></tr>
<tr><td>Hiriko berdeguneak eta hirikoak ez direnak</td><td>o Espazio libreen sistema orokor gisa kalifikatu eta aisialdirako erabiltzen diren titulartasun publikoko eremuak (urbanizagarriak ez diren lurrak) hauek dira: San Rokeburu, Artabilla-Santikurutz, Neberondo eta Landaedarra.<br><br>o Hiri-lur urbanizagarrietan kokatzen diren berdegune eta espazio libreak hauek dira: Ezkurdi plaza, Etxezarreta parkea, Pinondoko lorategiak, Tabira parkea, Tabira parkea-Mañaria ibaia eta Ibaizabal ibaiertzeko parkea Landakon.</td><td></td></tr>
</table>

<table>
<tr><th>AZPI-EREMUA</th><th>DIAGNOSTIKOA</th><th>BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td></td><td>o Guztira, hiri-lur urbanizagarrietan espazio libre eta berdeguneetarako erabiltzen diren eremuak 46.373 m² dira, eta bestalde, titulartasun publikoa duten eremuen azalera hiri-lurretan ez da 440.624 m²ra heltzen. Bi tipologien artean, 468.997m ²dira, udal-azaleraren %4,5 hain zuzen ere.<br><br>o Bestalde, hiri-lurretako parke, lortaegi eta berdeguneek okupatutako azalera hiri-lurren %10,60 da (2009, Udalmap), probintziako portzentajea baino txikiagoa (%13,27).</td><td></td></tr>
<tr><td>Ondare kultural babestua</td><td>o Durangoko Uri Historikoa Andra Mari, Uribarri, Kanpatorrosteta, Komentukalea, Plaza Balbino Garitaonandia, Santanoste eta Mañaria ibaiak Andra Mari zubiraino hesitutako eremua da. Eremu hori, alboko beste zona batzuekin batera, Ondare Kultural gisa kalifikatu zen Monumentu Multzoaren kategoriarekin. Beraz, irailaren 26ko 428/1995 Dekretuak xedatutako babes-erregimenaren menpe dago.<br><br>o Babes Arkeologikoko eremutzat hartzen dira, baita ere, elementu hauen inguruak eta lur-azpiak:<br>- Merkatuko Ateko errota.<br>- Zumardiko Ateko errota.<br>- Merkatuko Ateko Errota.<br>- Santanoste 8 zenbakiko etxea.<br>- Muruetako Dorretxea.<br>- San Bartolomeko Ermita Zaharra.<br>- Tabirako San Pedro eta Arrosarioko Ama Birjinaren kapera.<br>- Aranekoa Burdinola.<br>- Zuahatzolako Santi Kurutz ermita zaharreko orubea.<br>- Santa Lutzia baserria eta ermita zaharra.<br>- Artatxaga Historiaurreko tumulua.<br><br>o Bestalde, babes berezia duten monumentu-multzoak honako hauek dira:<br>- Harraskak (Andra Mari kalea).<br>- Harraskak (Zehar kalea).<br>- Mañaria ibaiko mailadia.<br>- Arkupeak.<br>- Fatxada eklektikoa (Barrenkalea 42).<br>- Harraskak (Barrenkalea).<br>- Santa Ana eliza.<br>- Santa Anako arkua.<br>- Laritz dorrea<br>- Erretako etxea.<br>- Uribarriko Santa Maria eliza.</td><td></td></tr>
</table>

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | - Udaletxea.<br>- Arribi jauregia. | |
| **Irisgarritasuna** | o Irisgarritasuna hobetzea izan da Tokiko Agenda 21en 2007-2011 Ekintza Planaren helburu nagusienetakoa. Ildo horretan, jarduerak eraikin publikoak hartu ditu kontuan, eta baita espaloi eta oinezkoentzako bideen birmoldaketa ere. Bestalde, Juan Itziarko auzunean, adibidez, jarduketa-proiektu zehatzak burutu dira.<br><br>o Zentzu horretan, Durangok duen helburua irisgarritasun unibertsala izatea da, hau da, irisagarritasuna, aniztasun funtzionala duten pertsonak kontuan hartuz, bizitza autonomoa izan dezaten. | |
| **Durangaldeako Eskualde Egiturako LZE** | o Laster, egungo AA.SSak aztertzea aurreikusi arren, Durangaldeako Eskualde Egiturako LZE duela gutxi onetsi da (2011), eta Durangoko Udalak dokumentuaren aurka errekurtsoa aurkeztu badu ere, eskualdea eta udalerriaren etorkizuneko garapenerako irizpideak ezartzen ditu.<br><br>o LZEk hurrengo 8 urteetarako etxebizitzen zenbaketari dagokionez, Durangorako egiten duen aurreikuspena 1.023 etxebizitza garbikoa da. 16 urte barruko eredurako, berriz, 2.268 etxebizitza garbi aurreikusten ditu (8 urte barruko eredurako aurreikusten duen kopurua barne).<br><br>o Jarduera ekonomikoetarako erabiltzen den lurzoruari dagokionez, hurrengo 16 urteetarako aurreikuspena, , erabilera mistoa bizitegi-erabilera edo jarduera ekonomikorako erabilera duten lurzoruen barnean hirugarren sektorerako lurzorua sartzea da. Lurzoru industrial gehien behar duten udalerriak Abadiño eta Amorebieta-Etxano dira. Bestalde, LZEk Matienan (Abadiño) parke zientifikoa jartzea proposatzen du, Durangorekin mugan, jarduera industrialaren osagarri gisa, enpresa, prestakuntza-zentro eta/edo ikastetxeen zerbitzura egongo diren ikerketa eta teknologiarako eraikinekin. | |
| **Jasangarritasun-irizpideak antolamendua n** | o Egungo AA.SSek ez dituzte jasangarritasunarekin lotutako alderdi zehatzak aurreikusten. Dena den, Tokiko Agenda 21etik, etxebizitza eta bulego-eraikinak eraikitzerakoan ingurumena hobetzeko Ordenantza egin da. Ordenantzaren helburua oin berriko eta/edo birgaitze osoko eraikinak dira, erabilera nagusitzat bizitokiena edo bulegoena dutenak. Ordenantzan ezarritako gutxieneko irizpideak alderdi hauetan ezartzen dira | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | zehazki: eraikinaren fatxadaren eguzki-orientazioa, barneko diseinua eguzki-orientazioari eta aireztatze naturalari dagokionez, eguzkiaren aprobetxamendua, kontsumo hidrikoa eta energetikoa, eta mugikortasun jasangarriari laguntza ematea. Honako hau lortu nahi da: CO2 igorpenak murriztu, etxebizitzen eraginkortasun energetikoa hobetu, erabilera termiko edo ekoizpen fotovoltaikorako eguzkitiko energiaren aprobetxamendua sustatu, baliabide naturalen (uraren kontsumoa, adibidez) aurrezpena eta aprobetxamendua gehitu, etxean sortzen diren hondakinak banatzea errazten duten neurriak sustatu ondoren birziklatu ahal izateko, kutsadura akustikoa murriztu atsedena hobetzeko, etab. Hori guztia, derrigorrez bete beharreko indarrean dagoen oinarrizko araudia hautsi gabe.<br><br>o Bestalde, hiri-obren ingurumen-hobekuntzarako ordenantza onetsi da. Ordenantzaren helburu nagusia Durangoko ingurumenean hiri-obrek duten eragina (airearen kalitatea, zarata eta eragozpenak: zikinkeria, irisgarritasuna, ordutegiak, etab.) murrizteko udal-eremuan laneko irizpide eta oinarriak garatzea da. | |

| LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK |
|---|
| **DURANGO** |
| o Durangoko Arau Subsidiarioak (2005).<br>o Etxebizitza eta bulego-eraikinak eraikitzerakoan ingurumena hobetzeko Ordenantza, 2008ko ekainaren 30ekoa. |
| **UDALAZ GAINEKO MAILA** |
| o Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzko Legea, 1990eko maiatzaren 31koa.<br>o 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzorua eta Hirigintzari buruzkoa.<br>o EAEko Lurralde Antolamenduko Gidalerroak (LAG) (1997).<br>o 2012 (martxoa). LAGen aldaketa behin-behinean onestea, horien berrazterketaren ondorioz.<br>o Durangoko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Plana (2008).<br>o Bizkaiko Errepideen Plan Sektorialak.<br>o Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzaren Lurraldeko Plan Sektoriala.<br>o Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Plan Sektoriala (2004)<br>o EAEko Garraio Sare Intermodal eta Logistikoaren Lurraldeko Plan Sktoriala (idazten eta izapidetzen ari dira).<br>o Euskadiko Errepideen Bigarren Plan Orokorraren Berrazterketa 2006-2016 aldirako.<br>o EAEko Trenbide Sarearen Lurraldeko Plan Sektoriala.<br>o EAEko – Isurialde Kantauriarreko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Plan Sektoriala. |

**AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA**

**LOTURA DUTEN ILDO ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZAK**

**IE 4. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN ETA HIRIGUNEAREN KALITATEA HOBETU**

**P 4.1. Hirigunearen kalitatearen hobekuntzarako programa**

- 4.1.1. Eremu berdeen beharraren gaineko azterketa egin.
- 4.1.2. Zarata sortzen duten eremuen (industria, aisialdikoak…) eta alboko bizitegien arteko barrera fisiko eta bisualak ezarri.
- 4.1.6. Beste erakunde batzuen laguntzaz eskualdeko hirigintza planeamendua koordinatu.
- 4.1.7. Hirigintza planeamendua adosteko parte-hartze tresna berritzaileak ezarri.
- 4.1.9. Herri lanak eta hirigintzak jarduerak arautzen dituen prozedura / protokoloa berrikusi, hiritarrei egiten zaien enbarazu txikitu asmoz.
- 4.1.11. Genero ikuspegitik hirigunearen arrisku zonaldeak txikitu.

**P 4.2. Programa para incorporar criterios ambientales en la construcción**

- 4.2.1. Etorkizuneko eraikuntzei "Euskadiko Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Eraikuntzara Iraunkorrerako Gidaren" aholkuak aplikatu.
- 4.2.2. Eraikuntza eta lanen baimenen jarraipena egin iraunkortasun irizpideen aplikazio mailari dagokionez.
- 4.2.3. Eraikuntzen erauztean sortutako hondakinen jarraipena egin.

**P 4.3. Programa para impulsar una política social de la vivienda**

- 4.3.1. Etxebizitza tasatua lehenetsi bestelako etxebizitza moten gainetik.
- 4.3.2. Etxabe hutsak etxebizitza gisa erabiltzeko aukera aztertu.
- 4.3.3. Aztertu lehen etxebizitza salneurri iraunkorrean eskaintzeko aukera.
- 4.3.4. Aztertu zergatik etxe hutsak dituztenek ez dituzten alokatu nahi.

**P 4.4. Programa para mejorar la accesibilidad municipal**

- 4.4.1. Eraikuntza eta hirigintza lanak exekutatzen dituzten eraikitzaileekiko kontrol zorrotza ezarri irisgarritasuna bermatzeko.
- 4.4.2. Irisgarritasun arazoak konpondu eraikin publikoetan (Astarloa, Udaletxea,…).
- 4.4.3. Irisgarritasunaren inguruan egin behar diren azterketetarako, mugikortasun ezintasunak dituztenen ikuspegia jaso.
- 4.4.4. Pertsonak sentsibilizatu eta ezagutzera eman oztopo arkitektonikoek zer zailtasun sortzen dituzten mugikortasun ezintasuna duten pertsonentzat.
- 4.4.5. Ostalariak eta merkatariak motibatu edo saritu irisgarritasuna bermatzeko moduan euren establezimenduak molda ditzaten.
- 4.4.6. Urtero Udalaren aurrekontuaren zati bat udalerriko irisgarritasuna hobetzeko zehaztu.
- 4.4.7. Udalaren baliabideen egokitzapena aztertu (teknikoak eta ekonomikoak) irisgarritasunaren eremuan egin beharrekoak eta dauden beharrak garatzeko.
- 4.4.8. Udalerriko parke mugikorrerako kontuan izan irisgarritasunaren eta ingurumen inpaktuaren aldagaiak.

# ETXEBIZITZA

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak.** 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA

<table>
<tr><th>AZPI-EREMUA</th><th>DIAGNOSTIKOA</th><th>BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td>Etxebizitza-parkearen bilakaera</td><td>

o Durangok 13.056 etxebizitzako etxebizitza-parkea du. Azken urteotan, 5.000 etxebizitza baino gehiago egin dira (%63 hazi da). Denboraldi berberean biztanleria-kopurua ere gehitu egin da, baina hazkundea neurrizkoagoa izan da (%24), familien batez besteko tamaina pixkanaka murrizteko dagoen joera dela-eta, hein batean.

**1. Taula. Durangoko etxebizitza kopuruaren bilakaera.**

| | 1991 | 1996 | 2001 | 2010 |
|---|---|---|---|---|
| **Etxebizitza kopurua** | 7.984 | 9.158 | 10.229 | 13.056 |

*Iturria: Eustat-en datuetatik egindako berezko lantzea.*

o Etxebizitza-kopuruaren hazkundeagatik, bizitegi-lurzoruan etxebizitzen dentsitatea ere hazi egin da.

**4. Grafikoa. Bizitegi-lurzoruko etxebizitzen dentsitatearen bilakaera (etxebizitza zb. / Ha-ko bizitegi-udal azalera).**




*Iturria: Udalmap-en datuetatik egindako berezko lantzea.*

o Bestalde, hutsik dauden etxebizitzen portzentajea etxebizitza-parkearen %12,8koa dela balioztatzen da. Portzentajea egonkor mantendu da 2001-2009 aldian.

</td><td></td></tr>
<tr><td>Etxebizitza-parkearen ezaugarriak</td><td>

o Durangoko etxebizitzen batez besteko azalera 88,60 m$^2$koa da. Etxebizitzen antzinatasunari dagokionez, udalerriko batez bestekoa 33 urtekoa da (2010) probintziako batez bestekoa (40,60 urte) baino txikiagoa. Hala ere, 50 urte baino gehiago dituzten familia-etxebizitzak ia %17 dira Durangon 2010.urtean.

</td><td></td></tr>
</table>

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|

Portzentaje hori gehitu egin da azken 20 urteotan pixkanaka-pixkanaka.

**2. Taula. 50 urte baino gehiago dituzten familia-etxebizitzak.**

| | 1991 | 2001 | 2006 | 2010 |
|---|---|---|---|---|
| **Etxebizitza %** | 11,52 | 8,08 | 14,32 | 16,93 |

*Iturria: Udalmap.*

- Bestalde, Durangoko etxebizitzen erosotasun-indizea gehitu egin da, eta egun, eraikinetan erosotasun-indize onenetakoa duten EAEko udalerrien artean dago (7. lekuan, Udalmap-eko datuen arabera.

**3. Taula. Lehen familia-etxebizitzen erosotasun-indizea.**

| | 1991 | 1996 | 2001 | 2006 |
|---|---|---|---|---|
| **Konfort indizea** | 67,63 | 71,40 | 76,67 | 78,47 |

*Iturria: Udalmap.*

- Ildo honetan, Durangoko etxebizitzen %40 inguru azken 20 urteetan eraiki direla ikus daiteke, eta horien erosotasun-maila ona da. Baina etxebizitzen %20k berriz, 50 urte baino gehiago daukate, eta beraz, pixkanaka udalerriko etxebizitzarik zaharrenak birgaitzeko beharra antzematen da.

**Etxebizitza berriak eraikitzea**

- Jarraian, 4.taulan (hiri-lur urbanizagarriaren eskaintza), 2005ean onetsitako indarrean dauden AA.SSen arabera etxebizitzak egikaritzeko aurreikuspenak eta lurzoruaren eskaintza ikus daiteke, eta aurreikusita dauden unitateen egungo egikaritze-egoera ere zehazten da. Beraz, egungo AA.SSek Durangorako 3.500 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 1.012 etxebizitzako eskaintza aurreikusten dute.

- Dena den AA.SSen aurreikuspenak ez dira guztiz gauzatu, zentzu honetan , etxebizitza-kopurua kontuan hartuz gauzatu diren eragiketa nagusiak eremu hauetan izan dira: San Roke, zati batean egikaritu da, Hodi-Bakar, Alondegi zaharra; Aramotz eta Faustigoiena. Azken hori ere zati batean bakarrik egikaritu da. Beraz, aipatutako aurreikuspenetatik, 1.059 etxebizitza libre inguru eta babes ofizialeko 323 etxebizitza inguru egikaritu dira (San Rokeko BOEk oraindik egikaritu ez diren arren, badaukate obrak hasteko lizentzia). Beraz, azken 8 urteetan, 1.382 etxebizitza eraiki dira Durangon, AA.SSetan planifikatutakoaren herena gutxi gorabehera.

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|

**4. Tabla. Indarreko arau subsidiarioetako etxebizitzetako eta egite-graduko aurreikuspena.**

| | ZENBAKIA | IZENA | AZALERA M2 | DENTSITATEA ETXE/HA | KOPURU OSOA | BOE KOPURUA | EGUNGO EGOERA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HAPBk (lehen BBPB) | 1 | Ferrocarril | 55.401 | 100 | 554 | 111 | Exekutatu gabe |
| | 2 | San Fausto | 48.128 | 75 | 361 | 108 | Exekutatu gabe |
| | 3 | San Roke | 68.118 | 70 | 477 | 143 | Exekutatzen |
| | 4 | Artabilla | 100.846 | 8 | 81 | - | Exekutatu gabe |
| | **GUZTIRA** ……… | | | | **1.473** | **362** | |
| E.U.k | 1 | Askatasun | 3.010 | 90 | 27 | - | Exekutatu gabe |
| | 2 | Birjinoste | 18.554 | 70 | 130 | 39 | Exekutatu gabe |
| | 3 | Intxaurrondo-Laubideta (consolidado) | 10.243 | - | - | - | Exekutatuta |
| | 4 | Odi-Bakar | 18.138 | 106 | 192 | 58 | Exekutatuta |
| | 5 | Etxezurioste | 34.011 | 8 | 27 | - | Exekutatu gabe |
| | 6 | Trenbide | 2.265 | 125 | 28 | - | Exekutatu gabe |
| | 7 | Azoka-Montevideo | 6.515 | 125 | 81 | - | Exekutatu gabe |
| | 8 | Intxaurrondo-Río Mañaria | 6,62 | 53 | 35 | - | Exekutatu gabe |
| | 9 | Urien-Intxaurrondo | 12.405 | 46 | 57 | - | Exekutatuta |
| | 10 | Larrasoloeta | 41.071 | 30 | 123 | 37 | Exekutatu gabe |
| | 11 | Ona-Larrasoloeta (Resto) | 994 | 70 | 20 | - | Exekutatu gabe |
| | 12 | Laubideta (Resto) | 3.260 | 40 | 13 | - | Exekutatuta |
| | 13 | Tabira - Gasteiz Bidea | 3.361 | 46 | 16 | - | Exekutatuta |
| | 14 | Okaranza | 7,125 | 17 | 12 | - | Exekutatuta |
| | 15 | Iparzabalarra | 17.651 | 78 | 138 | 76 | Exekutatu gabe |
| | 16 | Arripausueta | 18.596 | 78 | 145 | 50 | Exekutatu gabe |
| | 17 | Kabilduoste | 42.195 | 8 | 34 | - | Exekutatu gabe |
| | 18 | Mikeldi (Forjador) | 14.546 | 110 | 160 | 48 | Exekutatu gabe |
| | 19 | Aramotz | 9.756 | 107 | 104 | 52 | Exekutatuta |
| | **GUZTIRA** ……… | | | | **1.342** | **360** | |
| ZUZENEKO ERAIKITZEA | 1 | Magdalena | - | - | 28 | - | Exekutatuta |
| | 2 | Fco. Ibarra | - | - | - | - | Exekutatuta |
| | 3 | Txibieta | - | - | 20 | - | Exekutatuta |
| | 4 | Antigua Alhondiga | - | - | 72 | - | Exekutatuta |
| | 5 | Kurutziaga (antiguo cine) | - | - | 14 | - | Exekutatuta |
| | **GUZTIRA** ……… | | | | **134** | **-** | |
| **LURZORU HIRITARRA GUZTIRA** | | | | | **2.949** | **722** | |
| LURZORU HIRITAR-GARRIA | 1 | Faustigoiena | 63.782 | 70 | 446 | 290 | Exekutatzen |
| | 2 | Eguzkitza-goiena | 209.818 | 5 | 105 | - | Birdensifikatu egin da |
| **LURZORU HIRITARGARRIAN GUZTIRA**……… | | | | | **551** | **290** | |
| **ETXEBIZITZA ESKAINTZA OSOA**……… | | | | | **3.500** | **1.012** | |

*Iturria: Berezko lantzea.*

| | | |
|---|---|---|
| **LZEren aurreikuspenak** | o LZEk lurzoruaren kontsumoa geldiaraztea proposatzen du, azken urteotako joera alderantzizkatuz. LZEren estrategiak | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | dagoen etxebizitza-parkearen gaitasuna kontuan hartzearen aldeko apustua egiten du, eraikitako ondarearen optimizazioa defendatuz, etxebizitza hutsak mugitu eta dauden eraikinen birgaitzearen bidez, esku-hartzeko modu lehenetsi gisa, lurzoru berrien okupazioaren aldean, lurraldeak egun oso onarpen-gaitasun eskasa baitu.<br><br>o Ildo honetan, LZEk 1.023 etxebizitza garbi aurreikusten ditu hurrengo 8 urteetarako, egungo AA.SSetan oraindik egikaritzeko dauden unitateak baino gutxiago. | |
| **Gizarte-etxebizitzen eskaera** | o Etxebizitzaren eskaerari dagokionez, Etxebiden erregistratutako etxebizitza babestuaren eskaerak joera egonkorra du, 40 eskaera inguru 1.000 biztanleko. 2011n, zehazki, 38,90 eskaera erregistratu ziren 1.000 biztanleko, eta horixe izan zen, hain zuzen, kopururik txikiena 2006.urtetik.<br><br>**5. Grafikoa. Etxebiden agertzen diren etxebizitzen eskaerak (1.000 biztanlegatiko eskaera zenbakia).**<br><br><br>*Iturria: Udalmap.*<br><br>o Aurreko grafikoaren bilakaerak erakusten duen bezala, azken urteetan burututako etxebizitza babestuen eraikuntza ez da nahikoa izan dauden beharrak asetzeko. | |

| LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK |
|---|
| **DURANGO** |
| o Durangoko Arau Subsidiarioak (2005).<br>o Etxebizitza eta bulego-eraikinak eraikitzerakoan ingurumena hobetzeko Ordenantza, 2008ko ekainaren 30ekoa. |
| **UDALAZ GAINEKO MAILA** |
| o 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzorua eta Hirigintzari buruzkoa.<br>o Durangoko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Plana (2008).<br>o Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzailea 2010-2013<br>o Eraikinak Birgaitzeko eta Hiriak Berroneratzeko EAEko Plan Estrategikoa 2010-2013 |

| AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA |
|---|
| **LÍNEAS ESTRATÉGICAS, PROGRAMAS Y ACCIONES VINCULADAS** |
| **IE 4. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN ETA HIRIGUNEAREN KALITATEA HOBETU**<br>**P 4.3. Etxebizitzaren politika soziala bultzatzeko programa**<br>4.3.1. Etxebizitza tasatua lehenetsi bestelako etxebizitza moten gainetik.<br>4.3.2. Etxabe hutsak etxebizitza gisa erabiltzeko aukera aztertu.<br>4.3.3. Aztertu lehen etxebizitza salneurri iraunkorrean eskaintzeko aukera.<br>4.3.4. Aztertu zergatik etxe hutsak dituztenek ez dituzten alokatu nahi. |

# MUGIKORTASUN JASANGARRIA

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak.**

6. MUGIKORTASUN HOBEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA
10. TOKIKOTIK GLOBALERA

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Mugikortasun-ereduak** | o Durangok eskualdeko hiri nagusi gisa, herritarren joan-etorriez gain (barnekoak –udalerrian bizi diren pertsonen joan-etorriak- eta kanpokoak—udalerritik irteterakoan bertan bizi diren pertsonek egindako joan-etorriak-), udalerrira datozen eta bertan bizi ez diren pertsonek egindako bidaia asko erakartzen ditu. Azken bidaia horiek egiteko arrazoiak lanekoak ez ezik, eskualdeko pertsonak kudeaketak, erosketak, etab. egitera Durangora joaten dira.<br><br>o Mugikortasun-ereduei dagokienez, Durangoko herritarrek batez beste 2,6 joan-etorri egiten dituzte, batez besteko distantzia 15,5 km-koa da eta joan-etorrien batez besteko iraupena 37 minutukoa. Ildo honetan, durangar gero eta gehiago beste udalerri batzuetara joaten direla berresten da, hein handi batean enplegua udalerritik kanpo daukatelako *(Durangoko Mugikortasunari buruzko Diagnostikoa 2010).*<br><br>**6. Grafikoa. Biztanle bakoitzak egunero egiten dituen joan-etorrien batezbesteko kopurua.**<br><br>**7. Grafikoa. Biztanle bakoitzak ibilitako eguneko batez besteko distantzia.**<br><br>**8. Grafikoa. Biztanle bakoitzagatik joan-etorrien batezbesteko iraupena.**<br><br>*Iturria: Durangoko Udala.*<br><br>o Mugikortasunaren modalitateari dagokionez, azken urteotan |  |

<table>
<tr><th>AZPI-EREMUA</th><th>DIAGNOSTIKOA</th><th>BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td></td><td>
bizikletan eta autobusean egindako joan-etorrien portzentajea gehitu egin dela ikus daiteke, ibilgailu pribatuaren erabilera, berriz, gutxitu egin da, oraindik ere Durangoko herritarrek oinez egin ditzaketen joan-etorrietarako autoa erabili arren.

**9. Grafikoa. Garraio modua: oinez.**




**10. Grafikoa. Garraio modua: bizikletan.**




**11. Grafikoa. Garraio modua: autoan.**




**12. Grafikoa. Garraio modua: autobusean.**




*Iturria: Durangoko Udala.*

- Kanpoko bidaiei dagokienez (beste udalerri batzuetan bizi diren pertsonen joan-etorriak), oraindik ere ibilgailu pribatuaren erabilera nagusitzen dela egiaztatzen da (Mugikortasun Jasangarriari buruzko Diagnostikoa 2010).
</td><td></td></tr>
<tr><td>Kudeaketa eta plangintza</td><td>
- 2010.urtean, Durangoko Udalaren Mugikortasun Jasangarriari buruzko Plana eta diagnostikoa egin zen, Durangoko mugikortasun jasangarria hobetzeko jarduerak proposatzeko asmoz. Zentzu horretan, Planak bideak hobetzeko ekintzak proposatzen ditu epe laburrean, eta baita Eustaten proiekzioetan oinarritutako etorkizuneko plangintza-egoerak ere. Funtsean, estrategiak motorrik gabeko mugikortasuna lehenetsi eta sustatzen du garraio publiko onak osatuta, eta behar denerako ibilgailu pribatuaren erabilera mantenduz.

- Bestalde, 2010ean, Durangoko trafikoa eta aparkalekua arautzen duen ordenantza onetsi zen. Ordenantza horrek bide publikoetan modu mugatuan aparkatzeko neurriak (TAO sistema, zamaketa eta hustuketako sistema) arautzen ditu.
</td><td></td></tr>
<tr><td>Oinezkoentzako eta bizikletentzako</td><td>
- Egun, Durangoko Alde Zaharreko azalerarik gehiena oinezkoentzakoa da. Oinezkoentzako kale nagusienak hauek dira: Pinondo, Santanoste, Lariztorre, San Martin, Zeharkalea,
</td><td></td></tr>
</table>

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **sareak** | Barrenkalea, Artekalea, Andra Mari, Goienkalea, Kalebarria, Komentukalea, Kurutziaga, Kanpatorrosteta, Uribarri eta Azoka. Oinezkoentzako eremuan sartu eta aparkatzea araututa dago bertan bizi diren pertsonentzako , eta baita garaje eta denden jabe eta errentari eta garraiolari profesional, eta abarrentzako ere.<br><br>o Mugikortasun Jasangarriari buruzko Planean, erdigunean dauden kaleak ibilgailuen zirkulaziotik libre uzteko, oinezkoentzako egiteko, edo erdi-oinezkoentzako egiteko hiru ekintza proposatzen dira, trenaren lurperatzea burutu eta gerorako: Ermodo kalea oinezkoentzako egitea, edo erdi-oinezkoentzako egitea, Madalen plazan biribilgunea ipinita, Fray Juan de Zumarraga kalea oinezkoentzako egitea eta Uribarri kalearen azken zatia oinezkoentzako egitea.<br><br>o Egun, Durangok 7,40 km-ko bizikletentzako bide-sarea du, eta helburua 10 km-ra luzatzea da 2012.urte amaierarako. Zentzu horretan, sareak hiru adar nagusi ditu, eta lau ibilbide txikikoak:<br><br>- Astola auzoa udalerriko alde zaharrarekin batzen duen adarra, Zeharmendieta eta Kurutziaga kaleetatik igaroz.<br>- Kurutziaga kalea (ia alde zaharra) Landako etorbidearekin lotzen duen adarra, Muruetatorre eta San Ignazio auzoak zeharkatuz.<br>- Alde zaharra batzen duen adarra, San Agustinalde kaletik Bruno Mauricio Zabala kaletik igaroz Askatasun eta Alluitz kaleen arteko biribilguneraino.<br>- Montevideo kalean alde zaharra batzen duen adarra, Trenbide kaleraino.<br><br>**2. Irudia. Landako Etorbidean bidegorri-ibilbidea.**<br> | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Errepide-sarea** | o Durangoko udalerritik igarotzen den Errepideen Foru Sistema Orokorra, errepide hauek osatzen dute:<br>- Durangoko saihesbidea Orozketako irteeratik Gasteiz Bidea biribilgunerainoko ibilbide osoa.<br>- BI-623 Foru-errepidea, Durangotik Gasteizera doana, Tabirako biribilgunea eta Izurtzaren artean.<br>- BI-632 Foru-errepidea, Durangotik Elorriora doana, Montorretaseko biribilgunetik Abadiñoko mugaraino.<br>- Ekialdeko sahiesbidea, Abadiñoko mugatik Montorretako biribilguneraino.<br>Ildo horretan, Durangaldeako LZEk Montorreta eta BI-623 errepidearen arteko Durangoko hegoaldeko ingurubidearen itxitura amaitzeko ezartzen du izaera loteslearekin.<br><br>o Udalerriko errepide-sare orokorrari dagokionez, AA.SSetan konponbide zehatzak ezartzen dira, Barnetik Berritzeko Plan Bereziak eta Egikaritze-unitateak garapen berriek edukiko dituzten lotura eta antolaketako beharren arabera burutzeko ezartzen baita.<br><br>o Bestalde, Durangaldeako LZEn egungo N-634 errepidea, Iurretako zatia, birmoldatu eta egokitzea proposatzen du, zirkulazioa hustu eta beste erabilera eta hiri-zirkulazio batzuetara egokitzeko, egun Iurreta banatuta dagoen bi guneen integrazioa erraztuz, bide-espazio berriak eta horiei lotutako hainbat espazio publikoen diseinuaren bitartez. Mugikortasun-planean garatutako lekuek Landako etorbideko trafikoan eragin kaltegarriak erakusten dituzte (bide-eraztuna itxita edo itxi gabe), Lea- Artibai eta Berriz-Ermuatik datorren trafikoa ibiltzea espero baita Iurretatik Durangora bidean. | |
| **Garraio publikoa** | o Garraio publikoa garrantzitsua da, Durangon bizi diren pertsonak kanpoan mugitzeko, zein Durangora datozenak mugitzeko. Baina oraindik ere ibilgailu pribatuaren erabilera handia da.<br><br>o Garraio publikoaren eskaintzari dagokionez, Durangok dituen lotura-zerbitzuak hauek dira:<br><br>- Honako hauek eskainitako autobus-lineak: Bizkaibus, Transportes PESA, SA. eta Alsa-Continental Auto. Eskaintzen dituzten ibilbide nagusiak hauek dira:<br>▪ PESA, SA: Donostia-Amorebieta eta Oñati/Bergara-Bilbo.<br>▪ Alsa-Continental Auto: Durango-Gasteiz. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | ▪ Bizkaibus:<br>• Elorrio-Durango-Bilbo.<br>• Durango-Bilbo.<br>• Ondarroa-Durango-Bilbo.<br>• Elorrio-Durango.<br>• Ermua-Durango-EHU.<br>• Durango-Lemoa-Galdakaoko Ospitalea..<br>• Eibar-Ermua-Durango-Lemoa-Galdakaoko Ospitalea.<br>• Garai-Durango.<br>• Arrazola-Durango.<br>- Euskotrenek eskainitako tren-zerbitzua: Bilbo-Donostia linea, 30 minituko maiztasuna Bilboko loturan eta ordubetekoa Donostiako loturan (lan-eguneko ordutegia).<br><br>o Amorebieta-Iurreta-Durango-Lebario zatiaren banaketa-proiektua amaitzen denean, Bilborekin lotura duten trenen maiztasuna gehitu egingo da, eta beraz, zerbitzuaren kalitatea ere hobea izango da.<br><br>o Zentzu horretan garraio publikoak Bilborekin dituen loturak onak dira, eta trenbidearen bikoizketari esker, zerbitzu publikoa indartu egingo da. Hala ere, Durangok Gasteizekin eta Gipuzkoako inguruko eskualdeekin dituen loturak eta maiztasuna hobetzeko beharra antzematen da. | |
| **Aparkalekua eta automobil-parkea** | o 2010ean egindako mugikortasun-diagnostikoan Durangok 11.320 aparkaleku dituela adierazten da. Bideko aparkalekuei dagokionez, 4.184 leku edo unitate daude.<br><br>o Hurrengo grafikoan Durangoko autoen automobil-parkearen bilakaerari buruzko datuak agertzen dira. Automobil-parkea azken urteotan asko murriztu da. 2010ean, Durangon 11.056 auto zeuden erregistratuta.<br><br>**13. Grafikoa. Autoen automobil-parkea.**<br><br>*Iturria: Durangoko Udala.* | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | o Gai horretan, aztertu arretik, garaje-leku eta bideko lekuen kopurua kontuan hartuta, aparkalekuen eskaintza eskaera (erregistratutako auto kopurua) baino apur bat handiagoa dela ondoriozta daiteke, udalerrian dauden garaje-lekuengatik batez ere.<br><br>o Udalerriko parkingei dagokionez, Landakoko parkinga gutxi erabiltzen da (Mugikortasunari buruzko diagnostikoa).<br><br>o TAO sistemari dagokionez, goizeko ordutegian egonaldi laburrak sustatzen dituela egiaztatzen da. Hala ere, TAOk arautzen ez dituen eremuetan leku libre gutxi daude egun osoan zehar (Mugikortasun diagnostikoa). Egoera hori dela-eta, TAOk araututa ez dauden eremuetan bizi diren pertsonek aparkatzeko zailtasunak edukitzen dituzte, ez baitute egoiliar-txartelik. Egungo TAO sistemak TAO sistemak arautu gabeko eremuetan aparkaleku bila dabiltzan ibilgailuen joan-etorri gehiago ekarri dituela ikus daiteke. | |
| **Trafiko-istripuak** | o Istripuei dagokienez, azken urteotan Durangon erregistratutako istripu-kopurua murriztu egin dela aipatu behar da.<br><br>**14. Grafikoa. 10.000 biztanlegatiko erregistratutako istripu kopurua.**<br><br>*Iturria: Udalmap.*<br><br>o Oinezkoen harrapatzeei dagokionez, azken urteotan erregistratutako oinezkoen harrapatzea nahiko egonkor mantentzen da, balore hauen artean: 2-3 harrapatze 10.000 biztanleko, probintziakoa baino balio txikiagoa (2010ean 4,31 harrapatze 10.000 biztanleko). | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
| --- | --- | --- |
| | **15. Grafikoa. 10.000 biztanlegatiko erregistratutako oinezkoen harrapatze kopurua.**<br><br>*Iturria: Udalmap.*<br><br>o Beren bizi-ziklo guztian bide publikoa erabiltzerakoan pertsonen bizikidetza eta segurtasuna bermatzeko helburuarekin, Udalak Mugikortasun seguruan hezteko gida egin du. Bestalde, 90eko hamarkadatik, Durangoko Udalak bide-hezkuntzarako programa sustatzen du. Programa horren helburu nagusia parte-hartzaileak bide-jokabide seguruak ziurtatzeko gaitasunez hornitzea da, horrela istripuak ekiditeko, oinezko, bidaiari zein gidari gisa. Azken urteotan, programaren parte-hartzaile nagusiak hauek izan dira: ikastetxeetako ikasleak, haurdun dauden emakumeak, Geu BE, eta azkeneko urtean hirugarren adineko pertsonek ere programan parte hartu dute. Programaren bidez 2.000 pertsona baino gehiagorengana heldu da. | |

| LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK |
|---|
| **DURANGO** |
| o Durangoko Mugikortasun Jasangarriari buruzko Plana (2010).<br>o Durangoko Arau Subsidiarioak (2005).<br>o Durangoko zirkulazio eta aparkalekuei buruzko ordenantza, 2010eko urtarrilak 4. |
| **UDALAZ GAINEKO MAILA** |
| o Durangoko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Plana (2008).<br>o EAEko Trenbide Sarearen Lurraldeko Plan Sektoriala.<br>o Bizkaiko Errepideen Plan Sektorialak.<br>o EAEko Garraio Jasangarriaren Plan Gidaria.<br>o Euskadiko Errepideen Bigarren Plan Orokorraren Berrazterketa 2006-2016 aldirako. |

| AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA |
|---|
| **LÍNEAS ESTRATÉGICAS, PROGRAMAS Y ACCIONES VINCULADAS** |
| **IE 5. UDALERRIKO INGURUMEN KALITATEA HOBETU**<br>**P 5.3. Garraio publikoa hobetzeko eta mugikortasun iraunkorra indartzeko programa**<br>5.3.1. Mugikortasun iraunkorrerako udalerriko plana osatu.<br>5.3.2. Garraiobide gisa txirrindua erabiltzea bultzatzeko neurriak hartu (segurtasuna ziurtatzeko neurriak, informazioa eta sentsibilizazioa…).<br>5.3.3. Udalerri bizilagunekin koordinatuta oinezkoen zonaldeak hedatu.<br>5.3.4. Udalaz gaindiko garraio publikoaren kalitatea hobetzeko beste herri erakundeekin koordinazioa (Bizkaibus, Euskotren,…)<br>5.3.5. Hiriguneko autobus bat jartzeko aukeraren bideragarritasuna aztertu.<br>5.3.6. Udalerriko zonalde batzuetan (Landako, Juan Iziar…) trafikoa antolatzeko neurriak hartzea, bizilagunekin koordinatuta.<br>5.3.7. Norberaren ibilgailuaren erabilera mugatzeko neurriak hartzea.<br>5.3.8. Udaltzaingoak eta udaleko beste teknikariek Durangon zehar mugitzeko txirrindua erabiltzeko aukera aztertzea.<br>5.3.9. Bidegorrien sarea garatzea udal eraikinak, kiroletakoak eta ikastetxeak lotzeko.<br>5.3.10. Mugikortasun iraunkorraren eremuan beste hiri batzuen esperientziak aztertu (Bordele, Iparraldea,…). |

# BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak.** 3. ONDARE NATURAL KOMUNAK

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Balio naturalak eta paisaia-balioak** | o Durangoko udalerria Ibaizabal ibaiaren ezkerraldeko espazio zabalean dago. Ibaia Udalatx, Anboto eta Urkiola iparraldeko mendi-adarretan eta Oiz mendiaren hegoaldeko isurialdean jaiotzen da. Arroaren goialdean, ibilguek presentzia demografiko eta industrial handia jasan behar izaten dute, Durangoko erdigunetik igarotzen direnean. Halaber, udalerritik igarotzerakoan, udalerria iparretik hegora zeharkatzen duen Mañaria ibaiaren emaria jasotzen du, eta baita Larrinagatxu errekarena ere. Bestalde, interes ekologiko eta paisaia-interes gehien duen habitaten artean, udal-eremuaren zati bat Urkiolako Parke Naturalari dagokiola azpimarratu behar da.<br><br>**3. Irudia. Ibaizabalgo korridorea, Durango eta Anboto atzealdean dituelarik.**<br><br><br>o Sistema naturalen degradazio-prozesu historiko luzearen ondorioz, hostozabal autoktonoen atzerakada nabarmena egon da Durangoko eremuan. Horrek paisaiaren eraldaketa eragin du eta jatorrizko zuhaitz gutxi daude. Beraz, Durangoko udalerriko hego-ekialdeko eremu batzuetan bakarrik dago euskal landazabal atlantikoetako nekazaritza eta artzaintzako mosaiko tradizionala.<br><br>o Egun, paisaiaren funtsezko osagaiak basoko konifero-sailak eta harizti eta ameztien lur historikoetan garatutako larre atlantikoak dira.<br><br>o Faunari dagokionez, bereziki kontuan hartzekoa da Urkiolako Parke Naturalean dagoen fauna; fauna ornoduna 137 espeziek | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | osatuta dago, arrain, anfibio, narrasti, hegazti eta ugaztunak barne. Fauna horren %83 baino gehiago, jatorri eurosiberiarreko espezieek osatzen dute, eta ondoren jatorri mediterranearra duten espezieek (%13) eta jatorri etiopiar-ekialdetarra dutenek (%1).<br><br>o Azkenik, Durangoko hiriguneari dagokionez, hiri eta industria aldetik bizi izan duen hazkundea kontuan hartzekoa da, lurzoruaren erabilerak eta ibaien lautada alubialen eremu handien okupazioak asko eragin baitu. Zentzu horretan, hazkundeak, eta batez ere, jarduera industrialaren ezarpenak hiriko paisaia industrialaren izaera ematen dio bizitegi-amarrua amarru industrialari darraion Ibaizabaleko igarobideari. Beraz, industrializazioak eta urbanizazioak sakon aldatu dute Durangoko tamaina, egitura eta paisaia. | |
| **Natura-gune babestuak** | o Urkiolako Parke Naturala Araba eta Bizkaiko Lurralde Historikoen artean dago. Aramotz mendilerroak, Durangaldeako mendiek eta Arangio mendilerroak osatzen dute, ur kantauriar eta Mediterraneoko urak banatzen dituzten mendiak.<br><br>o 5.958,3 ha-ko azalera eta 83,2 km-ko perimetroa ditu. Bi punturen arteko gehieneko tartea 20,5 km-koa da, ipar-ekialdeko muga (Aramotz) eta hego-mendebaldeko mugaren (Tellamendi) arteko tartea, hain zuzen ere. Gehieneko garaiera Anboto mendiarena da (1.330 m) eta garaiera txikiena Zallobenta mendiarena (240 m), baina lurralde gehiena 600 metrotik gorako altueran dago.<br><br>o Urkiolako Parke Naturalaren eremua 8 udalerritan banatzen da, eta udalerri horien artean Durango dago. Parkearen azaleraren %2,04, 138 hektarea, Durangoko udalerriari dagokio. Jarraian udalerri bakoitzari dagokion azalera agertzen da: | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|

**5. Taula. Udalerri bakoitzari dagokion Urkiolako Parke Naturalaren azalera.**

| Udalerri bakoitzeko lurzorua | | Azalera (ha) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Lurraldea | Udalerria | Parke Naturala | Inguruko eremua | Guztira | % |
| Araba | Aramaio | 857 | 236 | 1.093 | 16,17 |
| Bizkaia | Abadiño | 1.454 | 53 | 1.507 | 22,3 |
| | Amorebieta-Etxano | 99 | 51 | 150 | 2,22 |
| | Atxondo | 613 | 80 | 693 | 10,25 |
| | Dima | 1.498 | 208 | 1.706 | 25,24 |
| | **Durango** | **108** | **30** | **138** | **2,04** |
| | Igorre | 0 | 15 | 15 | 0,22 |
| | Izurtza | 50 | 10 | 60 | 0,89 |
| | Lemoa | 0 | 1 | 1 | 0,01 |
| | Mañaria | 1.279 | 117 | 1.396 | 20,66 |
| Guztira | | 5.958 | 800 | 6.758 | 100 |

*Iturria: Urkiola Parke Naturalaren erabilera eta kudeaketarako plan artezkaria.*

**Sistema natural eta paisaiaren kontserbazioa**

- Eremuko urbanizazio eta industrializazioak asko eraldatu dute, eta sistema naturalean eta paisaian eragin argia izan dute. Adibidez, aipatzekoa da Ibaizabaleko unitate hidrologikoan industriak eta industriaren isuriek urteetan zehar eragin duten kaltea.

- Ibaiertzei dagokienez, asko bertako landaredi naturalaz gabetuak daude sektore ugaritan, hiri-instalazio, instalazio industrial eta azpiegiturek hartuta. Hortaz, berreskuratze-lan gogorra behar dute, ibaia bera eta ibaiari lotutako landare eta animalien komunitateak hobetu eta uholdeen arriskua murrizteko. Zentzu horretan, Durangoko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Planak bere Antolamendu Arauetan ibaiko paisaia-sistema proposatzen du, Ibaizabal eta Mañaria ibaien ingurura herritarrak hurbiltzea ahalbidetzen duen ingurumen-balio eta paisaia-balioa duen eremu gisa.

- Halaber, Urkiolako Parke Naturalaren balio ekologikoa eta paisaia-balioa dudagabea bada ere, paisaiak gizatiartze-maila handia duela aipatu behar da, denbora askoan burutu den lurraldearen erabilera eta okupazioagatik.

**Natura-ingurunearen kudeaketa**

- Egun, Durangoko udalerriak natura-ingurua kudeatzeko dituen tresnak udalerriko AA.SSez gain, Udalaz gaineko Planak dira batez ere. Hauexek dira Udalaz gaineko Planak:
  - Urkiolako Parke Naturala Erabili eta Kudeatzeko Plan Gidaria, maiatzaren 30eko 111/2006 Dekretuaren bidez onetsitakoa.
  - Durangoko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Plana
  - EAEko – Isurialde Kantauriarreko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Plan Sektoriala.

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | o Durangoko Udalak ez du bere kudeaketa-tresnarik biodibertsitatea eta paisaiaren eremuan. | |

| LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK |
|---|
| **DURANGO** |
| o Durangoko Arau Subsidiarioak (2005). |
| **UDALAZ GAINEKO MAILA** |
| o EAEko Lurralde Antolamendurako Arauak (1997).<br>o 2012 (martxoa). LAGen aldaketa behin-behinean onestea, horien berrazterketaren ondorioz.<br>o Durangoko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Plana (2008).<br>o EAEko – Isurialde Kantauriarreko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Plan Sektoriala.<br>o Urkiolako Parke Naturala Erabili eta Kudeatzeko Plan Gidaria -maiatzaren 30eko 111/2006 Dekretua. |

| AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA |
|---|
| **LÍNEAS ESTRATÉGICAS, PROGRAMAS Y ACCIONES VINCULADAS** |
| **LE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA**<br>**P 1.1. Nekazaritza ekologikoa bultzatzeko programa**<br>1.1.3. Basoen ustiapen iraunkorra bultzatu.<br><br>**LE 4. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN ETA HIRIGUNEAREN KALITATEA HOBETU**<br>**P 4.1. Hirigunearen kalitatearen hobekuntzarako programa**<br>4.1.1. Eremu berdeen beharraren gaineko azterketa egin. |

# 2.5 BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

# URA

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:** 3. ONDARE NATURAL KOMUNAK

<table>
<tr><th>AZPI-EREMUA</th><th>DIAGNOSTIKOA</th><th>BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td>Hornidura eta banatzeko sarea</td><td>
o Ur Partzuergoa arduratzen da lehen-mailako sarea kudeatzeaz, bai edateko uraren hornidurari dagokionez, bai Durangoko udalerriko hondakin-uren saneamenduari dagokionez.<br><br>
o Egun, Garaizar da eskualde osoko edateko uraren horniduraren bihotza, eta horri esker Durangoko udalerria urez hornitzen da, eskualdeko gainerako udalerriez gain: Abadiño, Atxondo, Berriz, Elorrio, Ermua, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria eta Zaldibar.
</td><td></td></tr>
<tr><td>Eskaera eta kontsumoa</td><td>
o 2011. urtean, altako uraren banaketa osoa 2.580.369m$^3$koa izan zen. Beraz, asko murriztu da aurreko urteekin alderatuz gero. Zehazki, 2009. urtetik udalerriko uraren eskaera osoa (altan dagoen hornidura osoa) %16 murriztu da.<br><br>
16. Grafikoa. Udalerriaren ur-eskaria (altan dagoen hornidura).<br>

<br>
Iturria: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.<br><br>
o Sektorekako kontsumoen banaketa kontuan hartuz, 2011n (alta egindako sarea), etxe partikularretako kontsumoa gailentzen da argi eta garbi, kontsumo osoaren %46 baita. Ur guztiaren %12 inguru industriak eta dendek kontsumitu dute lehengai gisa, %6 eta %3 inguru, berriz, erakunde-hornidurak eta udalerriko kirol-instalazioek kontsumitu dute. Halaber, azpimarratu behar da, banatu den ur guztiaren %33,41, hots, 861.978m$^3$, isuritzat hartzen dela.
</td><td></td></tr>
</table>

- Portzentajea kontagailurik gabeko kontsumo-guneetako ur-banaketagatik edo kontrolatu gabeko bolumenengatik, zein sareko isuriengatik da batez ere. Hobekuntza eta isurien murrizketa oso esanguratsua izan da, galerak 2001ean %45,6 baitziren, eta 2007an, Tokiko Agenda 21 hasi zenean, %43,5.

**17. Grafikoa. 2011ean kontsumitutako ur-sarearen erabateko bolumena (%).**




*Iturria: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.*

- Hobekuntza hori ahalbidetu duten neurrien artean sarean ur-isuriak antzeman eta kentzeko proiektua dago besteak beste. Proiektua 2009 hasi zen egiten eta bi urtean zehar burutu zen, 700.000 euroko aurrekontuarekin.

**18. Grafikoa. Ehuneko bezala, uraren erabateko eskariaren banaketa sareko galerak.**




*Iturria: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.*

- Biztanle eta eguneko uraren etxeko kontsumoari dagokionez, murrizketa txiki bat ikus daiteke aurreko urteekin alderatuta; 2011n 115,5 litrokoa izan zen, eta 2007an berriz, 118,7 litrokoa.

**19. Grafikoa. Biztanle eta eguneko uraren etxeko kontsumoa.**




*Iturria: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.*

- Denboran zehar izandako ur-kontsumoaren bilakaera aztertzen baldin bada (galeren bolumena kontuan hartu gabe), etxeko kontsumoa azkeneko 5 urteetan ia berdin mantendu dela ikusten da, kontsumo osoaren %69 inguruan. Industria eta merkataritza eta zerbitzuen sektoreari dagokionez, berriz, datuek 2011n pixka bat murriztu dela erakusten dute aurreko urteekin alderatuta, 2006an kontsumo osoa %20,55ekoa zen, eta 2011n, berriz %17,60koa izan da. Azkenik, hornidura instituzionaletan ur-kontsumoa pixka bat hazi da (%7,87tik %9,02ra azken 5 urteotan),eta udal-kirol instalazioetako kontsumoa nabarmen igo da (%2,53, 2006an eta %4,12, 2011n).

**20. Grafikoa. Durangoko ur kontsumoa.**




*Iturria: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.*

- Udalaren eraikinetako ur-kontsumoaren igoeraren aurrean,

nabarmendu beharra dago ur-kontagailuak eta emari murriztaileak jarri direla instalazio guztietan.

- Bestalde, etxeko kontsumoari dagokionez, azken urtean zehar (2011ko lehen hiru hiruhilekoan eta 2012ko lehen hiruhilekoan), 11.201 bezero egon dira guztira, 1,155€/m$^3$ko batez besteko tarifarekin. Zerbitzu eta industriaren sektoreari dagokionez, batez besteko tarifa 2,12€/m$^3$koa izan da, eta guztira 1.442 bezero izan dira. Eraikin publikoetan, kontsumoaren batez besteko tarifa 0,75/m$^3$koa izan da.

**6. Taula. 2011ko azken 3 hiruhilekoen eta 2012ko lehen hiruhilekoaren fakturazio-datuak.**

| | Etxeetako kontsumoa | Industria eta Zerbitzuen kontsumoa | Eraikin publikoen kontsumoa |
|---|---|---|---|
| **Bezero kopurua** | 11.201 | 1.442 | 13 |
| **Fakturazioa** | 1.320.804,10 € | 529.729,49 € | 53.151,46 € |
| **Batezbesteko tarifa** | 1,16€/m3 | 2,12€/m3 | 0,75€/m3 |

*Iturria: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa .*

**Saneamendua eta arazketa**

- 2011. urtearen amaieran, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eta Durangoko Udalak Garaizarreko edateko uren araztegian lohiak tratatzeko bide berria zabaldu zuten. Azpiegitura berri honi esker, Ibaizabal ibaiari ingurumen-babes gehiago emango zaio, pertsonek edateko uren tratamendu-prozesutik orain arte zetozen solido esekiekin kargatutako emarien isuria ekidingo baita.

- Saneamendu-sareari lotutako udal-etxebizitzak, berriz, 2011n %99 izan ziren.

| LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK |
|---|
| **DURANGO** |
| o Etxebizitza eta bulego-eraikinak eraikitzerakoan ingurumena hobetzeko Ordenantza, 2008ko ekainaren 30ekoa. |
| **UDALAZ GAINEKO MAILA** |
| o 2/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urei buruzkoa.<br>o Uraren Esparru Zuzentaraua (2000/60/EE). |

| AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA |
|---|
| **LÍNEAS ESTRATÉGICAS, PROGRAMAS Y ACCIONES VINCULADAS** |
| **LE 5. UDALERRIKO INGURUMEN KALITATEA HOBETU**<br>**P 5.2. Uraren hornikuntza sarearen kudeaketan hobetzeko eta uraren kontsumoa txikiagotzeko programa**<br>5.2.1. Uraren kalitatearen eta kontsumoaren gaineko datuen monitorizatzea eta zabalpena.<br>5.2.2. Udalerriko sarean ur ihesak murrizteko plana osatu.<br>5.2.3. Uraren banaketa sareko ihes maila erreala zehaztu.<br>5.2.4. Alderatu beste udalerri eta eskualdeekin erabiltzaileei kobratutako sarearen mantenuaren kostua eta mantenduaren kalitatea.<br>5.2.5. Uraren kontsumoaren arrazionalizazio eta gutxitzerako neurriak hartu, bai instalakuntza publikoetan eta baita eremu pribatuan ere.<br>5.2.6. Uraren Partzuergoari Oiz Mendian dauden ur erretserbak aztertzea eskatu.<br>5.2.7. Erregario eta bidearen garbiketa lanetarako berrerabilitako ur ez edangarria erabili.<br>5.2.8. Uraren inguruko Foro izaerako bilera bat egin, Uraren Partzuergoko ordezkari baten azalpenekin. |

# HONDAKINAK

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:** 4. KONTSUMO ETA BIZIERA ARDURATSUA<br>10. TOKIKOTIK GLOBALERA

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Hiri-hondakinak kudeatu eta tratatzeko eredua** | o Hiri-hondakinak edo udal-hondakinak etxeetan, dendetan, bulego eta zerbitzuetan sortutakoak dira, eta baita arriskutsutzat hartzen ez direnak eta euren izaera edo osaeragatik aipatutako leku edo jardueretan sortutakoekin berdindu daitezkeenak ere. Halaber, honako hauek hiri-hondakin berezitzat hartuko dira: bide publiko, berdegune eta aisialdirako eremuen garbiketako hondakinak; hildako etxeko animaliak, eta baita bertan behera utzitako altzari, tresna eta ibilgailuak; eraikuntzako obra txikietako eta etxeko konponketetako hondakinak eta osasun-zaintzakoak zuzenean ez diren sukalde eta jatetxeetako hondakinak.<br><br>o Ildo honetan, Durangon biltzen diren etxeko hondakinak bi motatan sailkatzen dira:<br>- Gaikako bilketako hondakinak (birziklapena): papera/kartoia (edukiontzi urdina), ontziak (edukiontzi horia), beira (edukiontzi berdea) etxeko olioa eta erabilitako arropa. Hondakin horiek bildu eta kudeatzeko kontratatutako enpresak hauek dira:<br>▪ Beira: Ecovidrio.<br>▪ Papera-Kartoia: Cespa.<br>▪ Ontziak: Garbiker.<br>▪ Olioa: Rafrinor.<br>▪ Arropa: Berohi.<br>Halaber, altzariak biltzeko zerbitzua ere badago.<br>- Birziklatzen ez diren hiri-hondakinak eta tresna handiak.<br>o Bestalde, Durangon Garbigune bat dago (etxeko hondakinak eta etxekoekin batera daitezkeen hondakinak gaika biltzeko zentroa) herritarren eskura, birziklatu, berrerabili daitezkeen edo balioa eman dakiekeen materialak bertan utz ditzaten: hondakin geldoak (obra-hondakinak, kristalak…), txatarra, pneumatikoak, lorezaintza, olioak, linea zuria, pinturak, disolbatzaileak, etab. | |
| **Hiri-hondakinen sorrera** | o Etxeko hondakinen sorrerak beheranzko joera du azken urteotan. 2006an 1,02 kg sortu zuen biztanle bakoitzak eguneko eta 2011n, berriz, 0,950 kg. | |

| | | |
|---|---|---|
| | o Egun, Durangon, etxeko hondakinen sorrera 2012rako EAEk duen helburutik oso behera dago, hots, 1,44 hg/biztanle/eguneko. Beheko taulan ikus daiteke egon den bilakaera.<br><br>**21. Grafikoa. Biztanle eta eguneko hiri-hondakinen sorrera.**<br><br><br>*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.* | |
| **Gaikako bilketa** | o Etxeko hondakinak berreskuratzeko joera goranzkoa da, 2011n sortutako hondakin guztien %24,4 gaika bildu ziren, eta azken sei urteotan ia %7 hazi da.<br><br>o Hondakinen gaikako bilketa gehitu behar da, 2016rako Bizkaiko Hiri-hondakinak Kudeatzeko II Plan Integralak adierazten duen %31ko helburua lortu ahal izateko.<br><br>**22. Grafikoa. Hondar-kudeaketa: birziklatzea eta hautatze-bilketa.**<br><br><br>*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.* | |
| **Hiri-hondakinen tratamendua eta kudeaketa** | o Birziklagarriak ez diren etxeko hondakinak pixkanaka murrizten doaz azken urteotan. 2011n %75,6 izan zen, eta 2005ean, berriz %84,2. | |

**23. Grafikoa. Hondar-kudeaketa: zabortegia.**




*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.*

- Hurrengo grafikoan, etxeko hondakinen sorrerak azken urteotan beheranzko joera duela ikus daiteke, etxeko hondakinen berreskurapenaren bilakaeran, hobetu egin behar bada ere, goranzko joera dago.

**24. Grafikoa. Hiri-hondakin sendo eta birziklatutako zatikien bilakaera.**




*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.*

- Biltzeko edukiontzi gehiago jarri dira eta baita tipologia ezberdinekoak ere, olioa batzeko edukiontzia, adibidez. Olioaren bilketan, ontzi estandarrak jartzeko eskatu da, sistema honen bidez bildu beharrean. Lurrazpiko edukiontziei dagokienez, mententze-arazo batzuk izan dituztela ikus daiteke.

**25. Grafikoa. Hiri-hondakinen edukiontziak.**




*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.*

- Epe laburrean aztertu beharreko alderdia hondakin organikoen gaikako bilketaren balizko ezarpena da.

- Ekoscan arauaren bidez, egiaztatuta dagoen obrako lantaldeak sortutako eraikuntza eta eraispeneko hondakinen kudeaketa hobetu egin dela nabarmendu behar da, eta baita bulegoetan egiten den atez-ateko bilketa-sistema ere.

- Laneko oinarrizko alderdietako bat herritarren sentsibilizazioa eta kontzientziazioa dela uste da. Eremu horretan, biztanleriaren sektore ezberdinei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak nabarmendu behar dira, GAP programa, besteak beste. Programa horretan 300 etxek parte hartu zuten.

- Oso positibotzat hartu beharreko beste alderdi batzuk erosketa eta kontratazio publiko berdea dira, bai ingurumen-arazoa pleguetan barne hartuz, bai ingurumen-inpaktu txikia duten bulegoko tresnak erosteko dekretuen onespenaren bidez.

**Hondakin Industrialak eta Arriskutsuak**

- Durangoko hondakin arriskutsuen ekoizpena 6.599,4 Tn-ra igo zen 2008.urtean. Kopuru nahiko handia da, eta udalerrian sektore batzuek (mekanika, automozioa, siderurgia) duten ezarpen indartsua eta sortzen duten hondakin-kopuru handia erakusten du.

- 2003 eta 2008 bitartean, hondakin arriskutsuen ekoizpenaren bilakaera kontuan hartuz, sorketa pixka bat murriztu dela ikus daiteke, 2003an 7.082,3 Tn sortu baitziren, eta 2008an, aldiz, 6.599,4 Tn.

**26. Grafikoa. Hondakin arriskutsuen ekoizpena.**




*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.*

| LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK |
|---|
| **DURANGO** |
| o Zaborra eta/edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen Udal-ordenantza. |
| **UDALAZ GAINEKO MAILA** |
| o 3/1998 Legea, otsailaren 27koaEuskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra. III. titulua. Ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua. IV. kapitulua Hondakinak.<br>o Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudetzeko Plan Integrala (2005-2016).<br>o EAEko Hiri Hondakinak Planifikatu eta Kudetzeko Gidalerroak (2010).<br>o Hondakin Arriskutsuak Prebenitu eta Kudeatzeko Plana 2008-2011.<br>o Arriskutsuak ez diren Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Plana 2008-2011. |

| AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA |
| --- |
| LÍNEAS ESTRATÉGICAS, PROGRAMAS Y ACCIONES VINCULADAS |
| **LE 5. UDALERRIKO INGURUMEN KALITATEA HOBETU**<br>**P 5.5. Hiri hondakinen kudeaketan iraunkortasun irizpideak barneratzeko programa**<br>5.5.1. Birziklatzearen eta hondakinen sorrera indizeen murrizketaren garrantziaren inguruko kontzientziazio neurriak hartu.<br>5.5.2. Birziklatze eta hondakin organikoen edukiontzien beharren eta moldaketen inguruko azterketa bat osatzea.<br>5.5.3. Hondakinen sorrera gutxitzeko beharraren gaineko kontzientziazio neurriak hartzea.<br>5.5.4. Plastiko poltsek eragindako hondakinak gutxitzeko poltsa berrerabilgarriak bultzatzea komertzioetan eta merkatal guneetan.<br>5.5.5. Froga gisa hondakinak biltzeko edukiontzi berriak ezartzearen bideragarritasuna aztertzea (zabor organikoa,…).<br>5.5.6. Udalerriko zonalde ezberdinetan hondakinak jasotzeko edukiontzien egiazko beharrak aztertzea, baita hauen kokapena ere.<br>5.5.7. Hondakinen birziklapena eramateko moduaz biztanleriak informatu eta formatu.<br>5.5.8. Durangaldean eta Durangon konpost aurreratua bultzatu.<br>5.5.9. Eskoletan ingurumen hezkuntza neurriekin jarraitzea, bereziki hondakinen alorrean.<br>5.5.10. Hondakin arriskutsuen sortzaile txikien kontrola areagotu (argazki dendak, …)<br>5.5.11. Festa eta ekitaldi publikoetan hondakinen kudeaketa iraunkorra bultzatu.<br><br>**LE 4. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN ETA HIRIGUNEAREN KALITATEA HOBETU**<br>**P 4.2. Eraikuntzan ingurumen irizpideak txertatzeko programa**<br>4.2.1. Etorkizuneko eraikuntzei "Euskadiko Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Eraikuntzara Iraunkorrerako Gidaren" aholkuak aplikatu. |

# ENERGIA

| **Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:** | 3. ONDARE NATURAL KOMUNAK<br>4. KONTSUMO ETA BIZIERA ARDURATSUA<br>10. TOKIKOTIK GLOBALERA |
|---|---|

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Egitura estrategikoa** | o Durangoko energiaren azkeneko kontsumo-egiturak, iturrien arabera, honako hauek barne hartzen ditu: energia elektrikoa (Iberdrolak kudeatuta), gas naturala (Naturgas Energia SAk kudeatuta), garraioaren sektoreko erregai likidoak eta instalazio indibidualetan erabiltzen diren C-gasolioa eta petrolio-gas likidotuak. Erabiltzen diren energia-iturri garrantzitsuenak petrolioa eta gas naturala dira. Egitura hau EAEko beste udalerrietakoaren antzekoa da, erregai fosilen erabilera handia eskatzen du, eta berotegi efektudun gas ugari igortzeaz gain, energiaz hornitzeko kanpoko menpekotasun gogorra ere eragiten du.<br><br>o 2010 eta 2009. urteetan, kontsumoa aurreko urteetakoa baino nahiko baxuagoa izan dela ikus daiteke, eta horrek sistema energetiko eraginkorragoen sarrera mailakatuan aurreratu egin dela adierazten du. Dena den, energia-kontsumoa oraindik ere handia da.<br><br>**27. Grafikoa. Udalerriaren elektrizitate eta gas naturalaren erabateko kontsumoa.**<br><br><br>*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.*<br><br>o Elektrizitate eta gas naturalaren sektorekako banaketaren azterketak etxeetako kontsumoa dela handiena adierazten du, ondoren zerbitzuen sektorekoa, eta azkenik sektore industrialekoa. Azken horrek kontsumo osoaren herena baino apur bat gehiago kontsumitzen du. |  |

<table>
<tr><th>AZPI-EREMUA</th><th>DIAGNOSTIKOA</th><th>BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td></td><td>

**28. Grafikoa. Elektrizitate eta gas naturalaren kontsumoa sektorearen arabera.**




*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.*

- o Etxeko kontsumoa (elektrizitatea eta gas naturala) Udal Sarea 21eko udalerrien batez bestekoa (0,21 tep/bizt./2007, EAEko Jasangarritasunaren Txostena 2009) baino pixka bat handiagoa da (0,255 tep/bizt./2010).

**29. Grafikoa. Biztanle eta eguneko elektrizitate eta gas naturalaren etxeko kontsumoa.**




*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.*

</td><td></td></tr>
<tr><td>

**Argi publiko eta eraikin publikoen kontsumoa**

</td><td>

- o Eremu publikoan eraginkortasun energetikoa hobetzeko ahalegin handienak udalerriko argi publikoak eta eraikin publikoetan eraginkortasuna hobetzeko jardueretan egin dira. Zehazki, 2009an, argi publikoen eraginkortasuna hobetzeko plana egin zen, eta horri esker energia-kontsumoa %40 murriztu zen. Aipatu beharra dago, baita ere, planean jarritako argiak ahalik eta argi-kutsadura gutxien sortzen dutenak direla. Eraikin publikoei dagokienez, berokuntza eta elektrizitatearen kontsumoa kontrolatzeko lana egin da. Nabarmendu beharreko beste jarduera batzuk hauexek dira: semaforoetako bonbillak eta Gabonetako argiak LED teknologiarengatik ordezkatzea eta

</td><td></td></tr>
</table>

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | argi publikoetan argiaren egonkortzaile eta erreduktoreak jartzea. Hiru kasu horietan, eraginkortasun handiagoko sistemak sartzeak dakarren ingurumen-aurrezpena, aurrezpen energetiko eta diru-aurrezpena kalkulatu da.<br><br>o Eremu pribatuan galdategien inbentarioa egin da, herritar batzuen laguntzarekin. Garatutako jarduerei esker, udalerriko kontsumo energetiko osoa murriztu egin da, 2000.urteko datuekin alderatuz gero. Era berean, gasaren kontsumoa ere egonkortu egin da. Dena den, oraindik ere, 50eko hamarkadan eraikitako eraikinen birgaiketan lan handia dagoela egiteko uste da, isolamendu termikoan gabeziak eta gehiegizko kontsumo energetikoak baitituzte, Aramotz, Juan Itziarko eta San Fausto auzoetan batez ere. | |
| **Sentsibilizazioa** | o Oro har, kontsumoak murrizten eta eraginkortasun energetikoa gehitzen saiatzeko herritar guztien kontzientziazioa eta parte-hartzea beharrezkoa dela adierazten da. Herritarrek oraindik lana dagoela egiteko uste dute, eta eraginkortasun energetikoari buruzko plan berriak abiaraztea ontzat jotzen dute. | |
| **Eraikuntza** | o 2012ko abenduaren 20an egindako Udaleko Osoko Bilkuran, Bulego eta Etxebizitzen Eraikuntzan Ingurumena Hobetzeko Ordenantza onetsi zen. Ordenantzan eraginkortasun energetikoa eta aurreztea hobetzeko neurriak proposatzen ziren, eta baita energia garbien erabilera gehitzeko neurriak ere. | |
| **Energia berriztagarrien ekoizpena** | o Lau urtetan, -2006tik 2010era- energia berriztagarrien ekoizpena 51.848,0 kWh/urteko izatetik 112.924 kWh/urteko izatera igaro da.<br><br>**30. Grafikoa. Energía berriztagarrien ekoizpena.**<br><br> | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | *Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.*<br>o Udal-eraikinek eguzkitiko energia-kolektoreak jartzeko dauzkaten aukerak zeintzuk diren jakiteko azterketa bat egin da. Lortutako ondorioetatik, Musika Eskolan, Landakoko igerilekuan eta Landako Eskolan panel fotovoltaikoak jarri dira. Halaber, Landakoko kiroldegian ere jarri dira.<br>**4. Irudia. Zumalakarregi kalean eguzki-plakadun TAOko parkimetroa.**<br><br>o Dena den, eraikin publikoetan batez ere, jarduera batzuk burutu diren arren, oro har, gabezia garrantzitsuak dituen konpondu gabeko arazoa da. Adibidez, informazio gehiago eskaintzeko aukera (hitzaldien bidez) aztertu da, eta baita enpresetan, zein etxebizitza partikularretan energia berriztagarrien erabilera sustatzen saiatzeko diru-laguntzak eskaintzea ere. Halaber, Udalari, energia berriztagarriekin lotutako eta EEEk sustatutako ekimenak abian jartzeko eskatzen zaio, adibidez, biomasa-fabrika. Azkenik, Udalak udal-ibilgailuetan gasolinaren ordezko energiak erabiltzeko aukera kontuan hartzearen ideia biltzen da, adibidez, auto elektrikoa erabiliz. | |

| LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK |
|---|
| **DURANGO** |
| o Etxebizitza eta Bulego-eraikinak Eraikitzerakoan Ingurumena Hobetzeko Ordenantza (2012.12.20). |
| **UDALAZ GAINEKO MAILA** |
| o 47/2007 Errege Dekretua, urtarrilaren 19koa, Eraikuntza berriko eraikinetako energia erabileraren eraginkortasuna ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duena.<br>o Euskadi 20120 Estrategia energetikoa. Energia-garapen jasangarrirantz (EEE, 2005).<br>o Euskadi 2020 Estrategia energetikoa (onetsi gabe).<br>o EAEko Energia Eolikoaren II. Lurralde Plana. Egun idazketa-prozesuan dago. |

| AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA |
|---|
| **LÍNEAS ESTRATÉGICAS, PROGRAMAS Y ACCIONES VINCULADAS** |
| **LE 5. UDALERRIKO INGURUMEN KALITATEA HOBETU**<br>**P 5.6. Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak hobetzeko programa.**<br>5.6.1. Etxebizitzen ziurtagiri energetikoak egitea bultzatzea.<br>5.6.2. Etxebizitzen, argiztapen publikoaren, komertzioaren eta industriaren eraginkortasun energetikoaren planak osatzea.<br>5.6.3. Instalakuntza publikoetan eta sektore pribatuan energia berriztagarriak bultzatzea.<br>5.6.4. Auditoria energetikoak egitea instalakuntza publikoetan eta eremu pribatuko beste sektoreetan auditoriak egitea bultzatzea.<br>5.6.5. Sektoreetako elkarteen bidez (merkatariak…) eraginkortasun energetikoaren inguruko sentsibilizazio neurriak hartzea.<br>5.6.6. Hirigintzako jarduera berrientzat, publiko eta pribatuentzat, eraginkortasun energetikorako neurriak txertatzea.<br>5.6.7. Igerileku berrien proiektuan eraginkortasun energetikorako neurriak txertatzea.<br>5.6.8. Eraikuntza araudi batekin bat egiten duten ingurumen hobekuntzarako diru-laguntzak ezarri. |

# INGURUMEN KALITATEA ATMOSFERA, AKUSTIKA, LURZORUAK ETA IBAIAK

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:** 3. ONDARE NATURAL KOMUNAK

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Lurzoruen kutsadura** | o Jarraian ikus dezakegun 30. grafikoaren arabera, 2008.urtean kutsatuak egon daitezkeen lurzoruen azalera 301.361 $m^2$koa zen, eta 2006an berriz, 305.574 $m^2$koa.<br>**31. Grafikoa. Potentzialki kutsatutako lurzoruak.**<br><br><br>*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.*<br>o Zehazki 2007tik 2008ra 4.213 $m^2$ berreskuratu dira, 31. grafikoan ikus daitekeen bezala. Berreskuratutako lekuak hauek dira:<br>- Durangoko Forjanor zaharraren (Bizkaia) lurzorua saneatzeko eta lurretan etxebizitzak eraikitzeko indusketa-plana (2007).<br>- Durangoko Otaduy Hnos, lur-zatiaren gaikako indusketa-plana burutzea. Behin betiko txostena. Mañabara 2007, SM.<br>- Odi-Bakar Sukiako lehengo kokalekuko lurren ingurumen-berreskuraketa eta ingurumen-saneamendurako lanak. Lan hauen ikuskapena: saneamendua, hondar-lurzoruen kalitatea, ikerketa xehatua hedatzea eta lurpeko uren kontrola. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | **32. Grafikoa. Kutsatutako lurzoruen berreskuratzea.**<br><br><br>*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.* | |
| **Gune degradatuak Meatzaritzako ustiategiak** | o Durangoko udalerrian ez dago jardunean dagoen meatzaritzako ustiategirik. Bestalde, 4 harrobi daude guztira, bertan behera utzita edo geldirik. Hauexek dira:<br>- Arriole. Arriole inguruan dago. Hareharrizkoa. Bertan behera utzita. Ez du ageriko arriskurik eta hiriguneetatik urrun dago.<br>- Iturria Bitaño. Iturria Bitaño inguruan dago. Hareharrizkoa. Bertan behera utzita. Ez du ageriko arriskurik eta hiriguneetatik urrun dago.<br>- Santa Lutzia. Santa Lutzia inguruan dago. Kareharrizkoa. Desagertua. Ez du ageriko arriskurik eta hiriguneetatik urrun dago.<br>- Larrinagatxu. Mugarraren hegalean dago. Kareharrizkoa Lur gainekoa. Ez du ageriko arriskurik eta hiriguneetatik urrun dago. | |
| **Atmosferarako isuriak** | o Airearen kalitatean eragina izan dezaketen isuri-foku nagusiak hauek dira:<br>- Foku industrialak: biztanlegunetik hurbil edo biztanlegunean bertan dauden industriak eta airetiko arroak udalerrian amaitzeak aireko partikulen kontzentrazioaren gehikuntzan eragin zuzena du, benetan murriztu den arren.<br>- Ibilgailuen trafikoa: trafikoak eragiten du Nox isuri gehien. Kontuan hartu beharra dago, Durangoko udalerria konexioentzako gune estrategikoetan kokatuta dagoela, eta beraz, egunero ibilgailuen zirkulazio handia jasaten duten azpiegiturak elkartzen direla. Zehazki, Durango honako hauek zeharkatzen dute: A-8 autobideak, BI-623 Durango-Gasteiz eta BI-632, Durango Elorriorekin lotzen duen errepidea.<br>- Egoitza-zerbitzuen sektorea: kutsadura gutxien sortzen duen sektorea da, industria eta garraioaren taldeekin alderatuz | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | gero. Isuri kutsatzaileen etxeko iturriak berokuntza eta uraren berokuntza dira batez ere.<br>- Obrei lotutako fokuak: obrek eragindako hautsen kaltea ere kontuan hartu behar da. | |
| **Airearen kalitatea** | o Durangok Eusko Jaurlaritzaren Airearen Kalitatea Zaintzeko Sareko estazioa du San Roke kalean. Estazioak airearen kalitatean eragina duten parametroak etengabe neurtzen ditu: nitrogeno-oxidoak, sufre-oxidoak, partikula esekiak (2,5-10 mikrako diametroa), karbono-monoxidoa eta ozonoa. Parametroa, 10PM kontzentrazioa, 1073/2002 Errege Dekretuak ezarritako mugen gainetik kokatu ohi da.<br><br>o Zehazki, San Rokeko neurketa-estazioak emandako datuak 2003-2006 aldian, Durangok PM 10 partikulentzako ezarritako urteko muga-balioa (40 µg/m3) gainditzen zuela adierazten zuten. Hala ere, Airearen Kalitateari buruzko Planaren barnean burututako jarduerek emaitzak eman dituzte. 2005. urtetik, aireraren kalitatea ona edo onargarria den egunak gehituz joan dira, eta 2011n 318 egun izan dira. Airearen kalitatearen bilakaera hurrengo grafikoan ikus daiteke.<br><br>**33. Grafikoa. Hiriko airearen kalitatea.**<br><br>*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.* | |
| **Burututako ekintzak** | o Airearen kutsadura murrizteko, kutsaduraren sorburu nagusienetan jardun da:. egoitza-eremua, industria eta ibilgailuen trafikoa.<br><br>o Zentzu horretan, ekintza hauek azpimarratu behar dira: Azterlan-ek burututako diagnostikoa partikulen isuri-fokuak identifikatzeko eta ondoren datozen zuzenketa-ekintzak; udalerriko galdategien inbentarioa eta auzokoen erkidegoei laguntza ematea ordezkatzeko; udalerrian isuri baxuko eremuak ezartzea, kaleak (Zumalakarregi kalea, adibidez) | |

<table>
<tr><th>AZPI-EREMUA</th><th>DIAGNOSTIKOA</th><th>BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td></td><td>
ibilgailuen zirkulaziorako itxiz; $CO_2$ gutxien isurtzen duten ibilgailuak saritzen dituen Udal-ordenantza fiskala burutzea (2010), Ibilgailuen abiadura 40 Km/h-ra mugatzea udalerri osoan, etab.

**5. Irudia. Emisio baxuko eremua. Zumalakarregi kalea.**




- Jarduera industrialari dagokionez, enpresek beren ekoizpen-prozesuen eragina murrizteko neurriak hartu dituzre (adibidez: Mahuken filtroak aldatzea, etab.). Bestalde, galdategiren baten itxierak ere airearen kalitatea hobetu du.

- Egoitza-eremuari dagokionez, galdategien inbentarioa egin da, eta erkidegoetako gasoliozko galdategiak ordezkatzeko ere laguntza eman da (erkidegoetako gasoliozko 14 galdategietatik, egun 4 bakarrik geratzen dira).

- Egun, sortzen duen arduragatik nolabaiteko garrantzia duen beste eremu bat kutsadura elektromagnetikoarena da. Horren fruitua udalerriko telefonia-azpiegiturak arautzen dituen Udal-ordenantza egitea izan da. Ordenantza laster onetsiko da.
</td><td></td></tr>
<tr><td>Kalitate Akustikoa eta ekintza-plana</td><td>

- 2008. urtean, zaraten mapa burutu zen, zarataren sorburu nagusiak zeintzuk ziren jakin, sortutako zarata-mailak gutxitu eta zaratak pertsonen osasunean duen eragina murriztu ahal izateko neurri egokiak hartzeko.

- Zaraten maparen arabera, burututako neurketan %90 “ingurumenaren aldetik positibotzat” hartzen diren parametroen barruan daude.

- Azterketaren arabera, identifikatutako zarata sorburu nagusiak hauek dira: trena eta ibilgailuen trafikoa sahiesbidetik
</td><td></td></tr>
</table>

<table>
<tr><th>AZPI-EREMUA</th><th>DIAGNOSTIKOA</th><th>BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td></td><td>
igarotzerakoan, N-634tik eta A-8 autobidetik. Gune batzuetako ostalaritza-jarduerak, Alde Zaharrekoak adibidez, auzokoei eragozpenak sortzen dizkien beste zarata-sorburu batzuk dira.<br><br>
o Zaraten Mapatik abiatuta, 2009an, Zarataren kontrako Ekintza Plana onetsi zen. Plan horrek beste ekintza-multzo batzuk (batzuk aipatzen dira) barne hartzen dituzten honako jarduera hauek osatzen dute: isurien kontrola, ostalaritza-establezimenduetako zarata kontrolatzea, ibilgailuen zarata murriztea, bide publikoan egindako jai eta ekitaldi kulturalek sortutako zarata murriztea, herritar, zein politikariei jai jasangarriei sentsibilizazio-jardunaldiak burutzea eta auzokoen zaratari buruzko sentsibilizazioa.<br><br>
o Zarataren arkako Jarduera Plana gauzatu eta betetzea da gai horretan egiteko daukaguna.
</td><td></td></tr>
<tr><td>Ibaien kalitatea</td><td>
o Ibaizabal ibaiak udalerritik igarotzerakoan, udalerria iparretik hegora zeharkatzen duen Mañaria ibaiaren emaria jasotzen du, eta baita Larrinagatxu errekarena ere.<br><br>
o Euskal Autonomia Erkidegoko Uren Kalitatea eta Ibaien Ingurumen Egoera Zaintzeko Sareak zazpi kontrol-estazio dauzka Ibaizabalen arroan.<br><br>
o Durangoko udalerritik igarotzen diren uren kalitatea IBA162 estazioak neurtzen du, Ibaizabal-C masa deitutakoa. Ildo horretan, ez daukagu Mañaria eta Larrinagatxuren uren kalitateari buruzko daturik.<br><br>
7. Taula. Ibaizabal-C-eko egoera ekologikoa.
<table>
<tr><th></th><th>Ibaizabal – C</th><th>MASA (IBA162)</th></tr>
<tr><td rowspan="5">Adierazle biologikoak</td><td>Makroornogabeak (Mbi)</td><td>Urria</td></tr>
<tr><td>Fitobentoak (IPS)</td><td>Oso ono</td></tr>
<tr><td>Arrain fauna (ECP)</td><td>Moderatua</td></tr>
<tr><td>Makrofitoak (ECV)</td><td>Urria</td></tr>
<tr><td>EGOERA BIOLOGIKOA</td><td>Urria</td></tr>
<tr><td>Adierazle fisiko-kimikoak</td><td>IFQ-R</td><td>Ona</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Adierazle hidromorfologikoak</td><td>QBR Indizea</td><td>Txarra</td></tr>
<tr><td>Aldaketa hidromorfologikoak</td><td>Txarra</td></tr>
<tr><td colspan="2">POTENTZIAL EKOLOGIKOA</td><td>Urria</td></tr>
</table>
Iturria: 2010eko potentzial ekologikoaren diagnostikoa.<br><br>
o EAEko Ibaien Egoera Biologikoren Jarraipena egiteko Sarearen
</td><td></td></tr>
</table>

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | 2010eko emaitza-txostenaren arabera, IBA162 estazioak aipatutako Ibaizabal-C masaren ahalbide ekologikoa eskasa dela dio, makroornogabeek (MBi) adierazten dutenaren arabera. Horiekin adierazle morfologikoak bakarrik datoz bat, kanalizazioek asko aldatu duten masa eta ibai bazterreko basorik gabekoa baita. Gainerako adierazleak hobeto daude, arrainen egoera, adibidez, neurrizkoa da, eta beste batzuena askoz hobea, perifiton[1] eta baldintza fisiko-kimikoena adibidez, azken bi horiek beren helburuak betetzen baitituzte.<br><br>o Bestalde, uraren baldintza fisiko-kimikoak, onak izan arren, ez dute OEK eta oxigenoaren kalitatearen helburua betetzen kontrol batzuetan. Horrek nolabaiteko karga organikoa erakusten du uretan.<br><br>**6. Irudia. Mañaria ibaia Durangoko hirigunetik pasatzean.**<br><br><br>o Ibaizabal-C masak ingurumen-helburuak ez betetzeko arrisku handia du, inpaktua duelako eta presio-maila altua jasan behar duelako. Kontrolatzen ari den laugarren urtean, IBA162 estazioak kalitatearen helburua argi eta garbi ez dela betetzen berresten du. Fauna-adierazle eta adierazle hidromorfologikoak ez dituzte ingurumen-helburuak betetzen. Eta fitobentoak [2] eta baldintza fisiko-kimiko orokorrek bakarrik daukate, berriz ere, kalitate oso ona eta kalitate ona hurrenez hurren.<br><br>o Masa hau kanalizazioek asko aldatu dute, eta isuri industrialak ditu Zalduko ardatzean zein masaren amaierako Ibaizabalen ardatzean. Afektazio bi horiek izan litezke ez betetzeko | |

[1] Perifitona: substratuari lotuta dagoen mikrobioen (algak, bakteriak, onddo, animaliak eta detritus organikoa eta inorganikoa) komunitate konplexua da.

[2] Fitobentoak:uretako ekosistemetan, hondoko edozein substraturi lotuta bizi diren organismoak dira, hala nola, bakteriak, alga mikroskopikoak, etab.

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | arrazoiak.<br>o Egoera kontuan hartuz, hobekuntzak egon badira ere, adibidez, isuri industrialetan saneamendu-sistemaren bidez, oraindik ere ibaien ingurumen-kalitatea konpondu gabeko arazoetako bat da. Beraz, datorren urteetako lan-eremuetako batek ibaien garbiketa eta isuri partikularren kontrola hartu behar ditu kontuan ibai-ertzak eta errekastoak leheneratuz, eta herritarrek garbitzeko aldizkako jarduerak proposatuz. | |

## LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK

### DURANGO

- o Durangoko Arau Subsidiarioen II. Berrikusketa (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 2005.04.25).
- o Zarataren aurkako Ekintza Plana (2008).
- o Airearen Kalitateari buruzko Plana.

### UDALAZ GAINEKO MAILA

EAEn

- o 3/1998 Legea, otsailaren 27koaEuskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra.
- o 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa
- o 199/2006 DEKRETUA, urriaren 10ekoa, lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituena.
- o 1/2005 LEGEA, otsailaren 4koa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa.
- o 2007-2012 Eperako Euskadiko Lurzoru Kutsatuen Plana.
- o 2/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urei buruzkoa.

Estatuan

<u>Airearen kalitatea</u>

- o 34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa,, airearen kalitatea eta naturaren babesari buruzkoa.
- o 1073/2002 Errege Dekretua, airearen kalitatea neurtu eta kudeatzeari buruzkoan, sufre oxido eta berun, bentzeno eta karbono monoxido partikulen balio mugei dagokionez, partikuletarako ezarritako muga-balioak gaindi ez ditzan.

<u>Lurzoruen kutsadura</u>

- o 10/1998 Legea, apirilaren 21ekoa, Hondakinei buruzkoa.
- o 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda, bai eta lurzoruak kutsatutzat emateko irizpideak eta estandarrak onesten dituena.

<u>Zarata</u>

- o 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa..

<u>Europan</u>

o Uraren Esparru Zuzentaraua (2000/60/EE)

| AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA |
|---|
| LOTURA DUTEN ILDO ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZAK |
| **LE 5. UDALERRIKO INGURUMEN KALITATEA HOBETU**<br>**P 5.1. Ibaien ingurumen kalitatea hobetzeko programa**<br>5.1.1. Udalerriko ibaien arroaren garbiketa lanak burutu.<br>5.1.2. Ur kutsatzaileen ibaietarako isurketa kontrolatu (batez ere egun euritsuetan).<br>5.1.3. Mañaria ibaitik hartutako ura kontrolatu, batez ere lehorte garaietan.<br>**P 5.4. Akustikaren eta atmosferaren kalitatea hobetzeko programa**<br>5.4.1. Airearen kalitatearen datuen monitorizazio eta hedapena.<br>5.4.2. Industriak eta ibilgailuek egindako atmosferarako igorpenen kontrol neurriak.<br>5.4.3. Bizilagun komunitateek egindako gasolio erreketen kontrol neurriak.<br>5.4.4. Atmosferaren kutsatzaile nagusiak udalerri mailan zein diren neurtzea.<br>5.4.5. Hotsen mapa osatzea eta proposatutako neurriak osatzea.<br>5.4.6. Atmosferaren eta akustikaren kutsaduraren aurkako eskualdeko jarduera plana diseinatzea.<br>5.4.7. Akustikaren eta atmosferaren kutsadura eta osasun arriskuak zaintzeko Eskualdeko Kontseilua osatzea.<br>5.4.8. Azterlanen proiektuak Durangoko biztanleriaren artean eta herri erakundeen artean (Udala eta abar) hedatzea.<br>5.4.9. Akustikaren kutsaduraren Ikuskapen Sarea osatzea.<br>5.4.10. Akustikaren kutsaduraren aurkako neurrietan Udala eredu izatea.<br>5.4.11. Hotsen maparen osaketa prozesuan parte-hartzeko bide aktiboak ezarri.<br>5.4.12. Airearen Kalitatearen Plana abiarazi.<br><br>o Lur-zoru kutsatuei buruzko ildo estrategiko, programa eta ekintzarik ez da barneratu aurreko planean. |

# JARDUERA EKONOMIKOEN ETA ARRISKUAREN KUDEAKETA

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:** 3. ONDARE NATURAL KOMUNAK

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Arrisku natural eta teknologikoaren kudeaketa** | o Indarrean dagoen Larrialdietarako Udal Plana (LUP) 2010.urtean onetsi zen, eta 1997ko planaren eguneraketa da. Planaren helburua udalerrian sor daitezkeen larrialdi-egoerei erantzun egokia ematea da.<br><br>o Larrialdiei erantzuteko baliabide eta egiturak ezartzeaz gain, planak prebentzio- eta mantentze-arloko jarduerak garatzen ditu. Honako hauek dira jarduerarik nabarmenenak:<br>- Biztanleriari Larrialdietarako Udal Plana jakinarazteko aldizkako informazio-estrategia etengabea ezartzen du.<br>- Planari buruz langileak prestatzea.<br>- Simulakroak egitea.<br>- Planaren eguneraketa eta berrikusketa. | |
| **Arrisku natural eta teknologikoen eragina** | o LUPek Durangon identifikatutako arriskuak hauek dira:<br>- Arrisku naturalak:<br>▪Uholdeak. Uholde-arriskua izenekoaren barnean bi sailkapen daude: uholde-arriskua eta istiltze-arriskua. Biak arazo hidrologikoak deitutakoen ondorioa dira. Durangoko uholde-arriskua leku hauetan kokatzen da: Gune historikoan eta Larrinagatxu-Ibaizabal elkargunean (Aramotz auzoa).<br>▪Suteak. Talde honen barnean hiriko suteak eta basoko suteak sartzen dira. Hiri-suteei dagokienez, arrisku-eremu nagusia Gune Historikoan dagoela azpimarratu behar da, eraikin gehienek egurrezko egitura baitute. Baso-suteen arrisku-eremu nagusia udalerriko hego-mendebaldean dago, bertan baitago baso-masa gehiena.<br>- Arrisku teknologikoak:<br>▪Salgai arriskutsuen garraioa (TPC/TPF). Salgai arriskutsu gehienek Udalerria BI-623 saihesbidetik bakarrik zeharkatzen dute. Ezin daiteke aurreikusi horrelako istripua non gertatuko den, baina istripua izateko aukera gehiago dauden lekuak zeintzuk diren aurreikusi daiteke. Beraz, garraioarentzako gune beltz batzuk aipa daiteke: Madalena plaza, Alluitz kaleko trenbide-pasagunea, Juan Mari Altuna kaleko trenbide-pasagunea, Olleria kaleko trenbide-pasagunea, saihesbideko biribilgunea. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | o Jarduera industrial arriskutsuak. Udalerriko industrietan istripu bat egonez gero, inguruan eragingo zuketen industriak hauek dira: Ona, Jesús Oñate y Hnos., Laminaciones y Derivados, Funsan, Bruss-Juntas Técnicas, Fumbarri, Gasolindegiak Sabeco eta Eroski, eta Montorreta, SA. | |
| **Jarduera ekonomikoen ingurumen-ereginerako arriskua** | o Ingurumen-arriskurik gehien duten jarduera ekonomikoak industrialak dira.<br><br>o Ingurumenari dagokionez arrisku handiena duten jarduera industrialak Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko 16/2002 Legeak (IPPC ingelesezko siglak) eragiten dituenak dira. Durangon IPPC Legeak eragindako hiru enpresa daude: Fundiciones Fumbarri, Jesús Oñate y Hermanos, eta Funsan.<br><br>o Ingurumen-arrisku handia zuen IPPCak eragindako beste enpresa batek bere jarduera amaitu duela nabarmendu behar da. | |
| **Jarduera ekonomikoen kudeaketa** | o Udalak sailkatutako jardueren errolda du, eta badaki, zehaztasun nahikoarekin, sailkatu eta/edo salbuetsitako jarduera-espediente guztien izapidetze-egoera zein den.<br><br>o Udalak jarduerei modu aktiboan eskatzen die sailkatutako jarduerararen espedienteari hasiera ematea.<br><br>o Udalean, lizentzia hau izapidetzeko ardura Hirigintza Sailak du. Sailak dagozkion txosten eta behaketak burutzen ditu.<br><br>o Udalerriko enpresa industrial guztien artetik, egun lau enpresek bakarrik dute ISO 14001 ingurumen-egiaztagiria. Azken urteotan, egiaztagiria duten enpresa-kopurua igo egin da. Bilakaera hurrengo taulan ikus daiteke: | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | **34. Grafikoa. Enpresa handi eta ETEtan ingurumen kudeaketa sistemen ezarpen gradua (ISO 14001, EMAS, EKOSCAN, jasangarritasun txostenak).**<br><br>*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.*<br>o Ekoscan arauaren bidez egiaztatutako udal-bulegoak 3 dira: Landakoko kiroldegia, Euskaltegia eta Obra-lantaldea.<br>**35. Grafikoa. Instituzio publikoetan ingurumen kudeaketa sistemen ezarpen gradua (ISO 14001, EMAS, EKOSCAN, jasangarritasun txostenak).**<br><br>*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.* | |

| LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK |
|---|
| **DURANGO** |
| o Durangoko Arau Subsidiarioak (2005).<br>o Larrialdietarako Udal Plana (2010). |
| **UDALAZ GAINEKO MAILA** |
| EAEn<br>o 3/1998 Legea, otsailaren 27koaEuskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra.<br>o 1/1996 Legea, apirilaren 3koa, larrialdien kudeaketari buruzkoa.<br>o 153/1997 DEKRETUA, 1997ko ekainaren 24koa, «Larrialdiei aurregiteko bidea-LABI» deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duena.<br>o Euskadiko Arrisku Sismikorako Larrialdi Plana (2007ko abenduaren 10eko EHAO).<br>o EAEko Uholde Arriskurako Larrialdi Plan Berezia (200. urteko otsailaren 19ko EHAO).<br>o EAEko Basoko Suteetarako Larrialdi Plan Berezia (2000. urteko otsailaren 19ko EHAO).<br><br>Estatuan:<br>o Babes Zibileko oinarrizko araua.<br>o 1254/1999 Errege Dekretua, uztailaren 16koa, Substantzia Arriskutsuak tartean dituzten Istripu Larriei datxekien Arriskuak Kontrolatzeko Neurriak onartzen dituena. BOE 264, 1999/11/4, uztailaren 16koa, 1254/1999 Errege Dekretuaren lehen zuzenketa. 119/2005 Errege Dekretua, 1254/1999 Errege Dekretuaren bigarren zuzenketa.<br>o EAEko 20/2005 Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, EAEn NPBren laguntza zuzenekin erlazionatutako baldintzapekotasunari buruzkoa. Apirilaren 11ko 82/2006 Dekretuak aldatua.<br>o 1196/2003 Errege Dekretua, irailaren 19koa, substantzia arriskutsuek eragindako istripu larrien arriskua kontrolatzeko eta planifikatzeko babes zibileko oinarrizko araua onartzen duena.<br>o 393/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa, larrialdi egoerak eragin ditzaketen jardueretarako guneen, egoitzen eta sailen Autobabeserako Oinarrizko Araua, eta horren aldaketa, 1468/2008 Errege Dekretua, irailaren 5ekoa. |

| AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA |
|---|
| **LOTURA DUTEN ILDO ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZAK** |
| o Ez dago eremu honi lotutako aurreko Planeko ildo estrategiko, programa edo ekintzarik. |

# EROSKETA PUBLIKOA ETA UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:** 2. JASANGARRITASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Erosketa eta kontratazio publiko berdea:** | o Durangon Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen (aurrerantzean EKPB) balorazioa IHOBEk 2008an argitaratutako Manual Práctico de Contratación y Compra Pública Verde (Erosketa eta kontratazio publiko berdearen gida praktikoa) lanean jasotzen diren eta ondoren azaltzen diren irizpideen arabera egin da: EKPBren ezarpen-maila finkatze-egoeran dago. Irizpide hauetan oinarritzen da:<br>- Jasangarritasunaren aldeko konpromisoa: jasangarritasuna lehentasunezko gaia da arduradun politiko eta zuzendaritzako arduradunentzako. Jasangarritasuna Tokiko Agenda 21eko teknikariaren ardura da. Jasangarritasuna erakundearen jardueren barnean dago.<br>- Erosketa eta kontratazio publiko berdearen politika: eman diren pausuak hauek dira:<br>▪ 2006. Udalak birziklatutako paperaren erabilera eta posta elektroniko bidezko informazio-trukaketak egitea onesten da dekretu bidez.<br>▪ 2007-2008. Eraikin publiko edo egurrezko hiri-altzariek, iturriek, osasun-tresnek eta pintura eta bernizetarako erosketek bete behar dituzten irizpideak onesten dira.<br>▪ 2008-2009. Ordenagailu, ibilgailu eta bulego eta ekitaldietarako altzariak erosteko ingurumen-irizpideak onestea.<br>▪ 2008. Udalbatzak EROSKETA PUBLIKO ETIKOA ETA BIDEZKO MERKATARITZAREN ALDEKO DURANGOKO UDALAREN KONPROMISOA onetsi zuen.<br>▪ 2009-2010. Udal-obratako lizitazio-pleguetan sartu beharreko irizpideak onetsi ziren.<br>▪ 2011-12. Vending makinen, bulegoko materialaren eta katering zehatzen ingurumen-irizpideak, irizpide etikoak eta bidezko merkataritzakoak onetsi ziren.<br>- Erosketa eta kontratazioaren antolaketa: kontratazio-prozedura estandarizatua dago. Erosketa edo Kontu-hartzailetza Sailak elementu komunen (adibidez, bulegoko kontsumigarriak) eta zerbitzu komunen kontratazioa biltzen ditu. Gainerako sailak kontratazio eta erosketa zehatzak | ● |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | egiteaz arduratzen dira.<br>- Ekintza-plana/Estrategia: EKPBren Ekintza Plan zehatza dago.<br>- Erosketa eta kontratazio eta/edo erosketez arduratzen diren langileen prestakuntza: EKPBri buruzko prestakuntza jaso dute.<br>- Produktu eta/edo zerbitzuentzako ingurumen-irizpideak: produktu eta/edo zerbitzu hauen erosketan ingurumen-irizpideak sartzen dira sistematikoki: vending makinetan, bulegoko material eta katering zehatzetan, udal-obren lizitazio-pleguetan, ordenagailuak erosterakoan, ibilgailuetan, ekitaldi eta bulegoetako altzarietan, eraikin publikoetarako erosketetan, zurezko hiri-altzarietan, iturrietan, osasun-tresnetan eta pintura eta bernizetan. Gainera, Udalak paper birziklatua erabiltzen du eta informazioa trukatzeko posta elektronikoa erabiltzen du.<br>- Emaitzak neurtzea, adierazleak eta berrikuspena: emaitzak neurtzen dira, eta EKPBren adierazleak daude. | |

| LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK |
|---|
| **DURANGO** |
| o Udalak birziklatutako paperaren erabilera posta elektroniko bidezko informazio-trukaketak egitea onesten da dekretu bidez. 2006.<br>o Eraikin publikoek edo zurezko hiri-altzariek, iturriek, osasun-tresnek eta pintura eta bernizetarako erosketek bete behar dituzten irizpideak onesten dira. 2007-2008.<br>o Ordenagailu, ibilgailu eta bulego eta ekitaldietarako altzariak erosteko ingurumen-irizpideak onestea. 2008-2009.<br>o Udalbatzak EROSKETA PUBLIKO ETIKOA ETA BIDEZKO MERKATARITZAREN ALDEKO DURANGOKO UDALAREN KONPROMISOA onetsi zuen. 2008.<br>o Udal-obratako lizitazio-pleguetan sartu beharreko irizpideak onetsi ziren. 2010.<br>o Vending makinen, bulegoko materialaren eta katering zehatzen ingurumen-irizpideak, etikoak eta bidezko merkataritzakoak onetsi ziren. 2011-12. |
| **UDALAZ GAINEKO MAILA** |
| EAEn<br>o Gobernu Kontseiluaren akordioa, Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eta sektore publikoaren kontratazioan gizarte eta ingurumen irizpideak eta beste politika publiko batzuk txertatzeari buruzkoa (2008ko apirilaren 29a).<br>o Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana 2008-2012.<br>o EAEko Hondakin Ez-arriskutsuen Prebentzio eta Kudeaketa Plana 2008-2011. |

- Ingurumen Esparru Programa 2007-2010.
- Ingurumen Kontsumo Iraunkorraren Euskal Plana 2006-2010.

| PLAN DE ACCIÓN LOCAL ANTERIOR |
|---|
| **LÍNEAS ESTRATÉGICAS, PROGRAMAS Y ACCIONES VINCULADAS** |
| **LE 2. UDALAREN KUDEAKETA POLITIKA HOBETU**<br>**P 2.2. Interes orokorreko informazioaren hedapena eta udal kudeaketa hobetzeko programa.**<br>2.2.1. Funtzionarioentzat arretarako protokoloa ezarri.<br>2.2.2. Udalak eskaintzen dituen zerbitzu eta funtzioak aztertu eta beste enpresei azpikontratatzen zaizkienak.<br>2.2.3. Hiritarren arretarako zerbitzua ezarri, eta bere izatea iragarri.<br>2.2.4. Tokiko Agenda 21 prozesuaren berri eman hiritarrei eta udal teknikariei parte-hartzearen garrantziaz.<br>2.2.6. Udalerriko web orria dinamizatu.<br>2.2.8. Kontratazio publikoa iraunkortasun irizpideekin egitea: dimentsio sozial, etiko eta ingurumenezkoa (adibidez, energia berriztagarriak kontratatzea). |

# KLIMA ALDAKETA

| **Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:** | 4. KONTSUMO ETA BIZIERA ARDURATSUA<br>10. TOKIKOTIK GLOBALERA |
|---|---|

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Klima-aldaketaren aurkako borroka** | o 2010-2015 Klima Aldaketaren Udal Programa dago, 2012an onetsitakoa, eta behin-behinean 2009.01.29ko Udalbatzaren akordioaren bidez onetsitako "Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Udal Ordenantzan" oinarrituta egin da.<br><br>o Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Udal Programak helburu bikoitza du: udalerrian sortutako isuriak murriztea eta klima-aldaketari egotz dakizkioken aldaketen egokitzapenerako neurriak ezartzea.<br><br>o Programak udalerriko CO2 isurien inbentarioa barne hartzen du, sektoreka, eta Tokiko administrazioak sortutakoak, eta baita isuriak murrizteko ekintzak eta klima-aldaketara egokitu eta klima-aldaketa murrizteko lehenengo ekintzak ere. | |
| **Berotegi-gasen isurien inbentarioa** | o Klima Aldaketaren aurkako Borrokaren Udal Programa zehaztu baino lehen, udalerri osoko eta Udaleko berotegi-gasen isuriak kalkulatu ziren. Inbentarioa kalkulatzeko erabilitako tresna Udalsarea 21eko udalerri guztien eskura dagoen tresna da, eta metodologia komunean oinarritzen da. Inbentarioak garraio, bizitoki, zerbitzu, hondakin eta industriaren sektoreko berotegi-gasak neurtzen ditu.<br><br>o Udalerri osoko isuriei dagokienez, industriaren sektorean jarduteko udalek gaitasun mugatua dutenez, interpretazio bikoitza egin daiteke:<br>- Berotegi-gasen isurien sektorekako banaketa, industriaren sektorea kontuan hartuta.<br>Garraioa: %44<br>Industria: %19<br>Bizitokien sektorea: %22<br>Zerbitzuak: %13<br>Hondakinak: %2<br>- Udalerriko berotegi-gasen isuri guztiak 2008.urtean 120.595 tCOeq izan ziren, eta horietatik %19 industriaren jarduerak sortu zituen. Garraioaren sektoreak gasen %44 sortu zituen. Udalerriko isurietan eragin gehien duen sektorea da. Azkenik egoitza eta zerbitzuen sektoreak berotegi-gasen | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|

%22 eta %13 sortzen dituzte hurrenez hurren, elektrizitate eta gas naturalaren kontsumoagatik.

- Industriaren sektorea alde batera utzita, udalerriko berotegi-gasen isuriak guztira 2008an, 97.349 tCO2eq izan ziren, eta berotegi-gasen %55 garraioaren sektoreak sortzen ditu. Hurrengoak egoitza-sektorea, %27rekin eta zerbitzuen sektorea dira berotegi-gasen %16rekin. Hondakinei egozten zaizkien isuriak oso txikiak dira, isurien %2 baino ez dira. Hurrengo grafikoan bilakaera ikus daiteke:

**36. Grafikoa. Udalerriaren berotegi-efektuko gas-emisioak.**




*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.*

- o Udalak sortutako isuriei dagokienez, Udalaren eraikin eta instalazioen elektrizitate eta gas naturalaren kontsumoa, udal-ibilgailuen erregai-kontsumoa eta argi publikoen elektrizitate-kontsumoa hartu dira kontuan. Isuri gehienak udalaren eraikin eta instalazioetan sortzen dira, isuri guztien %62 hain zuzen ere. Argi publikoak isurien %36 sortzen du.

**37. Grafikoa. Udaletxearen berotegi-efektuko gas-emisioak.**




*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.*

<table>
<tr><th>AZPI-EREMUA</th><th>DIAGNOSTIKOA</th><th>BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td>Berotegi-gasen bilakaera eta etorkizuna 2006-2015</td><td>
<ul>
<li>2006.urtetik 2009.urtera bitartean, berotegi-gasen isuriak %8 hazi direla zenbatesten da. Joera hau alderantzizkatzeko ekintza gehigarririk ez bada abian jartzen, 2010-2015 aldian isuriak %10 haziko direla zenbatetsi da, 2006. urteari dagokionez..</li>
<li>2010-2015 Klima aldaketaren aurka Borrokatzeko Udal Programan sartutako ekintzak abian jartzen badira, ordea, Durangoko Udalak lortu nahi duen helburua aldi berberean, hots 2010-2015 aldian, isuriak %2 haztea da 2006. urteari dagokionez.</li>
</ul>
</td><td></td></tr>
<tr><td>Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Udal Programa</td><td>
<ul>
<li>42 ekintzek osatutako KABUP egin da. Ekintzak 2007-2011 Ekintza Planaren bost ildo estrategikoetan sartu dira, modu honetan:</li>
</ul>
8. Taula. KABUP-ko ekintzen banaketa.
<table>
<tr><th>ILDO ESTRATEGIKOAK</th><th>KABUP-eko ekintza kopurua</th></tr>
<tr><td>Garapen ekonomiko orekatu, dibertsifikatu eta iraunkorraren alde egitea</td><td>3</td></tr>
<tr><td>Udalaren politika eta kudeaketa hobetzea</td><td>3</td></tr>
<tr><td>Udaleko garapen soziala bultzatzea</td><td>-</td></tr>
<tr><td>Hirigintza Orekatuaren aldeko apustua eta hiri espazioaren kalitatea hobetzea</td><td>2</td></tr>
<tr><td>Udaleko ingurumen kalitatea hobetzea</td><td>34</td></tr>
</table>
Iturria: Klima Aldaketaren Aurkako Udal Plana.
</td><td></td></tr>
</table>

| LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK |
|---|
| **DURANGO** |
| o Klima Aldaketaren Udal Programa 2010-2015 (2012).<br>o Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Udal Programa. (2009). |
| **UDALAZ GAINEKO MAILA** |
| EAEn<br>o Klima Aldaketaren Udal Ordenantzaren Eredua ("Udala eta Klima" Ekitaldean landua).<br>o Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana (2008-2012).<br>o EAEko Klima Aldaketaren Legea (Euskal Jaurlaritzak proiektua onetsita, baina Eusko Legebiltzarrak oraindik onetsi gabe). |

| PLAN DE ACCIÓN LOCAL ANTERIOR |
|---|
| **LÍNEAS ESTRATÉGICAS, PROGRAMAS Y ACCIONES VINCULADAS** |
| **LE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA**<br>**P 1.1. Nekazaritza ekologikoa bultzatzeko programa**<br>1.1.1. Nekazaritza ekologikoa indartzea.<br>1.1.2. Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikorako ustiapenak ezarri nahi dituztenei erraztasunak eskaintzea eta ekimen horiek bultzatzea.<br>**P 1.2. Programa para promover la diversificación industrial en el municipio**<br>1.2.1. Industriaren egoera hobetzeko eskualdeko hausnarketa estrategikotik datozen ekintzak udalerrian abiaraztea.<br>**LE 4. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN ETA HIRIGUNEAREN KALITATEA HOBETU**<br>**P 4.2. Eraikuntzan ingurumen irizpideak txertatzeko programa**<br>4.2.1. Etorkizuneko eraikuntzei "Euskadiko Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Eraikuntzara Iraunkorrerako Gidaren" aholkuak aplikatu.<br>4.2.2. Eraikuntza eta lanen baimenen jarraipena egin iraunkortasun irizpideen aplikazio mailari dagokionez.<br>**LE 5. UDALERRIKO INGURUMEN KALITATEA HOBETU**<br>**P 5.3. Garraio publikoa hobetzeko eta mugikortasun iraunkorra indartzeko programa**<br>5.3.1. Mugikortasun iraunkorrerako udalerriko plana osatu.<br>5.3.2. Garraiobide gisa txirrindua erabiltzea bultzatzeko neurriak hartu (segurtasuna ziurtatzeko neurriak, informazioa eta sentsibilizazioa…).<br>5.3.3. Udalerri bizilagunekin koordinatuta oinezkoen zonaldeak hedatu.<br>5.3.4. Udalaz gaindiko garraio publikoaren kalitatea hobetzeko beste herri erakundeekin koordinazioa (Bizkaibus, Euskotren,…)<br>5.3.5. Hiriguneko autobus bat jartzeko aukeraren bideragarritasuna aztertu.<br>5.3.6. Udalerriko zonalde batzuetan (Landako, Juan Iziar…) trafikoa antolatzeko neurriak hartzea, bizilagunekin koordinatuta. |

5.3.7. Norberaren ibilgailuaren erabilera mugatzeko neurriak hartzea.
5.3.8. Udaltzaingoak eta udaleko beste teknikariek Durangon zehar mugitzeko txirrindua erabiltzeko aukera aztertzea.
5.3.9. Bidegorrien sarea garatzea udal eraikinak, kiroletakoak eta ikastetxeak lotzeko.
5.3.10. Mugikortasun iraunkorraren eremuan beste hiri batzuen esperientziak aztertu (Bordele, Iparraldea,…).

**P 5.5. Hiri hondakinen kudeaketan iraunkortasun irizpideak barneratzeko programa**

5.5.1. Birziklatzearen eta hondakinen sorrera indizeen murrizketaren garrantziaren inguruko kontzientziazio neurriak hartu.
5.5.2. Birziklatze eta hondakin organikoen edukiontzien beharren eta moldaketen inguruko azterketa bat osatzea.
5.5.3. Hondakinen sorrera gutxitzeko beharraren gaineko kontzientziazio neurriak hartzea.
5.5.4. Plastiko poltsek eragindako hondakinak gutxitzeko poltsa berrerabilgarriak bultzatzea komertzioetan eta merkatal guneetan.
5.5.5. Froga gisa hondakinak biltzeko edukiontzi berriak ezartzearen bideragarritasuna aztertzea (zabor organikoa,…).
5.5.6. Udalerriko zonalde ezberdinetan hondakinak jasotzeko edukiontzien egiazko beharrak aztertzea, baita hauen kokapena ere.
5.5.7. Hondakinen birziklapena eramateko moduaz biztanleriak informatu eta formatu.
5.5.8. Durangaldean eta Durangon konpost aurreratua bultzatu.
5.5.9. Eskoletan ingurumen hezkuntza neurriekin jarraitzea, bereziki hondakinen alorrean.
5.5.10. Hondakin arriskutsuen sortzaile txikien kontrola areagotu (argazki dendak, …)
5.5.11. Festa eta ekitaldi publikoetan hondakinen kudeaketa iraunkorra bultzatu.

**P 5.6. Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak hobetzeko programa**

5.6.1. Etxebizitzen ziurtagiri energetikoak egitea bultzatzea.
5.6.2. Etxebizitzen, argiztapen publikoaren, komertzioaren eta industriaren eraginkortasun energetikoaren planak osatzea.
5.6.3. Instalakuntza publikoetan eta sektore pribatuan energia berriztagarriak bultzatzea.
5.6.4. Auditoria energetikoak egitea instalakuntza publikoetan eta eremu pribatuko beste sektoreetan auditoriak egitea bultzatzea.
5.6.5. Sektoreetako elkarteen bidez (merkatariak…) eraginkortasun energetikoaren inguruko sentsibilizazio neurriak hartzea.
5.6.6. Hirigintzako jarduera berrientzat, publiko eta pribatuentzat, eraginkortasun energetikorako neurriak txertatzea.
5.6.7. Igerileku berrien proiektuan eraginkortasun energetikorako neurriak txertatzea.
5.6.8. Eraikuntza araudi batekin bat egiten duten ingurumen hobekuntzarako diru-laguntzak ezarri.

# 2.6 SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNEKO KOORDINAZIOA

# KOMUNIKAZIOA HERRITARREN PARTAIDETZA, ELKARTEGINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA.

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:**

4. KONTSUMO ETA BIZIERA ARDURATSUA
10. TOKIKOTIK GLOBALERA

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Komunikazioa** | o Udalak sustatzen dituen ekimenen, ekintzen, jardueren eta Tokiko Agenda 21eko ekitaldien berri emateko erabiltzen diren komunikazio bideak hauek dira: udalaren web-orria, posta elektronikoak, argibide taulak, atarietako bandoak eta prentsaurrekoak. Herritarrei eskaintzen zaien informazioa askoz ere gehiago sakondu eta sustatu behar dela uste da gai guztietan.<br>o 2009ko Durangoko Tokiko Jasangarritasunari buruzko Txostena azpimarratzekoa eta onuragarria dela uste da. | |
| **Herritarren partaidetza** | o Herritarren partaidetza izan da, eta bada, Durangoko Tokiko Agenda 21en Ekintza Planaren lehentasunetako bat.<br>o 2008. urtetik, herritarren partaidetza herritarrentzako zabalik dagoen herritarren foroan antolatu da, eta Foroak udalerriarentzat lehentasunezko alderditzat hartu dituen hiru gai zehatzetan oinarrituz lan egin duten hiru lantalderen bidez. Hauexek dira landu dituzten gaiak: mugikortasun jasangarria, kutsadura atmosferikoa eta akustikoa eta irisgarritasuna. Kutsadura atmosferikoa nabarmen murriztu ahala, talde horretan kutsadura elektromagnetikoa eta klima aldaketa hartu dira kontuan. Lantaldeen saioak hilean behin egin dira eta foro orokorrak sei hilean behin. Azpimarratu beharra dago, partaidetza-foroa eta lantaldeen bidez hainbat ekimen jarri direla abian.<br>o Foroak Planak egiten parte hartu du, hala nola, Airearen Kalitatearen Plana, Irisgarritasunaren Plana eta Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Udal Plana edo Irisgarritasun Jasangarriaren Plana. Ekimen zehatzetan ere parte hartu du: Zumalakarregi kaleko isuri baxuko eremuaren sorketan, bizikletentzako bideen diseinuan edo jabeen erkidegoetako galdategien inbentarioan. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | **7. Irudia. Kalitate atmosferiko eta akustikoko lantaldearen parte-hartze bilera.**<br><br>o Herritarren partaidetza-foroa egonkortasun handiko organoa izan dela esan daiteke, baina berriz partaidetza sustatu behar dela uste da –aurpegi berberak errepikatzen dira- eta aldi honetan zehar sortutako sinergiak galtzeko arriskua dago. Halaber, udalerriko gazteak erakarri behar direla uste da eta baita Durangon dagoen elkarte-sarea ere, Tokiko Agenda 21era elkar daitezen. | |
| **Elkartegintza** | o Durangoko udalerrian urte osoan zehar jarduera ugari burutzen dituzten elkarteen sare garrantzitsua dago. Elkarteen sarean hauek daude besteak beste: auzokoen elkarteak, erretiratuen elkarteak emakumeen elkarteak, kirol-elkarteak, desgaitasuna duten pertsonen elkarteak, gizarte-mugimenduen elkarteak, elkarte kulturalak, etab. Hala ere, Tokiko Agenda 21en garapenean parte hartu duten elkarteen kopurua ez da oso handia izan.<br><br>o Tokiko Agenda 21en bidez, elkarteen partaidetza sustatu dela uste da. Eremu teknikoari dagokionez, elkarteen partaidetza sustatzeko lanean dihardute, adibidez, gizarte-eremuan Udala eta elkarteen arteko batzarrak antolatuz hilean behin, udalerrian gizarte-erakundeen sarea mantentzeko helburuarekin. Zentzu horretan, udalerriko gazteenen jarduerak dinamizatzeko elkartea sortu berri dela azpimarratzen da. Dena den, elkarte bakoitzak helburu eta asmo ezberdinak edukitzea, elkarteen beraien arteko elkarlana sustatzeko zailtasuntzat hartzen da.<br><br>o Hala ere, elkarte ugari daggoenez, eta elkarte-sarearen erabilera komunitarioko ekipamendu eta zerbitzuen beharrei erantzuteko espazioaren falta dela-eta, Udalak dituen ekipamenduen erabilera optimizatzeko beharra ikusten da. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | | |
| **Sentsibilizazioa** | o Tokiko Agenda 21en esparruan burututako sentsibilizazio-ekintzak positibotzat jotzen dira, bai ekimenen kopuruagatik, bai aztertu diren gaien aniztazunagatik eta hartzaileen aniztasunagatik, baina askoz ere gehiago sustatu beharra dago.<br><br>o Herritarrei, oro har zuzendutako kanpainez gain, hezkuntzaren, merkataritzaren, enpresa ertain eta txikien eta abarren esparrurako kanpaina zehatzak burutu dira. | |

| LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK |
|---|
| **DURANGO** |
| o Ez lago lotura duen udal-araurik gai honi buruz. |
| **UDALAZ GAINEKO MAILA** |
| EAEn<br>o 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzorua eta Hirigintzari buruzkoa. (III. titulua, IV. kapitulua, VII. atala). Herritarren partaidetza plangintzaren adierazpen, izapidetze eta onespenean).<br>o 3/1998 Legea, otsailaren 27koaEuskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra.<br><br>Estatuan:<br>o 27/2006 Legea, uztailaren 18koa, ingurumen arloan informazioa eskuratzeko, parte-hartze publikorako eta justiziarako eskubideak arautzen dituena. |

| PLAN DE ACCIÓN LOCAL ANTERIOR |
|---|
| LÍNEAS ESTRATÉGICAS, PROGRAMAS Y ACCIONES VINCULADAS |
| **LE 2. UDALAREN KUDEAKETA POLITIKA HOBETU**<br>**P 2.1. Udalerriaren kudeaketan parte-hartzeko bultzatzeko programa**<br>2.1.1 Parte-hartze protokoloa adostu.<br>2.1.2 Aurrekontu parte hartzaileak egiteko modua aztertu.<br>**P 2.2. Interes orokorreko informazioaren hedapena eta udal kudeaketa hobetzeko programa**<br>2.2.1. Funtzionarioentzat arretarako protokoloa ezarri.<br>2.2.2. Udalak eskaintzen dituen zerbitzu eta funtzioak aztertu eta beste enpresei azpikontratatzen zaizkienak.<br>2.2.3. Hiritarren arretarako zerbitzua ezarri, eta bere izatea iragarri.<br>2.2.4. Tokiko Agenda 21 prozesuaren berri eman hiritarrei eta udal teknikariei parte-hartzearen garrantziaz.<br>2.2.5. Udalerriko eremu estrategikoetan interes orokorreko informazioa zabaltzeko panelak ezarri (Irungo adibidea aztertu).<br>2.2.6. Udalerriko web orria dinamizatu.<br>2.2.7. Udalaren eta interes orokorreko informazioa jasoko dituen aldizkaria egiteko aukera aztertu<br>**LE 3. UDALERRIAREN GARAPEN SOZIALA BULTZATU**<br>**3.7. Udalerrian asoziazionismoa bultzatzeko programa**<br>3.7.1. Elkarteen eta Udalaren arteko eta elkarteen euren arteko komunikaziorako eta elkarlanerako bitartekoak ezarri.<br>3.7.2. Euren ekimenak egin ahal izateko aukerak (eremuen erabilera…) eskaini elkarteei.<br>3.7.3. Euren intereseko informazioa hedatzeko aukera eskaini udal web orrian elkarteei (egin behar dituzten ekintzak…)<br>3.7.4. Auzotarren elkarteak sortzea bultzatu eta daudenak indartu. |

# BARNEKO KOORDINAZIOA ETA ZEHARKAKOTASUNA

**Lotutara duten Aalborg-eko konpromisoak:** 1. GOBERNATZEKO MODUAK

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Barne koordinazioa eta komunikazioa** | o Udalerriaren jasangarritasunarekin lotutako gaiak Garapen Iraunkorraren Batzordean aztertzea positibotzat jotzen da, bertan talde politiko guztiak parte hartzen baitute, eta horri esker Tokiko Agenda 21ek zeharkakotasun handiagoa du. Era berean, planean pertsonal tekniko eta politikoaren parte hartzea lehentasunezko esku-hartze helburua izan da Tokiko Agenda 21en garapenean. | |
| **Tokiko Agenda 21en kudeaketa-ereduaren ezarpena** | o Lehenengo 2007-2011 Ekintza Planean garrantzi handiagoa eduki dute ingurumen-alderdiek, alderdi sozial eta ekonomikoek baino.<br><br>o Positiboki nabarmentzen da MUGI 21 tresna informatikoaren bidez burutzen diren Tokiko Agenda 21en urteko jarraipen-prozesuak (jasangarritasun adierazleen ebaluazioa eta kalkulua) errotuta egotea.<br><br>o Halaber, positiboki baloratzen da Ekintza Planean txertatutako ekintzen urteko jarraipenean sail edo zerbitzu guztiek duten inplikazioa. Horrek Tokiko Agenda 21i buruzko informazio zentralizatua eta eguneratua izatea errazten du.<br><br>o Tokiko Agenda 21ekin Lotura duten Alderdien barne komunikazioa ona dela uste da, urtero Ekintza Planaren ebaluazio eta jarraipenaren emaitzak aurkezten baitira Garapen Iraunkorraren Batzordean eta Bulego Teknikoan. Baina ez dela nahikoa uste da, eta zentzu horretan Udal-sail guztietako arduradun teknikoekin egin behar da, Sailarteko Batzordea deitutakoan.<br><br>o Halaber, udaleko sailen artean koordinazio gehiagoren beharra antzematen da, Udaleko sailen artean ez baitago, zehaztutako koordinazio-sistemarik. | |
| **Baliabide teknikoak** | o Udalak Tokiko Agenda 21eko teknikaria du. Beste zeregin batzuen artean, Tokiko Agenda 21 kudeatu eta koordinatzeaz arduratzen da. Hori funtsezkoa da prozesuaren sustapen eta ezarpen eraginkorrerako. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | | |
| **Buruzagitza politikoa** | o Politika-mailan, alkatearen eta Garapen Iraunkorraren Batzordearen buruzagitza-lana garrantzitsua izan da Tokiko Agenda 21en kudeaketarako. | |

| LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK |
|---|
| **DURANGO** |
| o Ez dago gai honi buruzko udaleko plan edo araudirik. |
| **UDALAZ GAINEKO MAILA** |
| o Ez dago gai honi buruzko Autonomia Erkidegoko edo Estatuko plan edo araudirik. |

| AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA |
|---|
| **LOTURA DUTEN ILDO ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZAK** |
| o Ez dago eremu honekin lotura duten aurreko Planeko ildo estrategiko, programa edo ekintzarik. |

# 2.7 GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

# BIZTANLERIA

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|

**Bilakaera demografikoa**

- 2011 ekitaldiari dagokion azken errolda ofizialaren arabera, Durangoko udalerriak 28.226 biztanle ditu guztira, eta horietatik 14.347 emakumezkoak dira, eta 13.879 gizonezkoak.

- Durangoko biztanleria osoaren bilakaerak goranzko joera argia du, 2011ko ekitaldiko datuan izan ezik. Ekitaldi horretan, biztanleria pixka bat murrizten da, kopurua 28.220 biztanle inguruan egonkortuz.

- Sexuen araberako datuei dagokienez, ekitaldi guztietan emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa izan da, gutxi gorabehera 500 pertsona gehiagokoa. Hala ere, aipatu beharra dago, emakume eta gizonen arteko kopuruaren aldea murriztuz doala pixkanaka.

**38. Grafikoa. Biztanleria osoaren bilakaera sexuaren aldagaia kontutan izanda. 2000-2011.**




| | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumezkoak | 12.67 | 12.87 | 13.00 | 13.18 | 13.34 | 13.54 | 13.84 | 14.05 | 14.18 | 14.35 | 14.39 | 14.34 |
| Gizonezkoak | 12.06 | 12.20 | 12.34 | 12.55 | 12.78 | 12.96 | 13.19 | 13.41 | 13.67 | 13.87 | 13.86 | 13.87 |

*Iturria: Ine: ariketa bakoitzeko urtarrilaren 1eko udal-errolda.*

- Durangoren bilakaera, Bizkaiko Lurralde Historikoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatuta, positiboagoa izan da 2000-2009 aldian, baina 2010 eta 2011 ekitaldietan, berriz, portzentajeak beste bi lurraldeetakoak baino apur bat txarragoak dira.

- Laburbilduz, Durangok oso bilakaera positiboa du azken hamabi ekitaldietan, Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|

datuak baino portzentaje askoz ere altuagoak ditu.

**9. Taula. Biztanleria osoaren bilakaera lurraldeka.**

| | Durango | Bizkaia | E.A.E. |
|---|---|---|---|
| **2000** | 24.742 | 1.132.729 | 2.098.596 |
| **2001** | 25.082 | 1.132.616 | 2.101.478 |
| **2002** | 25.346 | 1.133.444 | 2.108.281 |
| **2003** | 25.735 | 1.133.428 | 2.112.204 |
| **2004** | 26.131 | 1.132.861 | 2.115.279 |
| **2005** | 26.511 | 1.136.181 | 2.124.846 |
| **2006** | 27.040 | 1.139.863 | 2.133.684 |
| **2007** | 27.476 | 1.141.457 | 2.141.860 |
| **2008** | 27.861 | 1.146.421 | 2.157.112 |
| **2009** | 28.229 | 1.152.658 | 2.172.175 |
| **2010** | 28.261 | 1.153.724 | 2.178.339 |
| **2011** | 28.226 | 1.155.772 | 2.184.606 |

*Iturria: Ine: ariketa bakoitzeko urtarrilaren 1eko udal-errolda.*

**39. Grafikoa. Biztanleriaren bilakaera ehunekotan (%-etan gehitzea).**




| | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Durango | 1,37% | 1,05% | 1,53% | 1,54% | 1,45% | 2,00% | 1,61% | 1,40% | 1,32% | 0,11% | -0,12 |
| Bizkaia | -0,01 | 0,07% | 0,00% | -0,05 | 0,29% | 0,32% | 0,14% | 0,43% | 0,54% | 0,09% | 0,18% |
| E.A.E. | 0,14% | 0,32% | 0,19% | 0,15% | 0,45% | 0,42% | 0,38% | 0,71% | 0,70% | 0,28% | 0,29% |

*Iturria: Ine: ariketa bakoitzeko urtarrilaren 1eko udal-errolda.*

**Populazioaren egitura**

- Durangok 0-14 urte bitarteko biztanleen oinarri garrantzitsua du, ehunekoetan adierazita, udalerriko biztanleria osoaren %15,4 da. Portzentaje hori Bizkaia osokoa baino (%12,8 baino ez) handiagoa da. Datu horiek azken ekitaldietan gertatutako jaiotza-tasaren berreskurapenari dagozkie, 90eko hamarkadan izandako beherakadaren ostean, 15 eta 24 urte bitarteko biztanlerian ikus daitekeen bezala. Dena den, Durangoko datua Bizkaia osokoa baino mesedegarriagoa da.

- Adin gehiagoko tarteetan, aldiz, 65 urtetik gorako pertsonak Durangon biztanleriaren %16,7 dira, Bizkaikoa baino

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | portzentaje txikiagoa, Bizkaian, 65 urtetik gorako pertsonak biztanleriaren %20 baino pixka bat gehiago baitira.<br><br>o Sexuen araberako azterketari dagokionez, adin goiztiarragoetan, gizonezkoen kopurua emakumezkoena baino handiagoa da, baina 45 urtetik gorako tartean joera hori alderantzizkatu egiten da eta udaleerriko biztanle gehienak emakumezkoak dira. | |

**40. Grafikoa. Adinaren arabera biztaleria piramidea. Durango 2011.**




*Iturria: Ine: ariketa bakoitzeko urtarrilaren 1eko udal-errolda.*

**41. Grafikoa. Adinaren arabera biztaneria piramidea. Bizkaia.2011.**




*Iturria: Ine: ariketa bakoitzeko urtarrilaren 1eko udal-errolda.*

o Atal honetan, mendekotasun-ratioa, hots, 20 urte baino gutxiagoko biztanleria-kopurua eta 65 urte baino gehiagoko biztanleriaren arteko harremana, aztertzen da. Beraz, kopurua berbera izango balitz, ratioa 1 izango litzateke, 20 urte baino gutxiago dauzkatenak gehiago izango balira, ratioa 1 baino handiagoa izango litzateke, eta alderantziz gertatuko balitz, ratioa bat baino txikiagoa izango litzateke.

<table>
<tr><th>AZPI-EREMUA</th><th>DIAGNOSTIKOA</th><th>BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td></td><td>
<ul>
<li>Durangori dagozkion datuetan, mendekotasun-ratioa pixkanaka jaitsiz doala ikus daiteke, 2011 ekitaldian gutxieneko balioak lortu arte. Laburbilduz, biztanleriaren zahartze-prozesu argia ikus daiteke.</li>
<li>Bizkaia eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatuz gero, Durangok balio askoz altuagoak ditu, arestian aipatutako gazteen proportzio handia eta pertsona nagusien proportzio txikiagoaren ondorioz.</li>
</ul>
10. Taula. Mendekotasun-ratioaren konparaziozko bilakaera.
<table>
<tr><th></th><th>Durango</th><th>Bizkaia</th><th>E.A.E.</th></tr>
<tr><td>2001</td><td>1,23</td><td>0,92</td><td>0,98</td></tr>
<tr><td>2003</td><td>1,19</td><td>0,86</td><td>0,92</td></tr>
<tr><td>2005</td><td>1,21</td><td>0,85</td><td>0,91</td></tr>
<tr><td>2007</td><td>1,22</td><td>0,84</td><td>0,90</td></tr>
<tr><td>2009</td><td>1,20</td><td>0,84</td><td>0,90</td></tr>
<tr><td>2011</td><td>1,18</td><td>0,83</td><td>0,89</td></tr>
</table>
Iturria: Ine: ariketa bakoitzeko urtarrilaren 1eko udal-errolda.
</td><td></td></tr>
<tr><td>Biztanleriaren bilakaera naturala</td><td>
<ul>
<li>Durangoko jaiotza-kopuruak, azken ekitaldietan urteko 280 jaiotzako kopurua gainditu du, eta 2006 ekitaldia izan zen jaiotza gehien izan ziren urtea, 316 hain zuzen ere. Jaiotza gutxien izan ziren ekitaldia 2001. urtekoa izan zen, 247 jaiotza bakarrik egon baitziren. Dena den, azken bi ekitaldiotan, jaiotza-kopurua murrizteko nolabaiteko joera ikus daiteke.</li>
<li>Heriotzei dagokionez, aztertutako azken ekitaldia da, 2010. urtea hain zuzen ere, heriotza-kopuru handiena duen urtea, 237 heriotza izan baitziren. Bitxikeri gisa, jaiotzen kasuan bezala, heriotza gutxien izan zen ekitaldia 2001 urtekoa izan zen, 165 heriotzarekin hain zuzen ere.</li>
<li>Udalerriko jaiotza eta heriotzen arteko erlaziotik hazkunde begetatiboa lortzen da. Lehenengo, aztertutako ekitaldi guztietan hazkunde begetatiboa positiboa izan dela nabarmendu behar da. 2002 ekitaldian egon da saldo positiborik handiena duena, eta 2004 ekitaldia, eta aztertutako azken ekitaldia, hots, 2010. urtekoa, dira saldo begetatibo positibo txikiena duena.</li>
<li>Laburbilduz, oro har, udalerriko hazkunde begetatiboa ona da, baina saldo begetatibo positiboa murrizteko joera dagoela aipatu behar da.</li>
</ul>
</td><td></td></tr>
</table>

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | **11. Taula. Durangoko jaiotzak, heriotzak eta hazkunde begetatiboaren bilakaera.** (see table below) *Iturria: Eustat.* | |
| **Atzerriko biztanleria eta migrazio-saldoa** | o Durangoko atzerriko biztanleria etengabe hazi da aztertutako zortzi ekitaldietan. Erdiko urteetan, hazkundea urteko ehuneko batera arte heldu dela egiazta daiteke, eta azkeneko ekitaldietan joera baretu egin da. Hala ere, 2010eko azken ekitaldian, atzerriko biztanleriaren gehienezko portzentajera heltzen da, %7,08ra.<br><br>o Migrazio-saldoa migrazioagatiko sarrera eta irteeren arteko aldea da, eta beraz positiboa izango da sarrerak irteerak baino gehiago badira, eta negatiboa izango da pertsonen irteerak sarrerak baino gehiago badira.<br><br>o Kanpoko migrazioa Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora doazen Durangoko pertsonen eta kanpotik Durangora datozen pertsonen arteko aldea da. Barneko migrazioa Durangotik Euskal Autonomia Erkidegoko beste udalerri batera doazen pertsonen eta EAEko beste udalerri batetatik Durangora datozen pertsonen arteko aldea da.<br><br>o Migrazio-saldo osoa positiboa da aztertutako ekitaldi guztietan, baina aurreko kasuetan bezala, joera positiboa badu ere, murriztuz doa.<br><br>o Kanpoko migrazio-saldoari dagokionez, aztertutako ekitaldi guztietan positiboa dela argi dago. Baina barneko migrazio-saldoa negatiboa da 2007. urtetik aurrera. Horrek udalerriak | |

**11. Taula. Durangoko jaiotzak, heriotzak eta hazkunde begetatiboaren bilakaera.**

| | Jaiotzak | Heriotzak | Hazkunde begetatiboa | Jaiotza tasa | Hazkunde begetati-boaren tasa |
|---|---|---|---|---|---|
| **2000** | 291 | 173 | +118 | 11,76 | 4,77 |
| **2001** | 247 | 165 | +82 | 9,85 | 3,27 |
| **2002** | 292 | 188 | +104 | 11,52 | 4,10 |
| **2003** | 301 | 225 | +76 | 11,70 | 2,95 |
| **2004** | 260 | 215 | +45 | 9,95 | 1,72 |
| **2005** | 299 | 229 | +70 | 11,28 | 2,64 |
| **2006** | 316 | 236 | +80 | 11,69 | 2,96 |
| **2007** | 298 | 212 | +86 | 10,85 | 3,13 |
| **2008** | 305 | 207 | +98 | 10,95 | 3,52 |
| **2009** | 288 | 216 | +72 | 10,20 | 2,55 |
| **2010** | 282 | 237 | +45 | 9,98 | 1,59 |

*Iturria: Eustat.*

zuen erakartzeko gaitasuna agortu egin dela esan nahi du, EAEren barneko udalerriei dagokienez, batez ere.

**12. Taula. Durangoko atzerritar biztanleria eta kanpoko migrazio-kitapena**

| | Atzerritar biztanleri portzentaia | Kanpoko migrazio kitapena | Barneko migrazio kitapena |
| --- | --- | --- | --- |
| **2003** | 1,74% | +136 | +165 |
| **2004** | 2,32% | +189 | +78 |
| **2005** | 3,09% | +246 | +71 |
| **2006** | 4,02% | +342 | +88 |
| **2007** | 5,00% | +366 | -10 |
| **2008** | 5,99% | +314 | -11 |
| **2009** | 6,95% | +129 | -34 |
| **2010** | 7,03% | +141 | -15 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritza, Ogasun eta Finantza Saila. Udalmap.*

# JARDUERA EKONOMIKOAREN EGITURA ETA MAILA

| | |
|---|---|
| **Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:** | 8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA<br>9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA |

<table>
<tr><th>AZPI-EREMUA</th><th>DIAGNOSTIKOA</th><th>BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td>Jarduera ekonomikoaren bilakaera</td><td>

- Durangon, 2010 ekitaldiko azken datuen arabera, jarduera ekonomikoko 2.089 establezimendu daude funtzionamenduan, eta horietan 7.556 pertsonek lan egiten dute.

- Establezimenduen bilakaerari dagokionez, establezimenduen kopurua etengabe hazi da 2010 ekitaldira arte. Horixe da, hain zuzen, joera alderantzizkatu eta establezimenduen kopuruak behera egiten duen urtea, krisialdiaren eraginez.

- Enpleguei dagokienez, establezimenduekin batera hazten dira, baina urtebete lehenago, 2009. urtean, joera aldatu egiten da. Hau da, 2009 ekitaldia ekitaldi paradoxikoa da, zentzu horretan, establezimenduen kopurua gehitu egiten baita, baina establezimenduetan lan egiten duten pertsonak gutxitu egiten dira. Egoera horrek egitura murriztuagoa duten jarduera ekonomiko txikiagoen aurrean kokatzen gaitu.

**42. Grafikoa. Establezimendu eta enpleguen zenbatekoaren bilakaera. 2006-2010.**




*Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.*

- Establezimendu berrien sortze-datak udalerriko jarduera ekonomiko berrien altak eta biztanle kopurua lotzen ditu.

- Establezimendu berrien sortze-tasak datu oso positiboak izan ditu Durangon 2005etik 2008ra bitarteko ekitaldietan, biak barne, eta ratioa mila biztanleko 7 establezimendu berrien

</td><td></td></tr>
</table>

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
| --- | --- | --- |
| | gainetik zegoen.<br>o 2009 ekitalditik aurrera, ratioa mila biztanleko 6,5 establezimenduren azpitik dago, eta joera berretsi egiten da 2010eko datuekin.<br><br>**43. Grafikoa. Establezimendu berrien sorrera tasa (biztanleen ‰).**<br><br>*Iturria: Udalmap.* | |
| **Profil ekonomikoa eta sektore-egitura** | o Durangok zerbitzuen sektoreekin lotutako profila du argi eta garbi. Zehazki, 100 establezimendutatik, 84 zerbitzuen sektorekoak dira, 12 eraikuntzaren sektorekoak eta 4 bakarrik industriaren sektorekoak. Udalerriko galdategi batzuen itxierak Durangon sektore industrialak oraindik garrantzia gehiago galtzea eragin du.<br><br>o Zerbitzuen sektorean gehien garatzen den sektorea merkataritza, garraioa eta ostalaritzakoa dela ikus daiteke. Durango eskualdeko herri nagusi bezala, eskualde osoari zerbitzuak eskaintzen dizkion udalerri nagusia da.<br><br>o Eraikuntzaren sektore osoak behera egin badu ere, jarduera ekonomikoaren establezimendu-kopuruan garrantzia handia du. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|

**44. Grafikoa. Establezimenduei dagokienez egitura sektoriala. 2010.**




*Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.*

- Enpresa-egituraren ehunekoak, jarduera adarren arabera kontuan hartuz gero, Durangoko establezimenduen %83,7 zerbitzuen sektorekoak dira, %11,8 eraikuntzaren sektorekoak, eta %4,5 bakarrik industriaren sektorekoak.

**Gráfico 45. Grafikoa. Durangoko enpresa-jardueraren banaketa. 2010.**




*Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.*

- Zehazki, %40 merkataritza, garraioa eta ostalaritzako jarduerari dagokio, ondoren, %16 jarduera profesionalei, eta azkenik %12 eraikuntza-jarduerei dagokie.

- Jarraian, balio erantsi gordinaren sektoreen araberako banaketa aztertzen da, establezimenduak burututako salmenta eta erosketen zenbatekoaren arteko aldea, pertsonal-gastuak eta ustiapeneko soberakin gordina zehazten dituena.

- Aipatutakoaren antzera, establezimenduen kopuruari dagokionez, zerbitzuen sektorea da udalerriari balio erantsi

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | handiena ematen diona, guztira %72,83. | |

- Gainerako sektoreek sektore industrialak eta eraikuntza-sektoreak portzentaje askoz ere txikiagoak dituzte %17,96 eta %9,16 hurrenez hurren. Nekazaritza eta arrantzaren sektoreak lekukotasunezko presentzia baino ez du ia udalerrian.

**46. Grafikoa. Balio erantsi gordina (BEG) sektoreen arabera. 2008.**




*Iturria: Udalmap.*

- Sektore bakoitzeko balio erantsia aztertzen badugu, Durangoko ekonomiaren hirugarren sektoreranzko joera argia ikus daiteke. Beraz, zerbitzuen sektoreak zortzi ekitalditan bere garrantzia erlatiboa %7 gehitu duela egiazta daiteke.

- Industriaren sektorearen garrantzia, aldiz %7 murriztu da, eta nekazaritza eta arrantzaren sektorearena %0,4, hau da, sektore horien garrantzia erlatiboa hirugarren sektorera mugitu da.

- Azkenik, eraikuntzaren sektorea 2005. urteko gorakadaren ondoren, zortzi ekitaldi geroago 2000ko ekitaldian izan zituen antzeko portzentajeetan mantentzen dela adierazi behar da, hots %9 inguruan.

**13. Taula. Balio erantsi gordina (BEG) sektoreen arabera. 2000-2005-2008.**

| | 2000 | 2005 | 2008 |
|---|---|---|---|
| **Lehenengo sektorea** | 0,1 | 0,08 | 0,06 |
| **Industria sektorea** | 24,9 | 17,46 | 17,96 |
| **Eraikuntza sektorea** | 9,2 | 10,3 | 9,16 |
| **Zerbitzuen sektorea** | 65,8 | 72,15 | 72,83 |

*Iturria: Udalmap.*

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|

- Sektoreen araberako enpresen tamainari dagokionez, argi ikusten da, langile gehien dauzkaten erakundeak administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna direla, eta ondoren industriaren sektoreko enpresak, 50 langile baino gehiagoko enpresa kopuru handia baitago sektore horretan.

- Langile gutxien dauzkaten sektoreetan (0 eta 2 langile artean), eraikuntzaren sektorea eta hirigintza-jarduerak nabarmentzen dira.

- Azkenik, finantza-erakunde eta aseguru-erakundeen sektorea aipatu behar dugu 3 eta 5 langile artean dauzkaten enpresa ugari baitituzte.

**47. Grafikoa. Establezimenduen dimentsioaren araberako egitura sektoriala. 2010.**




| | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak | Beste zerbitzu batzuk | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| >=50 | 7 | 0 | 17 | 0 | 24 |
| 20tik 49ra | 3 | 1 | 24 | 1 | 29 |
| 10tik 19ra | 3 | 7 | 30 | 2 | 42 |
| 6tik 9ra | 5 | 7 | 52 | 8 | 72 |
| 3tik 5era | 14 | 29 | 231 | 25 | 299 |
| 0tik 2ra | 62 | 203 | 1216 | 142 | 1623 |

*Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.*

# LEHEN SEKTOREA

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:**

8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA
9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Sektoreak balio erantsian egiten duen ekarpena** | o Nekazaritzaren sektoreak duen garrantzia txikia da, Durangon sortzen den balio erantsi gordinaren %0,06 baino ez da. Lehen sektorea ustiategiaren jabeentzako bigarren mailakoak diren ustiategi txikietan ematen da udalerrian. Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak 16 ustiategi zenbatu ditu, abelburu gutxirekin.<br><br>o Urteko bilakaerari dagokionez,lehen sektoreko jardueran etengabeko bilakaera negatiboa ikus daiteke.<br><br>**48. Grafikoa. Nekazaritza sektoretik sortutako balio erantsi gordinaren %. 2000-2005-2008.**<br><br>*Iturria: Udalmap.* | |
| **Sektoreko kontratazioa** | o Ikus daitekeen bezala, sektore honetako lan-kontratuek sektore honen garrantzi eskasa berresten dute, enplegua, zein establezimenduen kopurua kontuan hartuta.<br><br>o Bilakaerari dagokionez, gorabehera etengabeak daude balio altuenetatik (40 kontratu urtean) balio baxuenetara (20 kontratu urtean).<br><br>o Lehen sektorean, ia denak gizonezkoak dira, ez dago ia emakumerik. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | **49. Grafikoa. Lehen sektoreko lan-kontratuen bilakaera. 2007-2011.**<br><br><br>*Iturria: Lanbide.* | |
| **Sektorean enplegua eskatzen dutenak** | o Durangoko lehen sektorean, krisialdiaren eragina argi ikus daiteke sektore ekonomiko batzuetan. Horrela, sektorean langabeen kopuruaren joera oso negatiboa ikus daiteke. Gorengo maila 2011n lortu zuen, guztira 34 langabeturekin.<br><br>o Langabetu gehienak gizonezkoak dira, beraiek direlako sektorean garrantzi handiena dutenak, baina 2009 ekitaldian emakume langabetuen kopurua ere oso handia da.<br><br>**50. Grafikoa. Lehen sektorean enplegu eskatzaile-kopuruaren bilakaera. 2007 a 2011.**<br><br><br>*Iturria: Lanbide.* |  |

## BIGARREN SEKTOREA

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:** 8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA<br>9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Sektorearen egitura** | o Ikus daitekeen bezala, 2008-2010 hirurtekoan, industria eta energiarekin lotutako establezimenduak gehitu egiten dira Durangon, eta azkeneko ekitaldian 94 jarduera ekonomiko izatera iritsi ziren.<br><br>o Galdategien eremuan jarduera batzuk itxi ostean, azken urteotan sektorearen presentzia berreskuratu egin da udalerrian, 2008ko datuak 2010ekoekin alderatuz gero, sektore honetako establezimenduak %11,9 gehitu dira.<br><br>**51. Grafikoa. Industria eta energia jarduerarekin erlazionaturik dauden establezimenduen bilakaera. 2008-2009-2010.**<br><br>*Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.* | |
| **Sektoreak balio erantsian egiten duen ekarpena** | o Txostenaren atal honetan, aurretik esandakoa egiaztatzen da, 2000-2005 aldian sektoreak balio erantsiari egiten dion ekarpena nabarmen murrizten baita, ehunekoetan adierazita %7,4 hain zuzen ere. Hala ere, datuen bilakaerak 2005etik 2008ra sektoraren hobekuntza arina erakusten du.<br><br>o Laburbilduz, galdaketa-enpresa batzuen itxierak energia eta industriaren sektoreko balio erantsiaren ekarpena nabarmen murriztu zuela esan daiteke, eta egokitze-prozesuaren ostean pixkanaka haziz badoa ere, ez dela 2000. urtean lortutako balioetara heldu. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | **52. Grafikoa. Industria eta energia sektoretik sortutako balio erantsi gordinaren %. 2000-2005-2008.**<br><br><br>*Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.* | |
| **Sektoreko kontratazioa** | o Krisialdi ekonomikoak eragin argia izan du kontratuen murrizketan, argi ikus daiteke 2007an gauzatu ziren kontratuen kopurua eta azken ekitaldietan hitzartu direnak alderatuz gero. 2007 ekitaldian kontratuen-kopurua 500 kontratu baino gehiakoa bazen ere, azken bi ekitaldietan kopurua 360 kontratu ingururukoa da urteko. Nabarmendu beharra dago, 2009an 175 kontratu bakarrik sinatu zirela sektore honetan.<br><br>o Sexuen araberako ezberdintasunei dagokienez, gehienak gizonak dira, sektoreko kontratuen 3tik 2 gizonek sinatu dituzte. Dena den, ez da alde batera itzi behar bigarren sektorean kontratatutako emakumeen kopuru handia, azken ekitaldietan emakumeek sinatutako kontratu-kopurua ehun kontratukoa izan baita.<br><br>**53. Grafikoa. Industria eta energia sektoreko lan-kontratuen bilakaera. 2007-2011.**<br><br><br>*Iturria: Lanbide.* |  |

<table>
<tr><th>AZPI-EREMUA</th><th>DIAGNOSTIKOA</th><th>BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Sektorean enplegua eskatzen dutenak</td><td>
o Energia eta industriaren sektoreko langabeziak 2009. urtean izan zuen baliorik handiena Durangon, guztira 600 langabeturekin hain zuzen ere, 2007ko eskatzaileen hirukoitza. Zehazki, azpimarratzekoa da 2007 ekitaldiko datua, krisialdiaren aurreko ekitaldi horretan 204 langabetu bakarrik zenbatzen dira.<br><br>
o Azken ekitaldietan, enplegu eskatzaileen etengabeko murrizketa ikus daiteke sektorean, 450 eskatzailetan egonkortu baita.<br><br>
o Sexuen araberako enplegu-eskaerari dagokionez, sektore honetan gizonak nagusi direla egiaztatzen da, eta horregatik gizon langabetu gehiago daude emakumeak baino.<br><br>
54. Grafikoa. Industria eta energia sektorean enplegu eskatzaile-kopuruaren bilakaera.<br>

<br>
Iturria: Lanbide.
</td><td></td></tr>
</table>

# ERAIKUNTZAREN SEKTOREA

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:** 8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA<br>9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Sektorearen egitura** | o Grafikoan, eraikuntza-sektorearen hazkunde mailakatua ikus daiteke 2000-2009 aldian, eta ehunekoetan adierazita hazkundea %71,4koa izan zen. Krisialdi ekonomikoaren lehenengo urteetan establezimenduen kopurua gehitu egin zela nabarmendu behar da, beraz ez dirudi sektore honetan krisialdiak bereziki eraginik izan duenik Durangon.<br><br>**55. Grafikoa. Eraikuntza-sektoreko establezimenduak. (2000-2009).**<br><br>*Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.* | |
| **Sektoreak balio erantsian egiten duen ekarpena** | o Eraikuntza-sektorearen balio erantsi gordinak garrantzi pixka bat du udalerriaren jarduera ekonomikoen barnean, baina industria eta energiaren azpitik nabarmen.<br><br>o Datuen bilakaera aztertzerakoan, 2005 ekitaldiko hazkunde garrantzitsuaren ostean, 2008 ekitaldiko balioak 2000 ekitaldikoaren antzekoak dira. Egoera horrek eraikuntzaren sektorearen hazkundea Durangon ez zela beste udalerrietakoa bezain garrantzitsua izan pentsarazten du, eta garrantzi txikia izan zuenez sektorea lehenago egokitu ahal izan da. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | **56. Grafikoa. Eraikuntza-sektoretik sortutako balio erantsi gordinaren %. 2000-2005-2008.**<br><br><br>*Iturria: Udalmap.* | |
| **Sektoreko kontratazioa** | o Duangon eraikuntzaren sektorean gauzatutako kontratu-kopuruaren joera beheranzkoa da aztertutako ekitaldietan argi eta garbi, eta gehiengo kopurua 2010 ekitaldian izan zuen, sinatutako 301 kontraturekin bakarrik. 2011 ekitaldian berreskurapen txikia ikusten da, 370 kontratu gauzatu baitziren, baina ez zen lortu 2007an gauzatu ziren 500 kontratuak sinatzerik.<br><br>o Sexuen araberako kontratuei dagokienez, emakumeek sinatutako kontratuen kopurua eskasa da, lehen sektorean aipatutakoaren antzera. Azken ekitaldiko alderdi azpimarragarria aipatu beharra dago: emakumeen kontratuak behera egiten dute, baina gizonezkoenak gorantza doaz.<br><br>**57. Grafikoa. Eraikuntza-sektoreko lan-kontratuen bilakaera. 2007 a 2011.**<br><br><br>*Iturria: Lanbide.* | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Sektorean enplegua eskatzen dutenak** | o Industria eta energiaren sektorean aipatutakoa ez bezala, izan ere langabezia murriztu egin baita azken ekitaldietan, eraikuntzaren sektorean goranzko joera argia dago eta gorengo maila 2010ean izan zen, hurrengo ekitaldian 115 enplegu eskatzailerekin egonkortu bazen ere.<br><br>o Sexuen araberako azterketan, adierazi beharra dago gizonen sektorea dela erabat, emakumearen presentzia ez baita ohikoa. Errealitate hori sektoreko enplegu-eskatzaileen kopuruan ikus daiteke, enplegu eslatzaileen %95 gizonezkoak baitira.<br><br>**58. Grafikoa. Eraikuntza-sektorean enplegu eskatzaile-kopuruaren bilakaera.**<br><br>*Iturria: Lanbide.* | |

## HIRUGARREN SEKTOREA

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:**

8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA
9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Sektorearen egitura** | o Zerbitzuen sektoreko establezimenduak Durangon, goranzko joera nabarmena dute, eta bere balio gorena aztertutako azken ekitaldian izan zuen, 2009an, 1.800 establezimendu gaindituz.<br><br>o Urteko bilakaera aztertzen badugu, urtez urte bilakaera positiboa dela ikusten da, sektorearen jardueran hondatze-jardunik gertatu gabe. 2000 ekitaldiko eta 2009ko azken datuak kontuan hartzen baditugu, zerbitzuen sektoreko establezimendu-kopuruaren hazkundea, ehunekotan %36,5ekoa izan da.<br><br>**59. Grafikoa. Zerbitzuen sektoreko establezimenduak. 2000-2009.**<br><br><br>*Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.*<br><br>o Zerbitzuen sektorean garrantzi berezia du merkataritzak, 586 establezimendurekin eta %32,3ko garrantzia erlatiboa sektore osoari dagokionez. Bigarren lekuan, garrantziari dagokionez, enpresentzako finantza-bitartekaritza eta zerbitzuen establezimenduak daude eta beren garrantzia erlatiboa %29,5ekoa da sektorean.<br><br>o Gainerako zerbitzuek garrantzia txikiagoa dute, zehazki ostalaritza 154 establezimendu, eta %8,5eko garrantzia erlatiboarekin, eta garraioa 137 establezimendu eta %7,6ko garrantzia erlatiboarekin. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | **60. Grafikoa. Hirugarren sektoreko jarduera adar nagusiak. 2009.**<br><br><br>*Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.* | |
| **Sektoreak balio erantsian egiten duen ekarpena** | o Zerbitzuen sektoreak 2008ko ekitaldian %72,8ko balio erantsia ematen dio Durangori, 2000 ekitaldian zuen garrantzia erlatiboa baino %7 gehiago. Horrek argi erakusten du Durangoko ekonomiak duen hirugarren sektoreranzko joera.<br><br>o Aztertutako aldietan hazkunde positiboak gertatzen dira, baina 2005-2008 aldiko hazkundea %0,7koa bakarrik izan zen, eta beraz, hainbat sektorek Durangoko balio erantsi gordinari egin dioten ekarpena egonkortu egin da.<br><br>**61. Grafikoa. Zerbitzuen sektoretik sortutako balio erantsi gordinaren %. 2000-2005-2008.**<br><br><br>*Iturria: Udalmap.* | |
| **Sektoreko kontratazioa** | o Txosten honetan zehar, enpleguan krisialdi ekonomikoa izaten ari den eragin izugarria agerian jartzen da, eta zerbitzuen sektorea da eragin handiena ikus daitekeen sektorea. Beraz, 2007 ekitaldian gauzatutako kontratu-kopuruen guztizkoa 14.600 kontratukoa izan da, eta 2009 ekitaldian, aldiz, kopuru hori 3.600 kontratura murrizten da. Ekitaldi bat eta bestearen aldea, beraz, 11.000 kontratukoa da. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | o Azken bi ekitaldietan, sektore honetako kontratuen kopurua egonkortu egin dela dirudi, 4.400 eta 5.000 kontratuen artean.. Kontratuen kopuru horrek sektore honek Durangoko enpleguan eta jarduera ekonomiko guztientzako duen garrantzia islatzen du.<br><br>o Sexuen araberako datuen azterketari buruz, emakumeek sinatutako kontratuen kopurua gizonek firmatutakoa baino askoz handiagoa da. Dena den, esan beharra dago, 2007 ekitaldian alderantzizkoa gertatzen zela, gizonek emakumeek baino kontratu gehiago sinatu zituzten, baina joera hori 2008tik aurrera alderantzizkatzen da eta ezagutzen den 2011ko azken datura arte horrela irauten du.<br><br>**62. Grafikoa. Hirugarren sektoreko lan-kontratuen bilakaera. 2007-2011.**<br><br><br>*Iturria: Udalmap.* | |
| **Sektorean enplegua eskatzen dutenak** | o Sektoreko enplegu-hondatzearen ildo berberean, zerbitzuen sektoreko enplegu-eskatzaileen kopuruaren hazkundea kokatu behar da, eta adierazgarririk gorena 2011 ekitaldian enplegua eskatzen duten 845 pertsonen kopurua da.<br><br>o Ekitaldi guztietan beheranzko joera du, beraz aztertutako urte guztietan enplegu-eskatzaileak gehitu egiten dira, baina jauzi garrantzitsuena 2008an gertatzen da, eta hurrengo urteetan etengabe hazi da.<br><br>o Sexuen araberako enplegu-eskaerari dagokionez, eta sektore honetan emakumeak daukan garrantzia kontuan hartuta, emakumeek eskatzen dute enplegua gehienbat, 500 emakumek eskatzen dute enplegua sektore honetan. Hala ere, gizonezko enplegu-eskatzaileen poltsa garrantzitsua dago, gizonezko eskatzaileak 350 baino gehiago baitira. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | **63. Grafikoa. Zerbitzu sektorean enplegu eskatzaile-kopuruaren bilakaera. 2007-2011.**<br><br><br>*Iturria: Lanbide.* | |
| **Merkataritza** | o Durangok kopuru esanguratsua du mila biztanleko merkataritza-establezimenduen ratioan, ekitaldi guztietan 15 establezimendu baino gehiago.<br><br>o Ikus daitekeen bezala, ez dago gorabehera handirik, ez merkataritza-establezimenduen kopuruan, ez merkataritza-azalerari dagokionez. Merkataritza-azalera ia metro eta erdiko azaleran dago mila biztanleko.<br><br>**64. Grafikoa. Merkataritza txikiaren-dentsitatearen bilakaera (biztanleen ‰) eta merkataritza-azalera (m2/ 1000 biztanleko).**<br><br><br>*Iturria: Udalmap.*<br><br>o 2009ko abuztuan Durangoko Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia aurkeztu zen. Planak sei ildo estrategiko edo laneko ildoren garapena proposatzen du:<br>- Durangoko dendari eta profesionalak zerbitzuen sektorearen dinamizazio-tresna gisa laguntzeko. | |

<table>
<tr><th>AZPI-EREMUA</th><th>DIAGNOSTIKOA</th><th>BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td></td><td>
- Hirigunearen ahalmena/erakargarritasuna indartzea, familiako aisialdiaren eremuan tren-makina berriak diseinatu eta ezarpena erraztuz.<br>
- Merkataritza-sektorea eta zerbitzuen sektorea kokatzen den lekuetako hiri-espazio eta hiri-azpiegiturak hobetzea.<br>
- Udal-eremutik, merkataritza-establezimenduen berreskurapena/berritzea ekarriko duten obren (berritzeak) gauzapena erraztu eta sustatzea.<br>
- Duranko merkataritzako, zerbitzuetako eta aisialdiko gune bezala proiektatzea, komunikazio-ekintzen bidez.<br>
- PERCO mahaia proposatutako ekintzak abian jarri eta jarraitzeaz arduratuko den laneko foro gisa erabiltzea.<br>
- Ahaleginak elkarte bakar batean jartzea.
</td><td></td></tr>
<tr><td>Ostalaritza eta sukaldaritzako azpi-sektorea</td><td>
o Durangok, eskualdeko herri nagusi gisa, ostalaritza eta sukaldaritzako establezimendu ugari ditu, eta mila biztanleko 5,6 establezimendu daude udalerrian.<br><br>
o Bilakaerari dagokionez, 2007tik gorazko joera nabarmena dago 2010 azken ekitaldira arte, beherakada-prozesu arin baten ostean 2003tik 2007ra.<br><br>
65. Grafikoa. Ostalaritza eta sukaldaritzako establezimenduen dentsitatearen bilakaera. (biztanleen ‰).<br>

<br>
Iturria: Udalmap.
</td><td></td></tr>
<tr><td>Azpi-sektore turistikoa</td><td>
o Durangoko sektore turistikoak garatzeko gaitasun handia du, egun, sustapen turistikoak funtsean, hiriburu bietan eta Euskadiko kostaldeko eremuetan jartzen baitu arreta.<br><br>
o Kontsulta-kopuruen hazkunde handia dago eta azken 5 urteetan urteen arteko batez bestekoa %30 hazi da; nabarmendu behar da, 2008tik 2009ra kontsulten kopurua bikoiztu egin zela (7.676 kontsultatik 13.574 kontsultara) turismo-bulegoa lekuz aldatu eta Lariz Dorrean (alde zaharra) jarri zutelako. Halaber, 2010 eta 2011 urteetan zehar, hazten
</td><td></td></tr>
</table>

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | jarraitzen du, baina 2009an baino irmotasun gutxiagorekin.<br><br>**66. Grafikoa. Turismo bulegoan egindako kontsulten zenbatekoa.**<br><br><br>*Iturria: Durangoko Turismo Bulegoa.*<br><br>o Ostatu hartzeko lekuen kopuruari dagokionez, azken bi urteetan mantendu bada ere, pixka bat jaitsi dela ikus daiteke, udalerriko biztanleriari dagokionez, honako datu hauek erakusten duten bezala:<br><br>o Durangok lau hotel-establezimendu ditu:<br>- Gran Hotel Durango: 69 gela.<br>- Kuruztiaga Hotela: 18 gela.<br>- Ocamiño Hotela: 19 gela.<br>- Errota Ostatua: 9 gela.<br><br>**67. Grafikoa. Turismo-ostatu plazak (biztanleen %).**<br><br><br>*Iturria: Udalmap.* | |

# - LAN-MERKATUA:

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:**

8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA
9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Gizarte Segurantzako afiliazioak** | o Afiliazio-tasak goranzko joera du aztertutako bi ekitaldietan, eta azken ekitaldian 16 urteko biztanleriaren ia erdia zegoen Gizarte Segurantzan afiliatuta.<br><br>o Bizkaia osoarekin alderatuz gero, Durangoko Gizarte Segurantzako afiliazio-tasa %5 handiagoa da, Bizkaiko tasak %50 baino txikiagoak baitira.<br><br>o Gainera, aipatu beharra dago, lurralde bietako joeren artean alde handia dagoela, Durangoko afiliazio-tasan goranzko joera baitago, eta Bizkaiko lurraldean, ordea, beheranzko joera dago, txikia bada ere.<br><br>**68. Grafikoa. Durango eta Bizkaiko gizarte-segurantzarako afiliazio tasa. 2009-2010.**<br><br>*Iturria: Udalmap.* | |
| **Kontratazioa** | o Zerbitzuen sektorea da 2011n kontratu gehien sortu dituen sektore ekonomikoa, hurrengo sektoreen, industria eta eraikuntzaren sektoreen, oso gainetik. Zehazki, kontratuen %85 zerbitzuen sektorekoak dira, eta industria eta eraikuntzaren sektoreko kontratuak, aldiz, %7 baino ez dira kasu bietan. Azkenik, lehen sektorean kontratuen %0,4 baino ez daude. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|

- Adinaren arabera, 25 eta 24 urte bitarteko tartean sinatzen diren kontratuak %37 dira, eta 35 eta 44 urte bitartean sinatzen direnak %28. Gainerako adin-tarteak aipatutako bi tarteetatik urrun daude.

- Generoaren arabera, 2011 ekitaldian sinatutako kontratu gehienak emakumeek sinatu zituzten, %54, gizonek sinatutakoek baino, %46, zortzi puntu gehiago.

- Funtsean, Durangon 2011n kontratua sinatzen duen pertsonaren profila zerbitzuen sektorean lan egiten duen 25 eta 34 urte arte bitarteko emakumearena dela esan daiteke.

**14. Taula. Sektore, adin eta generoaren araberako kontratuak Durangon. 2011.**

| | 16 a 24 | | 25 a 34 | | 35 a 44 | | 45 a 54 | | 55 a 64 | | 65 eta > | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **E** | **G** | **E** | **G** | **E** | **G** | **E** | **G** | **E** | **G** | **E** | **G** |
| **Lehenengo sektorea** | 1 | 0 | 14 | 0 | 5 | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| **Industria** | 40 | 13 | 60 | 36 | 96 | 33 | 43 | 19 | 26 | 1 | 1 | 0 |
| **Eraikuntza** | 32 | 0 | 122 | 6 | 110 | 1 | 74 | 0 | 25 | 0 | 0 | 0 |
| **Zerbitzuak** | 367 | 437 | 625 | 1021 | 568 | 641 | 140 | 491 | 22 | 88 | 2 | 2 |

*Iturria: Lanbide.*

- Lan-kontratu mugagabeen bilakaera negatiboa Durangon, egungo krisialdi ekonomikoaren isla argia da. Beraz, 2007 ekitaldian lan-kontratu mugagabeen kopurua 601koa bazen ere, azken bi ekitaldietan kontratu-mota horien kopurua 360-380 kontratu ingurukoa zen urteko.

- Aldi baterako lan-kontratuen joera ere antzekoa da, eta joera negatiboa badu ere, 2010 ekitaldian pixka bat errekuperatu ziren, 2011n berriro ere beherantz egiteko, bost mila kontratu baino gutxiagorekin.

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | **69. Grafikoa. Mugagabe eta aldi baterako kontratuen bilakaera. 2007-2011.**   *Iturria: Lanbide.*<br>o 2011 ekitaldian, aldi baterako kontratuen kopurua, kontratu guztien %93koa da, eta sinatutako lan-kontratu mugagabeen kopurua, berriz %7koa. Hau da, 2011n sinatu ziren 10 kontratuetatik 9 aldi baterako lan-kontratuak dira, eta 1 bakarrik mugagabea.<br>o Adin-tarteen arabera aztertuz gero, kontratu gehien sinatzen diren adin-tartea 25-34 urteen tartea da, 1.848 lan-kontratu, hain zuzen ere, kontratu guztien %37. 148 mugagabeak eta 1.736 aldi baterakoak. Hurrengo adin-tarte garrantzitsuena 35 eta 44 urte artekoa da. Tarte horretan 1.454 kontratu sinatzen dira, kontratu guztien %28, 95 mugagabeak eta 1.359 aldi baterakoak.<br>o Sinatzaileen generoari dagokionez, emakumeek sinatutako kontratuak 2.790 izan ziren, kontratuen %54, 199 mugagabeak eta 2.591 aldi baterakoak. Datu hori gizonezkoek sinatutako kontratu-kopuruen gainetik dago, gizonezkoek 2.374 sinatu baitzituzten, kontratuen %46, 164 mugagabeak eta 2.210 aldi baterakoak.<br>o Laburbilduz, Durangon 2011n sinatutako kontratu-motaren profila 25 eta 24 urte bitarteko emakumeak sinatutako aldi baterako kontratuarena da.<br>o 2007-2011 aldian kontratu mugagabeak %45 murriztu ziren, eta Durangon sinatutako aldi baterako kontratuak, aldiz, %61.<br>o Adin-tarteen arabera aztertuz gero, 16-24 urte bitarteko | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|

pertsonek sinatutako aldi baterako kontratuak gutxitu ziren batik bat, %81,4 murriztu ziren, eta ondoren, kontratu mugagabeak %79,4 murriztu ziren.

- Hau da, krisialdi ekonomikoak eragin handiagoa izan du gazteek sinatutako aldi baterako kontratuen kopuruan eta 55 urtetik gorako pertsonek sinatutako kontratu mugagabeetan.

**15. Taula. Mugagabe eta aldi baterako kontratuen bilakaera adinaren arabera. 2007-2011.**

| | 16 -24 | | 25 -34 | | 35 - 44 | | 45 - 54 | | 55 - 64 | | 65 edo > | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Mug. | Ald. | Mug. | Ald. | Mug. | Ald. | Mug. | Ald. | Mug. | Ald. | Mug. | Ald. |
| 2007 | Mug. | 4480 | 251 | 5881 | 135 | 3314 | 73 | 1163 | 34 | 342 | 0 | 1 |
| 2008 | Mug. | 1367 | 168 | 1871 | 117 | 1367 | 62 | 828 | 21 | 180 | 1 | 3 |
| 2009 | Mug. | 849 | 144 | 1377 | 85 | 1024 | 58 | 533 | 16 | 122 | 0 | 2 |
| 2010 | Mug. | 969 | 165 | 1913 | 98 | 1516 | 50 | 759 | 10 | 174 | 1 | 3 |
| 2011 | Mug. | 835 | 148 | 1736 | 95 | 1359 | 56 | 712 | 7 | 156 | 2 | 3 |

*Iturria: Lanbide.*

- Oro har, 2007an gizonezkoek 8.533 kontratu sinatu zituzten, eta 2011n 2.374 kontratu, hots sinatutako lan-kontratuak %72,2 murriztu ziren. Hala ere, emakumeek sinatutako kontratuak ez dira hainbeste murriztu 2007an 7.249 kontratu sinatu baitzituzten, eta 2011n 2.790, hots, %61,5 gutxiago.

**16. Taula. Mugagabe eta aldi baterako, adin eta genero kontratuen desberdintasuna.**

| | 16 - 24 | | 25 - 34 | | 35 - 44 | | 45 - 54 | | 55 - 64 | | 65 edo > | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | G | E | G | E | G | E | G | E | G | E |
| Mugagabeak | 30 | 25 | 62 | 86 | 45 | 50 | 22 | 34 | 3 | 4 | 2 | 0 |
| Aldibaterakoak | 410 | 425 | 759 | 977 | 734 | 625 | 236 | 476 | 70 | 86 | 1 | 2 |

*Iturria: Lanbide.*

- Kontratu-motaren arabera, aldi baterako kontratuentzako aurreko eskema errepikatzen da, emakumeentzako %62,5 murrizten baita, eta gizonezkoentzako %73,3. Dena den, mugagabeko lan-kontratuen datuei dagokienez, joera alderantzizkoa da, gizonentzako %37,9 murrizten baita, eta emakumeentzako berriz, pixka bat gehiago, % 40,9 murrizten da.

- Laburbilduz, aldi baterako lan-kontratuen murrizketak eragin gehiago du gizonezkoengan, eta kontratu mugagabeen murrizketak gehiago eragiten du emakumeengan.

**Enpleguaren eskaera**

- Lurralde bakoitzeko langabezia eta langabetuen kopuruen portzentajea alderatuz gero, Durangon, zerbitzuen sektoreko langabezia-portzentajea %54,7koa da, Bizkaian sektore horretan dagoen langabezia-portzentajea, %60, baino txikiagoa eta Euskal Autonomia Erkidego osoko portzentajea, %60,7

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|

baino txikiagoa. Hala ere, sektore industrialeko langabezia-tasa, Durangon askoz handiagoa da, %28,6, Bizkaikoarekin eta EAEkoarekin alderatuz gero, %14,3 eta %16,1 hurrenez hurren.

- Enplegua eskatzen duten emakumeak 767 dira, hots, eskatzaile guztien %49,6, gizonezkoen langabezia baino handiagoa da, lan bila dabiltzan gizonezkoak 779 baitira, eskatzaile guztien %50,4, hain zuzen ere.

- Bi aldagai horiek gurutzatuz gero, langabetu guztien arteko langabezia-portzentaje handiena emakumeen artekoa eta zerbitzuen sektorekoa dela egiazta daiteke, langabezian dauden emakumeen kopurua zerbitzuen sektorean 491koa baita, %63 portzentajea kontuan hartuta. Bizkaian, eta EAE osoan, portzentaje hori handiagoa da, bietan %73ra heltzen baita.

- Durangoko langabetuaren profila zerbitzuen sektorean lan bila dabilen emakumearena da.

**17. Taula. 2011ko enplegu eskatzaileak sektore jardueraren arabera.**

| | Durango | | | Durangaldea | | | Bizkaia | | | E.A.E. | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | **Guztira** | G | E | **Guztira** | G | E | **Guztira** | G | E | **Guztira** |
| Lehenengoa | 3,26% | 1,16% | **2,20%** | 2,42% | 0,48% | **1,41%** | 2,31% | 1,11% | **1,71%** | 2,33% | 0,97% | **1,64%** |
| Eraikuntza | 13,69% | 1,16% | **7,37%** | 15,13% | 1,22% | **7,87%** | 25,21% | 2,49% | **13,83%** | 23,04% | 2,41% | **12,52%** |
| Industria | 32,07% | 25,29% | **28,65%** | 35,89% | 27,62% | **31,58%** | 18,63% | 9,96% | **14,28%** | 20,57% | 11,72% | **16,06%** |
| Zerbitzuak | 46,15% | 63,03% | **54,66%** | 41,77% | 62,37% | **52,52%** | 46,56% | 73,37% | **59,99%** | 47,46% | 73,42% | **60,70%** |
| Aurreko lanik gabe | 4,82% | 9,37% | **7,12%** | 4,79% | 8,31% | **6,62%** | 7,30% | 13,07% | **10,19%** | 6,60% | 11,49% | **9,09%** |

*Iturria: Lanbide.*

- Langabezian egondako egunen batez bestekoaren bilakaera, hasiera batean bilakaera ekonomiko orokorrarekin bat ez datorrela dirudi Durangon, eta langabeziaren batez besteko denbora murriztearen arrazoia sisteman langabetu berriak sartzea izango litzateke. Zentzu horretan, 2008an langabezian egondako denbora murriztu egin zela uler daiteke, eta une horretatik aurrera, gaur egunera arte irauten duen goranzko joera izango du.

- Esanguratsuena, adierazle hori sexuaren arabera aztertzea da, Durangon langabeziako egonaldiaren batez besteko iraupena bikotza baita emakumeentzako, ia 500 egun, eta gizonentzako, aldiz 301 egunekoa da egonaldia.

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | **70. Grafikoa. 2007-2011 urteen eguneko langabezi batez besteko bilakaera Durangon.**<br><br>*Iturria: Lanbide.*<br>o Adinaren araberako langabeziako batez besteko egonaldiari dagokionez, langabetuak zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta egonaldi luzeagoa egingo du langabezian, beraz langabezian denbora gehien egiten duten pertsonak 55 urtetik gorakoak dira.<br>o Generoaren araberako azterketan, adin guztietan emakumeek langabezian ematen duten denbora luzeagoa da, gizonek langabezian ematen duten denbora baino, bereziki 65 urtetik gorako pertsonek.<br>o Esan beharra dago, amaitzeko, 16 eta 24 urte bitartean, ostera, gizonezkoen langabeziako denboraldia luzeagoa dela emakumeena baino.<br>**71. Grafikoa. 2011n langabezi egunen batez besteko bilakaera adinaren arabera.**<br><br>*Iturria: Lanbide.* | |

| LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK |
|---|
| **DURANGO** |
| o Durangoko Merkataritza Biziberritzeko Plana(2009). |
| **UDALAZ GAINEKO MAILA** |
| o Durangoko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Plana (2008).<br>o Bizkaiko Foru Aldundiaren Enpresa Berriak Sustatzeko Plana.<br>o Bizkaiko Foru Aldundiaren ETE-ei eta Autónomoei Bultzada berria Emateko Plana.<br>o Bizkaiko Foru Aldundiaren Gazteen Enplegurako Plana.<br>o Bizkaiko Foru Aldundiaren Azpiegituren Plana.<br>o Bizkaiko Foru Aldundiaren Turismoaren Industria Sustatzeko Plana.<br>o 7/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Merkataritza Jardueraren Legea bigarrenez aldatzen duena.<br>o 16/2008 Legea, abenduaren 23koa, Turismoaren Antolaketa Legea aldatzen duena.<br>o EAEko Merkataritza Ekipamenduen Sektorekako Lurralde Plana..<br>o Euskal Enplegu Estrategia 2011-2014.<br>o EAEko Enpresa Lehiakortasuneko Plana 2010-2013.<br>o Europako Gizarte Funtsaren Euskadi 2007-2013 Programa Operatiboa. |

| PLAN DE ACCIÓN LOCAL ANTERIOR |
|---|
| **LÍNEAS ESTRATÉGICAS, PROGRAMAS Y ACCIONES VINCULADAS** |
| **LE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA**<br>**P 1.1. Nekazaritza ekologikoa bultzatzeko programa**<br>1.1.1. Nekazaritza ekologikoa indartzea.<br>1.1.2. Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikorako ustiapenak ezarri nahi dituztenei erraztasunak eskaintzea eta ekimen horiek bultzatzea.<br>1.1.3. Basoen ustiapen iraunkorra bultzatu.<br>**P 1.2. Udalerriko dibertsifikazio industriala bultzatzeko programa**<br>1.2.1. Industriaren egoera hobetzeko eskualdeko hausnarketa estrategikotik datozen ekintzak udalerrian abiaraztea.<br>1.2.2. Energia berriztagarriez arituko diren enpresen instalazioa bultzatu.<br>1.2.3. Birziklapenaz arituko diren enpresen instalazioa bultzatu.<br>1.2.4. Udalerrian artisauen industriak bultzatu. |

# GIZARTE ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA

| **Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:** | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA<br>9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA |
|---|---|

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Gizarte Ekintza Saila** | o Durangoko udalerriak gizarte-ongizate eta gizarteratzeko hainbat zerbitzu ditu herritarrentzako. Gizarte Ekintza Saileko arduradunaz gain, Udalak berdintasun eta inmigrazioko teknikariak ditu. Halaber, droga-mendetasunaren eremua Mankomunitatetik kudeatzen da eta gizarteratzeko programak Lanbidetik bertatik kudeatuko dira.<br><br>o Azpiegiturei dagokienez, Udaleko Gizarte Ekintza Sailetik gizarte-zerbitzuen azpiegituren kokapena eta baldintzak eskasak direla zehazten da, gainera ez daude zentralizatuta.<br><br>o 2011n gizarte-saileko gastu korrontea %9,09koa izan zen, behin betiko gastu korronte osoarekin alderatuta. | |
| **Gizarte-laguntza** | o Pobrezia-maila: gizarte-laguntzak jasotzen dituzten pertsonen datuek krisialdiak udalerrian duen eragina agerian uzten dute. 2011n 239 eskaera egin ziren, gizarte-larrialdietarako laguntzak eskatzeko. Guztira, 171 elkarbizitzako unitate ekonomiko independente (EUEI). Aurreko urtean, 205 eskaera egin ziren, eta 175 EUEI. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) eskaerek bilakaera berbera izan dute, guztira 170 erregistratu ziren 2011n, 2010ean baino bat gutxiago. 2009an, udalerriko familien %2,5ek Oinarrizko Errenta jasotzen zuten (lehengo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta).<br><br>**72. Grafikoa. Pobrezi-maila – Gizarte-larrialdietako laguntzak (GLL) eta Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE).**<br><br>*Iturria: Durangoko Udala.* | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | | |
| **Pertsona nagusiak** | o Durangon, 65 urtetik gorako pertsonak biztanleria osoaren %16,7 dira, Bizkaikoa baino portzentaje txikiagoa, Bizkaian 65 urtetik gorako pertsonak biztanleria osoaren %20 baino pixka bat gehiago dira.<br><br>o Dauzkagun azkeneko datuek 2011ko abenduaren 31n 72 laguntza zeuden erregistratuta Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) jasotzeko. Azken urte horretan, 9 kasuri egin zitzaien alta eta 17ri baja. Beraz, 2007. urtetik, zerbitzu hori jasotzen zuten pertsonen kopurua urtetik urtera murriztuz joan da, 99 izan baitziren urte horretan erregistratutako kasuak. | |

**18. Taula. Etxez-etxeko laguntza zerbitzua.**

| . | ELZ 31.12 | ALTAK ELZ | BAJAK ELZ |
|---|---|---|---|
| 2007 | 99 | 25 | 24 |
| 2008 | 95 | 19 | 28 |
| 2009 | 90 | 17 | 20 |
| 2010 | 80 | 19 | 28 |
| 2011 | 72 | 9 | 17 |

*Iturria: Durangoko Udala.*

o Pertsona nagusientzako zerbitzu eta ekipamenduen zorroa oso handia da udalerrian.

o Egoitza-ekipamendu/eguneko zentroei dagokienez, Durangok honako baliabide hauek ditu:
- Barandiaran Egoitza: foru-titulartasuna du eta mendekotasuna duten pertsonentzako da. Guztira 113 leku ditu, eta 35 leku eguneko egoitzan.
- Tabira Egoitza: titulartasun pribatua du, mendekotasuna duten pertsonentzako, zein pertsona independenteentzako da. Guztira 18 leku ditu, eta 14 leku eguneko egoitzan.
- Astarloa Egoitza: zentro pribatua mendekotasuna duten pertsonentzako, zein pertsona autonomoentzako, Bizkaiko Foru Aldundiarekin itundutako lekuekin. 45 leku ditu.
- Udaleko gizarte-zentroa pertsona nagusientzako.

o Bestalde, Udalak zahartze aktiborako programa abian jarri du. Programak hainbat jarduera barne hartzen ditu. 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetan, guztira, 1.296 eta 941 pertsonak parte hartu dute hurrenez hurren (eguneko 130-150 pertsona dituen dantzazdantza programa kontuan hartu gabe). Hauek

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
| --- | --- | --- |
| | azpimarratu behar dira:<br>- Urtebeteko eta sei hilabeteko ikastaroak: hauek dira ikastaroak: psikomotrizitatea, memoria suspertzeko ikastaroa, irakurmen eta idazmeneko ikastaroa, euskara ikastaroa, antzerki tailerra eta jolas literarioei buruzko tailerra, aretoko dantza ikastaroak, mikrogimnasia antialgikoa eta ongizate emozionalerako tailerra.<br>- Ikastaro laburrak: era askotako ikastaro laburrak daude.<br>- Beste jarduera batzuk: ibilaldi eta ekitaldiez gain, boluntariotza sozialeko ekimenak, jardunaldiak, eta podologia, eguneroko prentsa-zerbitzua, kafetegia eta jolasen aretoa eta sasoian jartzea bezalako jarduerak barne hartzen dira. Boluntariotza sozialeko programari dagokionez, 17 eta 16 pertsonak parte hartu dute hurrenez hurren.<br>- Emakume nagusientzako berdintasun-saileko ikastaroak.<br>- Pertsona nagusientzako Durango Kirolak-eko kirol-jarduerak.<br><br>o Halaber, programa hauek nabarmendu behar dira:<br>- Autonomia pertsonala mantentzeko programak arreta psikosozialeko tailerrak barne hartzen ditu.<br>- Esperientzia Institutua (DEI): Merinaldearen Amankomunazgoaren lankidetzarekin garatzen da ekimen hau eta bere helburua 55 urtetik gorako pertsonek gizartean parte hartzea da.<br>- Zaindu programa: Durangoko Udalak eta Amankomunazgoak sustatutakoa, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzarekin elkarlanean. Programak informazio, prestakuntza, orientazio eta aholkularitzako zerbitzua eskaintzen die mendekotasuna duten pertsonen familiei. Mendekotasuna duten pertsona nagusiak zaintzeko eta norbere burua zaintzeko prestakuntza eskaintzen du, hainbat ekimenen bidez. | |
| **Desgaitasuna duten pertsonak** | o Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzu eta ekipamenduen artean, arreta okupazionalerako zentroa dago, hitzarmen itunduaren bidez kudeatutakoa (lehenago Udalaren eskumenekoa zen, eta elkarte batek kudeatzen zuen). Zerbitzu hau adimen-desgaitasuna daukaten 18 urtetik gorako pertsonentzako da, baina udalerrian dagoeneko Bizkaiko Foru Aldundiak aurreikusita daukan eguneko zentroa eraikiko da.<br><br>o Alde batetik, Udalak, kirol-estimulazioarako bere programa kudeatzen du, adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | o Talde honentzako gainerako jarduerak udalerriko elkarte bakoitzari emandako diru-laguntza eta hitzarmenen bidez garatzen dira:<br>- Geube: Durangon kokatutako eskualdeko elkartea da, eta jarduera astialdi eta aisialdiaren eremuan garatzen du. Jardueretarako diru-laguntzak jasotzen ditu, baina elkarteko kideengandik ere diru-sarrerak jasotzen ditu. Gizarte Ekintza Sailarekin estu lan egiten du.<br>- Umezain: haur eta 18 urtera arteko gazteen estimuladiorako udal-elkartea. Familien taldearekin lan egiten da eta Udalak ordaintzen du jardueraren zati bat.<br>- Gainerako elkarteak: diru-laguntzak norgehiagokaren bidez ematen dira. Adibidez: Gorabide, Abnabi, Down-en Sindromea, Arantza Bifidoa, Esklerosi Anizkoitza…<br><br>o Azpiegiturei dagokienez, desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroaren beharra antzematen da. | |
| **Haurrak, Gazteak eta Familiak** | o Durangok esku-hartze sozioedukatiborako zerbitzua (EISE) du. Umeekin lau familia-hezitzailek lan egiten dute, eta identifikatutako kasuen ardura, esku-hartze eta prebentzioaz arduratzen dira batez ere. Zerbitzu hau Amankomunazgoak kudeatzen du. 2010ean 37 espediente kudeatu ziren, eta 2011n berriz, 66. | |
| **Gizarteratzea** | o Gizarteratzeko programak gaur arte Amankomunazgotik garatu dira eta Lanbidek kudeatuko ditu.<br><br>o Egun, Udalak bi hitzarmen dauzka sinatuta Caritas eta Jaed-ekin laguntza-programen garapenerako.<br>- Cáritas: bi azpi-programa garatzen ditu; bat baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonei (laguntza ekonomikoen kudeaketa…) laguntzeko eta bestea enplegua sustatzeko.<br>- Jaed: bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako.<br><br>o Jesuiten etxea elkarteak abegi-etxebizitzako gailua du (urtebeterako gutxi gorabehera) gizarte-sarerik ez duten atzerritarrentzako. Gailu honek 10 leku ditu.<br><br>o Neguko aterpe-zerbitzua: Durangok negurako gailua ere badu (zerbitzuen kontratazioaren bidez) gizarteko bazterketa-egoera larrian dauden pertsonentzako. 2011-2012 aldian 290 leku bete ziren, eta 59 pertsona artatu ziren; 2009-2010 aldian, berriz 125 bete ziren, eta 33 pertsona artatu ziren. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | o Eguneko egoitza-zentroa zabaltzea aztertzen ari da Caritasekin batera, gizarteko bazterketa-egoera larrian dauden pertsonentzako (ez bakarrik negu sasoirako).<br><br>o 2012an gizarte-larrialdietarako bi etxebizitza irekiko dira (orokorra). | |
| **Etorkinak** | o Durangon bizi diren etorkinen kopuruak gora egin du etengabe azken urteetan zehar; 2001ean, etorkinen biztanleria biztanleria osoaren %1,74 baino ez zen, 2010ean, etorkinak biztanleria osoaren %7,03 ziren, eta 2009an %6,95.<br><br>o Durangoko Udalak 2008-2001 aldirako Immigrazioaren Tokiko Plana dauka. Bertan, gai honetan esku hartzeko ardatz nagusiak zehazten dira. Plana Immigrazioko teknikariak kudeatzen du. Planaren barnean azken urteotan landu diren hiru ardatz nagusiak daude.<br><br>o Harrera eta gizarteratzea: etorkinen harrera eta gizarteratzea sustatzeko ekimenak abiarazi dira:<br>- Sentsibilizazio-kanpainak, adibidez: 100 triptiko eta 250 kartel burutu ziren erroldatze-kanpaina edo emakume etorkinen tratu txarren aurkako kanpaina (1095 triptiko eta 100 kartel).<br>- Inguruaren ezagutza eta baliabideak eskuratzea: baliabideen gida<br>- Harrera linguistikoa.<br>- Itzulpen eta interpretazioko zerbitzua.<br>- Etorkinentzako laguntza psikosozialerako taldea.<br><br>o Sentsibilizazioa eta partaidetza: ekimen hauek burutu dira:<br>- 2007tik arrazakeria eta xenofobiaren aurkako astea egin da urtero.<br>- Ikastetxeetako hainbat sentsibilizazio-programa antolatu dira.<br>- Kulturarteko liburutegia: Durangoko Udal Liburutegiak, Immgrazio Sailarekin batera, 2007tik liburutegia gizarteratze-gune gisa erabiltzeko ekintzak garatzen ditu.<br>- “Gure Aisia” programa.<br>- Gazte etorkin eta bertoko gazteen arteko harremana sustatzeko tailerrak.<br>- Komunitateen jaialdia: urtean bi aldiz egiten den ekitaldia.<br><br>o Eragileak prestatzea: ekintza mota bi garatu dira:<br>- Immigrazio Zuzendaritza eta Biltzen elkartearekin elkarlanean aritzea, Oinarrizko Udalaren Harrera Sarea | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | osatzen duten tokiko erakundeentzako prestakuntza-programaren ezarpenean.<br>- Udalerrian esku hartzen duten erakundeen informazio eta prestakuntzako behar zehatzak betetzeko prestakuntza-ekintzak diseinatzea. | |
| **Droga-mendetasuna** | o Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak 2009-2013 aldirako Droga-mendekotasunaren Tokiko Plana dauka. Horren bidez, arlo honetam hainbat ekintza eta ekimen abiarazi dira. Azken urteotan, egungo Tokiko Planean zehazten den bezala, ekintzak hiru oinarri nagusitan banatzen dira.<br><br>o Prebentzio-programak ikastetxeetan: programa honen barnean, Hainbat azpi-programaren bidez abiarazi den "Droga-mendetasuna eta Osasun-hezkuntza" izeneko programa dago.<br><br>o Prebentzio-programak komunitatean: hiru proiektu garatu dira programa honen zati gisa:<br>- Gurasoen heziketa.<br>- Substantzia kaltegarrien erabilera eta gehiegikeriari buruzko informazio eta sentsibilizaziorako komunitate-kanpaina.<br>- Droga-mendekotasunari buruzko aholkularitza- eta dokumentazio-zentroa.<br>- Komunitateko eta teknikariak prestatzeko beste programa batzuekin koordinazioa.<br><br>o Prebentzio-programa selektiboa eta arrisku-taldeentzako aholkatutakoa. Programa hori ekimen hauek osatzen dute:<br>- Ohitura uzteko ikastaroak<br>- Prebentzioa drogen kontsumoagatik arriskua duten taldeetan.<br><br>o Ekimen horietako parte-hartzaile eta onuradunen kopurua handia izan da azken 5 urteotan; azpimarragarria da parte hartu duten ikasleak 22.085 izan direla, eta 748 gurasok ere parte hartu dute. | |
| **Berdintasuna** | o Durangoko Udalak Berdintasun Saila du. Sail horren bidez, Berdintasunaren Udal Batzordea abiarazten da. Kide anitzeko organo hori aholku-emaile eta informazio-emailea da, eta udalerriko bizitza politiko, kultural, ekonomiko eta sozialeko hainbat arlotan emakume eta gizonen aukera-berdintasunaren printzipioaren garapen eta sustapenean herriko emakumeen partaidetza demokratikoa bermatzeko asmoz eratu zen.<br><br>o Ildo horretan, Udalak Durangoko Emakume eta Gizonen arteko | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | Berdintasunerako Plana egin zuen, 2008-2011 aldirako egoera-diagnostikoan oinarrituta.<br>o Halaber, Andragunea sortu da: emakumeentzako tapagunea eta informazio-gunea da. Gizon eta emakumeen berdintasunezko harremanak errazteko gunea.<br><br>o Andraguneak eskaintzen dituen zerbitzuen artean hauek nabarmentzen dira: informazio-gunea, dokumentazio-gunea, erakusketak, jabekuntza-eskola, haurtzaindegi-zerbitzua, elkartegintzaren sustapena eta beste hainbat jarduera.<br><br>**8. Irudia. Pinondo Eraikina. Andragunea.**<br><br>o Emakumearen arloan hainbat elkarte daude. | |
| **Garapenerako laguntza** | o Gizarte Ekintzak garapenerako laguntza-jarduerak ere burutzen ditu, Gizarte Ekintza Saileko Udal-teknikariaren budez. Jarduera hori hiru ekimen motaren bidez garatzen da:<br>- Sentsibilizazio-programak: programa hauek bi ildo ezberdinetan lan egiten dute; batetik, ikastetxeetan, Eskolako Agenda 21en bidez, eta bestetik, komunitate-inguruan, elkarteen bidez eta ekitaldi zehatzen bidez, adibidez: “Pobreziaren kontrako astea”.<br>- Elkarteei laguntzea: udalerriko bertako udal-elkarteek arlo honetan lan zehatza burutzen dute era honetan:<br>▪ Atzerriko herrialdeetatik (Sahara eta Errusia) datozen umeak hartuz.<br>▪ “Bat Eginez” udaleko GKEren bidez.<br>- Garapenerako laguntzako programa zehatzen bidez: azkenik, programak garatzen dira garapen bidean dauden herrialdeekin elkarreraginean. Programa horiek funtsean, “Euskal Fondoa”-ren bidez bideratzen dira. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | | |
| **Koordinazio-sistemak** | o Gizarte Ekintza Sailak koordinazio estua du udal-mailako eragile batzuekin. Bereziki foro hauek garatzen dira:<br>- "Zubiguneak" elkarteen foroa: foroa hilero egiten da, eta Gizarte Ekintza Saila eta 12-15 elkarte inguru biltzen dira bertan, kulturartekotasuneko bizikidetzaren arloan lan egiteko asmoz.<br>- Gizarteratzeko foroa: bi hilean behin foro honek adimen-osasuneko profesionalak (osakidetza), ikastetxeak… biltzen ditu, eta baita Immigrazioko teknikaria ere, gizarteratze-arloan lan egiteko helburuarekin.<br>- Gizarte Zerbitzuak, Caritas eta Jaed eta gizarteratze-arloan lan egiten duten elkarteen artean hileroko koordinazio-batzarrak. Batzar horietan, lan zehatzagoa egiten da kasu eta programen jarraipenaren bidez.<br>o Gizarte Ekintzako Sailean bertan, batzarrak egiten dira etengabe teknikari eta langileen artean (immigrazioa, berdintasuna…). Baina ez dago zehaztutako koordinazio-mekanismorik.<br>o Ez dago Udaleko gainerako sailekin zehaztutako koordinazio-sistemarik. Harreman horiek zehatzak izaten dira, uneko beharren arabera. | |

| LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK |
|---|
| **DURANGO** |
| o 2008-2011 Tokiko Immigrazio Plana.<br>o Durangoko Emakume eta Gizonen I. Berdintasunerako Plana (2008-2011). |
| **UDALAZ GAINEKO MAILA** |
| o Bizkaian Desgaitasuna duten Pertsonen Parte Hartzerako eta Bizi Kalitaterako Plana (2010-2013)<br>o Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko 2008-2011 epealdirako Plan estrategikoa.<br>o 3/2009 Legea, haurrak eta nerabeak babesteko legea aldatzen duena.<br>o 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea.<br>o 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuen Legea13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familien Babeserako Legea Inmigrazio, Herritartasun eta Kulturarteko Bizikidetzari buruzko III. Plana 2011-2013EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (2010-2014).<br>o Erakundeen arteko Familiak Babesteko III. Plana (2011-2015).<br>o Gizarteratze Aktiborako Euskal Plana (2011-2015).<br>o EAEko Droga-mendekotasuneko VI. Plana2011-2015. |

| PLAN DE ACCIÓN LOCAL ANTERIOR |
|---|
| **LÍNEAS ESTRATÉGICAS, PROGRAMAS Y ACCIONES VINCULADAS** |
| **LE 3. UDALERRIAREN GARAPEN SOZIALA BULTZATU**<br>**P 3.1. Udalerrian bizi den atzerritarren edo etorkinen kolektiboaren integrazio sozialerako programa**<br>3.1.1 Etorkinei eta udalerrian bizi direnei begirako integrazio planaren osaketa.<br>**P 3.2. Hirugarren adineko pertsonen bizitza kalitatea hobetzeko programa**<br>3.2.1 Hirugarren adineko pertsonek eskaintzen duten potentzialitateari probetsua atera (denbora librea, euren ezagutzak…) boluntario lanen moduko ekimenekin,…<br>3.2.2 Hirugarren adineko pertsonen eta hauek zaintzen dituztenen bizitza kalitatea hobetzeko programa eta zerbitzuak abiaraztea.<br>3.2.3 Hirugarren adineko pertsonentzat ekintzak antolatu.<br>3.2.4 Politika horizontalak hartu Udalean, eremu guztietan hirugarren adineko pertsonak presente izateko.<br>**P 3.3. Genero berdintasuna bultzatzeko programa**<br>3.3.1. Gizonezko eta emakumezkoen arteko aukera berdintasuna bultzatu.<br>3.3.2. Hezkuntzaren bidez emakumezkoen eta gizonezkoen egiazko berdintasuna bultzatu.<br>3.3.3. Sentsibilizaziorako kanpainak burutu hiritarren artean.<br>3.3.4. Udaletik lengoaia neutroaren erabilpena bultzatu.<br>**LE 4. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN ETA HIRIGUNEAREN KALITATEA HOBETU**<br>**P 4.1. Hirigunearen kalitatearen hobekuntzarako programa**<br>4.1.9. Zakurren jabeak direnak eremu publikoak garbi izatearen garrantziaz kontzientziatu. |

## HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA

**Lotura duten Aalborg-eko konpromisoak:**

5. HIRIGINTZA PLANGINTZA ETA DISEINUA
9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **HEZKUNTZA** | | |
| **Hezkuntza-eskaintza** | o Gaur egun, Durangon irakaskuntza ez-unibertsitarioaren erregimen orokorreko 10 ikastetxe daude: horietatik 6 lehen hezkuntzakoak dira, eta 4 derrigorrezko bigarren hezkuntzatik gorako mailak eskaintzen dituzten ikastetxeak dira. Zehazki, laurak LOGSE batxilergoko maila eskaintzen dute eta 3k berriz, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzte.<br><br>o Ikastetxeen titulartasunari dagokionez, haur-hezkuntza eskaintzen duten 7 ikastetxeetatik 5 hitzarmenduak dira eta 2 publikoak. Lehen-hezkuntzako joera ere berbera da, gehienak hitzarmendun ikastetxeak dira (4 hitzarmendunak eta 2 publikoak). Derrigorrezko bigarren hezkuntzako eskaintzari dagokionez, ikastetxe publiko bakarra dago, eta baita batxilergoa eta lanbide-heziketan ere.<br><br>o Gainera, udalerrian Lanerako Prestakuntza-zentroa, Helduentzako Hezkuntza (HHE) Zentroa, Hizkuntza Eskola Ofiziala, Udal Euskaltegia eta Musika Eskola eta Bartolome Ertzilla Erdi Mailako Kontserbatorioa daude. Durangoko Udalaren menpe dagoen musika irakasteko zentro publiko horrek alderdi bikoitzetik bideratzen du irakaskuntza: alde batetik, Musika Eskolan musikari ikuspuntu amateur batetik ekin eta probatu nahi dutenentzako, eta bestetik, Kontserbatorioan, arautudako irakaskuntza ofiziala irakasten da.<br><br>o Udalerrian matrikulatutako ikasleen kopuruaren bilakaera gero eta handiagoa izan da azken urteotan, eta 2005-2006 ikasturtetik 2011-2012 ikasturtera matrikulazioen kopurua %13,5 hazi da.<br><br>o Hezkuntza-mailen arabera, 2005-2011 aldian zehar matrikulazio-kopurua hazi dela ikus daiteke, Batxilergoko ikasleak izan ezik, horiek %0,9 murriztu baitira. Aipatu beharra dago, Erdi Mailako Lanbide Heziketako zikloetan matrikulazioak %40 hazi direla, eta Goi Mailako Lanbide Heziketan berriz, %10. Halaber, garrantzitsua da Lehen | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|

Hezkuntzako matrikulazioak %30 hazi direla azpimarratzea.

**19. Taula. Durangon matrikulatutako ikasleak. 2005/2006, 2008/2009 y 2011/2012 ikasturteak.**

| Formakuntza azpi-mailak | 2005-2006 | | 2008-2009 | | 2011-2012 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Adostua | Publikoa | Adostua | Publikoa | Adostua |
| Haur hezkuntza | 454 | 1061 | 473 | 1116 | 477 | 1126 |
| Lehen hezkuntza | 610 | 960 | 654 | 1202 | 688 | 1358 |
| Bigarren mailako derrigorrezko hezkuntza | 350 | 702 | 383 | 684 | 428 | 722 |
| Batxilergoa | 409 | 440 | 381 | 448 | 394 | 447 |
| Erdi Mailako Formakuntza Profesionala | | 109 | 44 | 107 | 47 | 106 |
| Goi Mailako Formakuntza Profesionala | 69 | 169 | 38 | 202 | 48 | 214 |
| GUZTIRA | **1892** | **3441** | **1973** | **3759** | **2082** | **3973** |
| | **5333** | | **5732** | | **6055** | |

*Iturria: Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza.*

- Sare publiko eta pribatuari dagokionez, azken ikasturte honetan matrikulazioen %65,6 itunpeko sarean egin direla ikus daiteke. Portzentaje hori 2005-2006 ikasturtekoaren oso antzekoa da (%64,5). Hezkuntza-mailei dagokienez, itunpeko sareak garrantzi handiagoa du Goi Mailako Lanbide Heziketan (matrikulatutako ikasleen %81,68) eta ondoren haur-hezkuntzan %70ekin. Batxilergoaren kasuan, aldiz, burututako matrikulazioen %46,85 ikastetxe publikoetan izan da.

**73. Grafikoa. 2011/2012 ikasturtean matrikulatutako ikasleak.**




*Iturria: Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza.*

- 2011-2012 ikasturtean zehar, Helduentzako Hezkuntzak 816 ikasle izan ditu, 516 arautako hezkuntzan. Azken urteetako bilakaerak arautu gabeko heziketak hazi egin dela ikus daiteke, arautako heziketarekin alderatzen badugu. Kasu bietan,

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|

heziketa zentro publikoetan eskaintzen da.

**20. Taula. Ikastetxe publiko eta itunduetan araututa eta ez araututako HHI-ren arteko desberdintasuna. 2005/2006, 2008/2009 y 2011/2012 ikasturteak.**

| | 2005-2006 | 2008-2009 | 2011-2012 |
|---|---|---|---|
| EPA ERREGLATUA | 783 | 752 | 516 |
| EPA EZ ERREGLATUA | 72 | 52 | 200 |

*Iturria: Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza.*

- Bestalde, Durangoko ikasleak matrikulatuta dauden hizkuntza-ereduei dagokienez, gehienek D eredua aukeratzen dute; 2011-2012 ikasturtean matrikulazioen %70,32 eredu honetan egin ziren eta %6,33 bakarrik A ereduan. Azken urteotako bilakaerak D ereduak garrantzia hartu duela erakusten du, B ereduaren kaltetan. Zentzu horretan, ezberdintasunak daude heziketa-mailari dagokionez, maila guztiek ikasketak D ereduan burutzeko aukera eskaintzen badute ere, haur-hezkuntza, lehen-hezkuntza eta DBHn ez dago A redurik, eta Batxilergoa eta lanbide-heziketan, ez dago B eredurik.

**21. Taula. Hizkuntza ereduaren araberako matrikulazioak (%). 2005/2006, 2008/2009 y 2011/2012 ikasturteak.**

| | 2005-2006 | | | 2008-2009 | | | 2011-2012 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **A** | **B** | **D** | **A** | **B** | **D** | **A** | **B** | **D** |
| Haur | 0,0 | 28,5 | 71,5 | 0,0 | 24,7 | 75,3 | 0,0 | 24,6 | 76,3 |
| Lehen | 0,0 | 33,9 | 66,1 | 0,0 | 33,0 | 67,0 | 0,0 | 34,8 | 75,5 |
| DBH | 0,0 | 41,3 | 58,7 | 0,0 | 36,9 | 63,1 | 0,0 | 34,3 | 73,5 |
| BATX | 8,0 | 21,5 | 64,7 | 14,6 | 9,0 | 74,1 | 17,0 | 0,0 | 82,1 |
| EMFP | 0 | 100 | 0 | 0 | 41,63 | 17,12 | 41,25 | 0,00 | 18,29 |
| GMFP | 0 | 79,0 | 21,0 | 0,0 | 0,0 | 30,5 | 35,1 | 0,0 | 22,2 |
| **GUZTIRA** | **1,35** | **35,44** | **63,21** | **2,16** | **29,82** | **68,02** | **6,33** | **23,35** | **70,32** |

*Iturria: Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza.*

- Udalerriko hezkuntza-eremua Udaleko Gazteria, Kirola eta Hezkuntza Sailak kudeatzen du gaur egun.

**Hezkuntza-eskaera**

- Eskura dauzkagun azken datuak kontuan hartuta, 0 eta 19 urte bitarteko eskola-biztanleria %3,65 murriztu dela ikus daiteke azken 4 urteetan zehar. Adin-taldeen arabera, talde guztietan gertatzen da murrizketa, 5 urtetik beherako taldean izan ezik, talde hau %1,34 hazi baita. Beherakada handiena, berriz, 10 eta 14 urte bitarteko pertsonen artean gertatzen da, %9,6 murriztu baita.



| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|

**74. Grafikoa. Eskola adinean dauden biztanleriaren bilakaera (0-19 urte bitartean). 2008-2011.**




*Iturria: Ine, udal-erroldaren berrikustea.*

**22. Taula. Eskola adinean dauden biztanleriaren bilakaera (0-19 urte bitartean). 2008-2011.**

| | 0-4 urte | 5-9 urte | 10-14 urte | 15-19 urte | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| 2008 | 1.497 | 1.511 | 1.341 | 1.209 | 5.558 |
| 2009 | 1.537 | 1.518 | 1.276 | 1.182 | 5.513 |
| 2010 | 1.542 | 1.496 | 1.273 | 1.163 | 5.474 |
| 2011 | 1.532 | 1.428 | 1.229 | 1.166 | 5.355 |

*Iturria: Ine, udal-erroldaren berrikustea.*

- Beraz, hezkuntza-eskaerak beherakada izan du azken urteotan, eskola-adina duen biztanleria murriztu egin delako, bereziki 10 eta 14 urte bitarteko pertsonen taldea, eta horien atzetik 5 eta 9 urte bitartekoak.

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **EUSKARA:** | | |
| **Ekipamenduak eta baliabideak** | o Durangok Udal-euskaltegia, HABEk homologatutako AEKren euskaltegi eta Hizkuntza Eskola Ofiziala ditu. . Azken 5 urteetan zehar, udal-euskaltegiak 1.560 ikasle izan ditu, eta AEK-ko euskaltegiak, berriz 798 ikasle. | |
| **Udal-politikak** | o Durangoko Udalak 2008ko abenduaren 18an, 2008-2012 aldirako Euskara Plana onetsi zuen, barnean erabiltzeko. Plan horretan, besteak beste, helburuak, estrategiak eta ekintzak biltzen dira, eta baita Kudeaketa Plana eta urtero bete beharreko ebaluazioa ere.<br><br>o Halaber, Durangoko Udalak 2009-2012 aldirako Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Orokorra du. Plan Orokor horretan, helburu estrategiko hauek nabarmendu behar dira, hurrengo emaitzekin (azken 5 urteotako emaitzak):<br>- Familiako transmisioa: euskararen etxeko erabilera gehitzea eta transmisioa ziurtatzea, betetan familiako kideen artean erabiltzen den hizkuntza izan dadin. Gai horri lotuta, bi sentsibilizazio-programa abiarazi dira: “Esadazu euskaraz” eta “Eman giltza”. Programetan ume jaio berriak zituzten 1.400 familiak parte hartu dute, eta “Eman giltza” web-orrialdearen ehunka erabiltzailek parte hartu dute.<br>- Euskalduntzea: herritarren artean euskararekiko motibazioa sustatu eta euskara ezagutaraztea. Etorkinentzako ekimenak ere burutu dira, euskarako ikastaroen (AISA) eta ume eta gazte etorkinen artean euskara sustatzeko jardunaldien bidez.<br>- Prestakuntza: helduentzako hezikeren eskaintzan euskararen erabilera gehitzea. Erretiratuta dauden pertsona eta gurasoentzako hezkuntza-ikastaro zehatzetan 225 pertsonek parte hartu dute.<br>- Irakaskuntza: euskarazko ereduak sustatzea, eskolaz kanpoko hezkuntza-jardueretara euskararen erabilera hedatzeaz gain eta ikastetxeen arteko programa zehatza abiarazteaz gain, euskaraz bizi ahal izaten lagunduko duten ohiturak sustatzeko.<br>- D ereduko matrikulazioak sustatzeko “Nahidudalako.com” izeneko web-orrialdeak, ehunka erabiltzaile izan ditu.<br>- Administrazioa: Euskararen ezagutza, zein erabilera sustatzea Udal Administrazioan, euskara zerbitzu-hizkuntza gisa bermatuz, pixkanaka laneko tresna bihur dadin. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | - Lan-ingurua: Lan-eremuan euskararen erabilera gehitzea, bereziki ostalaritza eta merkataritzan. “Guk euskaraz” proiektuak ehunka dendari, ostalari eta elkarte aholkatu ditu, eta itzulpen-zerbitzua eskaini die 225 dendari eta ostalari eta 103 elkarteri.<br>- Kirol-eskaintzan euskararen erabilera gehitzea.<br>- Kultura: eskaintza kulturalean euskararen erabilera gehitzea, euskarazko ekoizpen kulturala eta sormena bultzatzea, euskaraz irakurtzeko ohitura gehitzea, tokiko hizkuntza, toponimia, historia eta ohiturak hedatzea tokiko ekintzen bidez, eta ekimen erlijiosoetan ere euskararen erabilera gehitzea. Zehazki, ekintza hauek azpimarratu behar dira:<br>▪ “Durangoko ahotsak” web-orrialdea, milaka erabiltzailerekin.<br>▪ 2012an toponimiari buruzko web-orrialde berria abiaraziko da.<br>▪ Julene Azpeitia lehiaketa; ikastetxeetako 1.750 lehiakide eta 7.500 parte-hartzaile.<br>▪ Euskal Liburu eta Diskoaren Azokan standa.<br>▪ Bertso-saioak 1.500 parte-hartzailerekin.<br>▪ Komunikabideak: euskarazko komunikabideak eta publizitatea sustatzea.<br>▪ Teknologia berriak: teknologia berrietan euskararen erabilera sustatzea.<br><br>o Euskara Sailak, euskararen erabilera sustatzeko diru-laguntzak ere kudeatzen ditu.<br>- Merkataritzako errotulua eta web-orrialdeak euskaraz jartzeko; 87 onuradun.<br>- Euskarazko ekimenak sustatzeko; 57 onuradun.<br>- Prestakuntza-bekak: 269 onuradun.<br>- Aldizkarietan euskararen erabilera sustatzeko: 44 onuradun.<br>- “Berbalagun” programa: 550 erabiltzaile.<br>- Euskarazko komunikabideak sustatzeko hitzarmena.<br><br>o Egun, 2013-2016 Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana diseinatzen hasi da; prozesua lehenengo fasean dago, udalerriko eragileekin batzarrak eginez. | |
| **Euskara Saila eta beste eragile batzuen arteko koordinazioa** | o Euskara Sailak Kultura Saila eta Hezkuntza, Kirola eta Gazteria Sailarekin batera lan egiten du. Ezarritako koordinazio-mekanismorik ez badago ere, hiru sailak leku berberean egoteak lankidetza gehiago egotea errazten du. Ez dago koordinaziorik Udaleko gainerako sailekin. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | o Udalerriko eragileekin duen harremanari dagokionez, topagune garrantzitsua dago, “Euskararen Aholku Batzordearen” bidez. Udalerriko eragileez gain, Udaleko zinegotziek ere parte hartzen dute. | |
| **Euskara udal-jardueran** | o 2011/2012 ikasturtean zehar, 45 udal-langile joan dira euskara ikastaroetara, Udal Euskaltegiko material eta hezitzaileen bidez. Halaber, 2012an, Durango Kirolak-eko 12 langileri eskainiko zaie prestakuntza.<br><br>o Zentzu horretan, 2008-2012 Euskararen Erabilerari buruzko Planak udal-langileak trebatzeko helburu eta ekimenak zehazten ditu. Aurrez esan bezala, 2012an hurrengo 5 urteetarako plana egingo da. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **KULTURA** | | |
| **Kultura Saileko helburuak eta programak** | o Udaleko Kultura Sailak bere jarduera bi programatan burutzen du batez ere:<br>- Euskal kultura: euskal kultura sustatzea, berezko ezaugarri kulturalen sustapen, babes eta berrikuntza gisa ulertuta, beti jarrera integratzailetik eta gure herriko aniztasun soziokulturalarekiko errespetuzko jarreratik.<br>- Beste kultura batzuk: aurretik esandakoarekin bat etorriz, Andaluziako, Gaztelako, Extremadurako kulturak, eta etorri berriak diren beste batzuk oso presentzia esanguratsua daukate gure komunitatean, eta Udaleko erabaki kulturaletan kontuan hartuko dira guztion ondare kulturala aberasten duten ekarpen gisa.<br><br>o Zehazki, aurreko urteetako ildoa jarraituz, Kultura Sailak helburu hauek jarri ditu 2012. urterako:<br>- Elkarteen sareak sortutako jarduera-eskaintza indartzea, eremu ekonomiko eta azpiegituren eremuan lagunduz.<br>- Finkatutako, kalitatezko programazio erakargarri eta egonkorraren barnean dauden kultura-ekitaldien proiekzio egokia lortzea.<br>- Herriko baliabide kulturalen aprobetxamendua optimizatzea urte osoan zehar, eta baita herritarrei ezagutaraztea eta herritarrek gozatzea, subsidiariotasun ikuspegitik.<br>- Beste erakunde eta eragile kultural batzuekin sinergiak eratzea, herriko eskaintza kulturala aberasteko.<br>- Udal-lokalen sarea mantentzea, tokiko talde kulturalen jarduera barne hartu eta errazten baitute.<br>- Biztanleriaren haur eta gazteen sektoreeran kontsumo kulturalaren ohitura piztea, jarduera zehatzen bidez.<br>- Ekimen pribatuarekin lankidetzarako eta babeserako formulak bilatzea.<br>- Arlo artistiko ezberdinetan proiektu kulturalen sorrera eta garapena bultzatu eta sustatzea.<br>- Udalerriko auzoetako jaietako ekitaldi eta jarduerak diruz laguntzea.<br><br>o Gainera, Kultura Saila Durangoko elkarte kulturalek sustatutako eta beren programazio barnean dauden jarduеretarako, auzoetako jaietarako, diru-laguntzei dagozkien jarduera operatiboez arduratzen da, eta baita San Agustin gune kulturala erabiltzeagatik sortzen den gastua ordaintzeko diru-laguntzez eta Durango eta Iurretan Gerra Zibilari (1936-1945) buruzko | | 

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | ikerketaz eta gainerako programez ere. | |
| **Ekipamendu kulturalak eta beren erabilera** | o Udalerriko ekipamendu kulturalen hornidura zabala eta anitza da. Dituen baliabideetatik honako hauek nabarmendu daitezke:<br>- Astarloa Kulturgintza, zerbitzu publikorako bokazioa duen erakundea arduratzen da honako gune kultural hauen kudeaketaz: udal-artxiboa, liburutegia, San Agustin Gune Kulturala, Krimenaren Historia Zentroa eta Arte eta Historia Museoa.<br>- Pinondo Etxea: dituen zerbitzuen artean hauek daude: Ludoteka, Gazteentzako Informazio Bulegoa, Durango Irratia, Komunitateko Ekintza eta Garapenerako Udal Institutua IMDAC, fonoteka, haurrentzako liburutegia, ikasteko gelak, jolasteko gelak, maileguan eramateko materiala, erakusketa-aretoa, filmen proiekzioa, tailerrak eta ikastaroak, etab. Halaber, zerbitzu publikoen zentro honetan euskara-zerbitzua edo Andregunea ere finkatu dira.<br>- Landako Entsegu-aretoak: Landako Kiroldegiaren etxabehetan dauden areto hauek musika taldeak hartzen dituzte batez ere, baina baita beste mota batetako elkarteak ere, besteak beste: rock taldeak, koru-taldeak, musika-ikastaroak (trikitixa, alboka eta panderoa), perkusiko musika-tresnekin entseguak burutzen dituzten etorkinen taldeak, xakea, rol-jokoak, etab. Batzarrak eta ohiko gizarte-jarduerak burutzeko espazioak eskatzen dituzten elkarteen hazkundea dela-eta, aretoetan hitzaldiak ere burutu nahi dituzte.<br>- Merkatuko plaza: plaza bi eremutan banatzen da, lehenengo eremuan larunbat goizetan handizkako merkatua egiten da, baina beste jarduera eta ekitaldi sozial eta kultural batzuk ere egiten dira, hala nola: saskibaloi-kantxa, artisautza-azoka, lehiaketa gastronomikoak, etorkinen elkarteen ospakizunak, erakusketak, eta abar luze bat, eta beste barneko eremu bat bi solairytan banatuta. Bertan, Durangoko euskal dantzako elkarteak egon ohi diren lokalak daude.<br>- Garai jauregia: Garai jauregian, egun gizartean oso finkatuta dauden eta jarduera handia duten bi elkarte egoten dira, eraikinaren beheko solairuan.<br>- Ezkurdi aretoak: Ezkurdi plazaren erdian dagoen gunea, bi espazio bereizi ditu, batean margolaritza eta marrazketako udal-tailerrak egiten dira eta bestea erakusketa-aretoa da. Erakusketa-aretoan, Durangaldeako Artisten Elkarteko proposamenak eta Udalaren beraren proposamenak jartzen dira. Kultura Saileko talde teknikoak erakusketa-aretoa | (laranja zirkulua) |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|

hurreko espazioa bada ere, ez duela oro har, jendea erakartzen uste du. Beraz, beharrezkotzat jotzen da erakusketa-aretoari kokapen hobea bilatzea.

- Ludoteka: Durangoko Udalak 3 eta 11 urte bitarteko durangarrei eskaintzen dien zerbitzua. Lokalak jabetza pribatua du, eta errenta-erregimenean dago eta egun zerbitzua AISILAN enpresak eskaintzen du ekainetik urrira bitartean. Lokalak bi zati bereizitu ditu, lehenengoan harrera-gunea, eskulanen tailerrak egiteko lekua eta nagusienak jolasteko lekua daude. Bigarrenean, irakurtzeko txokoa, psikomotizitatearen lekua eta adierazkortasuna eta antzerkiaren txokoa daude.

o Gune kulturaletara lotutako oinarrizko zerbitzuen erabilgarritasunari dagokionez, 2006tik 2008. urtera bilakaera positiboa izan du. Gune kulturaletatik, hala nola, Kulturetxea, liburutegiak, auzo-etxeak, museoak, erakusketa-aretoak, antzokiak, zinemak, etab. 300m edo gutxiagora bizi den biztanleriaren portzentajea %72,3koa zen 2008. urtean, eta 2006an aldiz portzentajea %68,4koa zen.

**75. Grafikoa. Oinarrizko zerbitzuen erabilgarritasuna: Kultura-guneak.**




*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.*

o Kultura Sailak duen erronkarik garrantzitsuena udalerrian dauden baliabide, azpiegitura eta ekipamendu kulturalen hornidura da, udalerria lehentasunezko ekipamenduez hornitzen joateari begira epe ertain eta luzean. Zentzu horretan, nahitaezkotzat jotzen da Durangoko hausnarketa estrategikoa burutzea azpiegitura kulturalen politika-ereduei dagokienez, bai maila teknikoan bai udalerrian dagoen elkarte-sare anitzari jakinaraziz Helburua, udalerria epe labur, ertain eta luzean ezarri beharreko espazio-azpiegitura kulturalez hornitzea da. Udalerria eta durangarren egungo eta etorkizuneko eskaerei erantzungo dieten azpiegitura egokiez

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| | hornitzea da, udalerriak eskualdean duen herri nagusiaren izaera kontuan hartuz. | |
| **Jarduera kulturalak eta partaidetza** | o Durangoko udal-programa kulturalaren barnean, hainbat motatako ikastaro eta tailerrak zein beste era bateko jarduera eta ekitaldi kulturalak daude.<br><br>o Halaber, 122 erakunde inguruk garatzen dute beren jarduera soziokulturala Durangon.<br><br>o Dauden elkarteen kopuru handia eta elkarteen sarearen erabilera komunitarioko ekipamendu eta zerbitzuen beharrei erantzuteko espazio faltagatik, Kultura Saila elkarteetatik bidaltzen dituzten eskaerak bideratzen saiatuko da, alde batetik kultura sailak berak dituen ekipamenduen erabilera optimizatuz, eta bestetik eskaerak beste udal-erekunde autonomo batzuei bidaliz, lokalaren erabilgarritasunaren eta jardueraren egokitzapenaren arabera. Jarduerak honako espazio hauetara bidal daitezke:<br>- Liburutegiko erabilera anitzeko aretoak.<br>- Musika-eskolako ekitaldi-aretoa.<br>- Elkartegiko ekitaldi-aretoa | |
| **Kultura Saila eta beste eragile batzuen arteko koordinazioa** | o Kultura Sailean dauden koordinazio-egiturei dagokionez, hauexek identifikatzen dira, bi maila ezberdinetan:<br>- Maila teknikoan, Berdintasun Planaren diseinua eta jarraipenerako Mahai Tenikoan parte hartzen dute, eta Mahai Teknikoan Immigrazio Plana diseinatu eta garatzeko, biak Durangoko Udalaren planak.<br>- Gizarte-plataforma edo interes sozio kulturala duten hainbat gairi buruz lanean diharduten elkarteen mailan: Jai Batzordea, “Euskal Astea” deitutako programa kulturala burutzeko plataforma, udalerriarentzako Gabonetako programa osatzen duten jarduerak antolatzeko Mahaia eta Durangoko Bonbardaketen Oroitzapena dela-eta egiten den ekitaldi-programa osatzen duten jarduerak antolatzeko Mahaia- “Martxoak 31” Programa. | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **KIROLA** | | |
| **Kirol-ekipamenduak eta beren erabilera** | o Durangok Udaleko hainbat kirol-ekipamendu ditu, bai estaliak, bai irekiak, adibidez: Landako kiroldegia, Landako igerilekuak, Tabirako igerilekuak, Tabira futbol-zelaia, Arripausuetako zelaiak, Ezkurdi Jai Alai frontoia, San Fausto frontoia, eta baita tenis-pista ere.<br><br>o Kiroldegiak, gainera, zerbitzu sorta handia eskaintzen du eta jarduera ugari barne-hartzen ditu: aerobic egiteko gelak, gimnasioak...<br><br>o Kirol-guneekin lotutako oinarrizko zerbitzuen erabilgarritasunari dagokionez, joera positiboa sortu da, dauzkagun azken datuen arabera. 2006an kirol-guneetatik 300 metro edo gutxiagora bizi zen biztanleriaren portzentajea %52,8koa bazen ere, 2008an, datu hori %53,5ekoa da.<br><br>**76. Grafikoa. Oinarrizko zerbitzuen erabilgarritasuna: Kirol-guneak.**<br><br>*Iturria: Durangoko Tokiko Agenda 21.* | |
| **Kudeaketa-eredua** | o “Durango Kirolak” Durangoko Udalaren erakunde autonomoa da eta udaleko kirol-eremuak kudeatzeaz arduratzen da, herritar guztiek kirola eta ariketa fisikoa egitearen bidez bizi-kalitate hobea izan dezaten.<br><br>o “Durango Kirolak” erakundeak bere kudeaketa-ereduaren zati bezala erabiltzen dituen tresnen artean Plan Estrategikoa, Urteko Plana eta Plan Estrategikoaren adierazleak biltzen dituen Aginte Mahai Estrategiko gisa. | |
| **Kirol-jarduerak eta partaidetza** | o Durangon hainbat kirol-jarduera eskaintzen dira. Eskaintzen diren ikastaroetatik asko Landako kirol Gunea kiroldegiak berak kudeatzen ditu. Adibidez ikastaro hauek: aerobic, pilates, yoga, | |

| AZPI-EREMUA | DIAGNOSTIKOA | BALORAZIOA |
| --- | --- | --- |
| | tenisa, spin bike, dantza-ikastaroak edo igeriketa-ikastaroak.<br><br>o Halaber, mota askotako 31 kirol-elkarte daude udalerrian. Garatzen diren hainbat kirol-ekitadietatik, hauexek dira azpimarragarrienak: Dur&go eskalada lehiaketa, Plateruena skate lehiaketa, Durango Klasikoak, Durangaldeako gailurrak, eskarmentu handiko atleta Criteriuma, Duatloi herrikoia, Euskalgym, Mugarri Eguna edo Urkiolara igoera. | |

| LEGE-ESPARRUA ETA LOTURA DUTEN PLAN ETA POLITIKAK |
| --- |
| **DURANGO** |
| o Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Orokorra (2013-2016) |
| **UDALAZ GAINEKO MAILA** |
| o Kulturaren Euskal Plana (2009-2012).<br>o Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2008-2012)<br>o Kirolaren Euskal Plana (2003-2007) |

| PLAN DE ACCIÓN LOCAL ANTERIOR |
|---|
| LÍNEAS ESTRATÉGICAS, PROGRAMAS Y ACCIONES VINCULADAS |

**LE 3. UDALERRIAREN GARAPEN SOZIALA BULTZATU**

**P 3.4. Euskararen erabilera bultzatzeko programa**

3.4.1. Euskara transmititu.
3.4.2. Euskararen erabilera bultzatu eremu sozial denetan.
3.4.3. Hizkuntzaren kalitatea hobetu.
3.4.4. Tokiko Agenda 21eko Ekintza-Planean txertatu Euskara Planeko ekintzak.
3.4.5. Aztertu zergatik Bizkaiko udalerri batzuetan kalean egiten den euskararen erabilera garrantzitsua den eta Durangon kontrakoa gertatzen den.

**P 3.5. Udalerriko pertsona gazteentzat programa**

3.5.1. Araudia osatu etxabeen erabilpenaren inguruan.
3.5.2. Udal bizitzan pertsona gazteen parte-hartzea bultzatu.
3.5.3. Drogamenpekotasunaren (substantziak eta alkohola) inguruko diagnostikoa egin Durangon.
3.5.4. Autoritateen eskutik adin txikikoei alkohola saltzen dieten taberna eta dendekiko kontrol zorrotza ezarri.
3.5.5. Liburutegiaren ordutegia zabaldu asteburuetan.

**3.6. Udalerrian kultura eta aisialdia indartzeko programa**

3.6.1. San Agustín antzokia berritu.
3.6.2. Udalerrian sortzen diren zinema ekoizpen ekimenak babestu.

# 3. AZTERKETA ESTRATEGIKOA

## 3.1. AMIA METODOLOGIA

Durangoko azterketa estrategikoa burutzeko helburuarekin, diagnostiko-elementuetatik abiatuz, AMIA metodologia erabili da. Kasu honetan, AMIA azterketaren helburu nagusia Durangoko alderdi estrategiko kritikoak identifikatzen laguntzea da, eta behin alderdi horiek zeintzuk diren jakinda, erabili eta aldaketak eurengan oinarritu, garapen jasangarriagoaren mesedetan: indarrak finkatu, ahultasunak txikiagotzeko aukeren abantailak aprobetxatuz eta mehatxuak ezabatu edo murriztuz.




Durangoko AMIA matrizea osatzeko, parte hartzeko batzarrak burutu dira hainbat mailatan: Durangoko elkarteekin partaidetza-foroa, herritarrekin partaidetza-foroa eta Udaleko Sailarteko Batzorde Teknikoaren batzarra. Bestalde, email eta proiektuaren webgunearen bidez ere AMIA osatzeko ekarpenak jaso dira.

Partaidetza-gune horietan jaso diren ekarpen guztietan oinarrituta, eta dokumentu honen aurreko kapituluetan deskribatzen diren diagnostikoaren oinarrizko elemntuak kontuan hartuta, Durangoko AMIA matrizea sortu da, jasangarritasun-irizpidea kontuan hartuz.

## 3.2. DURANGOKO AMIA MATRIZEA

| LURRALDE ALDERDIAK | |
|---|---|
| Lurraldea eta antolamendua (1); biodibertsitatea eta paisaia (2); etxebizitza (3); eta mugikortasun jasangarria (4). | |
| **AHULEZIAK**<br><br>o Lurzoru industrialaren falta Eguzkitza II eta Eguzkitza III sektoreak ez baitira oraindik burutu (1).<br>o Lurzoru artifizializatuaren areagotzea (1).<br>o Hirigintza-alderdien arautze falta eskualde-mailan, udalerri bat baino gehiagotan eragina duten jarduketak koordinatzeko (1).<br>o Hirigintza-proiektu estrategikoei buruz herritarrek duten informazio falta (1).<br>o Durangoko enpresa industrial gehienak hiriguneetan edo hiriguneetatik hurbil daude (1).<br>o Pertsonen taldeak eremu zehatzetan batzea (auzo tematikoak desegitea) (1).<br>o Lubakien egoera txarra, segurtasunaren eta osasungarritasunaren arazoari dagokionez (1).<br>o Hiriko parke, lorategi eta berdeguneek okupatutako azalera probintziako ehunekoa baino txikiagoa da (1).<br>o Egungo Arau Subsidiarioek ez dituzte jasangarritasun-irizpideak barne-hartzen (1).<br>o Ibaien errekasto eta ertzak: zikinak, kutsatuak eta landarediaz gabetuak daude (2).<br>o Larrinagatxu ibaiaren kanalizazioa, AHTren obrak direla-eta (2).<br>o Hostozabal autoktonoen masaren erregresioa (2).<br>o Ingurune naturalaren kudeaketa egiteko tresnen falta (2).<br>o Etxebizitzaren prezioa eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunak (3).<br>o Etxebizitza hutsaren stocka (%12) (3).<br>o BOEak jabetzan ematea (3).<br>o 50 urte baino gehiagoko etxebizitzen ehunekoaren hazkundea (3). | **MEHATXUAK**<br><br>o Krisialdi ekonomikoak etorkizuneko proiektu eta azpiegituren diseinua eta garapena baldintzatzen du (1).<br>o Landare inbaditzaileak (2).<br>o Udalaz gaineko beste administrazio batzuekiko menpekotasuna (1), (2) eta (4). |

## LURRALDE ALDERDIAK

Lurraldea eta antolamendua (1); biodibertsitatea eta paisaia (2); etxebizitza (3); eta mugikortasun jasangarria (4).

| | |
|---|---|
| o Eskualdeko udalerrien arteko koordinazio falta mugikortasun jasangarriaren gaian (4).<br>o Gasteizekin, Gipuzkoa alboko eskualdeekin, eta Donostiarekin garraio publikoaren konexio falta.(4).<br>o Garraio publikoaren falta laneko ordutegian (6.00h, etab.).(4).<br>o Bidegorrien sare ahula Durangotik bizikletaz ibiltzea bermatzeko (4).<br>o Ibilgailu pribatuarekiko menpekotasuna: herrian bizi diren pertsonak oinez egin ditzaketen joan-etorrietarako eta kanpoko joan-etorrietarako (Durangora hurreratzen diren beste udalerri batzuetan bizi diren pertsonak) (4).<br>o Landakoko parkinga gutxi erabiltzen da (4).<br>o TAOk arautzen ez dituen guneetan leku libre gutxi daude, eta ondorioz, gune horietan bizi diren pertsonek beren ibilgailuak aparkatzeko zailtasunak izaten dituzte (4).<br>o Hezkuntza zentroetara kotxez desplazamenduak egitea ekiditeko aukeren falta (4).<br>o Muruetatorreko eremuan ekipamendu eta zerbitzu ezberdinen kontzentrazioak, batez ere arratsaldetan, aparkatzeko zailtasun handiak egotea dakar (4).<br>o Durango barnerako garraio publiko falta (4).<br>o Oinezkoen eta bizikleten arteko elkarbizitza hobetzeko beharra. Bizikleta-bideari errespetu gutxi eta oinezkoak sentsibilizatu beharra bizikletaren arriskuei buruz (4).<br>o Ekipamenduak eta instalazioak aurkitzeko seinaleak hobetu beharra (4).<br>o Kale batzuk gaizki asfaltatuta daude (4).<br>o Gaineko pasabideak oso altuak dira; bizikleta eta motorrentzako arriskutsuak izanik (4). | |

## LURRALDE ALDERDIAK

Lurraldea eta antolamendua (1); biodibertsitatea eta paisaia (2); etxebizitza (3); eta mugikortasun jasangarria (4).

| INDARRAK | AUKERAK |
|---|---|
| o Eskualdeko herri nagusia. Konexio eta erdiguneko kokapen geografikoa.(1).<br>o Udalak onetsitako araudi berria: Bulego eta etxebizitzen eraikuntzan ingurumena hobetzeko ordenantza eta Hiriko obren ingurumen-hobekuntzarako ordenantza.(1)<br>o Eraikuntza publikoetan, espaloietan eta oinezkoen pasabideetan irisgarritasuna hobetu da (1).<br>o Etxebizitzetan erosotasun-indize handiena duen EAEko udalerria. (3).<br>o Orografia laua (4).<br>o Bizikleta eta autobusez egindako joan-etorrien ehunekoa hazi egin da (4).<br>o Oinezkoentzako azalera gehitu egin da, udalerriko ia alde zahar osoa barne hartuz (4).<br>o Durangoko aparkalekuen eskaintza (bideko aparkalekua + garajea) erregistratutako autoen kopurua baino pixka bat handiagoa da.(4).<br>o Istripuen kopurua murriztu egin da. (4).<br>o Oinezkoen harrapatze-kopurua txikia da probintziako batez bestekoarekin alderatuta (4). | o Oinezkoentzako eremu gehiago, ibilgailu pribatuari eragozpen gehiago ezarriz (1).<br>o Tabirako eremua berreskuratzea: ibai-ertzak eta hondakin industrialak (1).<br>o Kohesio-azpiegitura berriak udalerriarentzako (trena, etab.) (1).<br>o HAPO berria idaztea (1).<br>o Trenaren barne-eraberritzeko plan berezia gauzatzea udalerriaren hiri-kohesiorako (1).<br>o Durangok irisgarritasun unibertsala izatea (1).<br>o Etxebizitzen alokairurako eskaintza gehitzea herritarrak beste udalerri batzuetara bizitzera joan ez daitezen (3).<br>o Durangon zehar bizikletan joan-etorriak sustatzea. (4).<br>o Bidegorriak koordinatzea eskualdean. (4). |

## INGURUMEN-ALDERDIAK

Ura (1); hondakinak (2); energia (3); ingurumen-kalitatea (4); klima-aldaketa (5); arriskuaren kudeaketa (6) eta erosketa publikoa eta Udal-administrazioaren ingurumen-kudeaketa (7)

| AHULEZIAK | MEHATXUAK |
|---|---|
| o Berunezko hodiak hornidura-sarean (1).<br>o Banatzen den ur guztiaren %33,41 “galeratzat” jotzen da, hots, kontrolatu gabeko edo kontagailurik gabeko kontsumo guneetara banatutako ur-bolumena, eta baita sareko galerak ere (1).<br>o Instituzio-horniduretan eta udaleko kirol-instalazioetan uraren kontsumoa gehitu egin da 2006tik (1).<br>o Ez da biltzen gai organikorik (2).<br>o Kaleen garbiketa hobetzeko beharra (2).<br>o Baso-hondakinen erretzea (2).<br>o Hiri-hondakinen tasa ez da kobratzen sortutako hondakinen bolumenaren arabera (2).<br>o Erabili eta lurrera botatzeko kultura: tamaina txikiko ontziak lurrera botatzeko joera (2).<br>o Kontsumitzailearen ikuspegitik, produktuen bilgarriak hondakin gehiago sorrarazten dute (2).<br>o Ornamentuzko elementuak argiztatzen dira gauean (3).<br>o Argiek kutsadura sortzen dute (3).<br>o Etxeko energia-kontsumoa Udalsarea 21eko udalerrien batez bestekoaren gainetik dago (0,255 tep/biz/2010 eta 0,21 tep/biz/2007) (3).<br>o Kutsadura elektromagnetikoa hobeto kontrolatu behar da.<br>o Amiantoa biltzeko sistemaren falta.<br>o Ibaien egoera ekologiko eskasa (4).<br>o Eusko Jaurlaritzarekin, airearen kalitatearen gaian eskumendunarekin, koordinazio falta (4).<br>o URArekin, ibaien kudeaketan eskumendunarekin, koordinazio falta (4).<br>o Jasotako herentzia: lurzoru kutsatuak (4).<br>o Gaueko ekitaldiak antolatzerakoan sortu daitekeen zarataren antolamendu-falta (4).<br>o Usainen bidezko kutsadura (4). | o Menpekotasun energetikoa (3).<br>o Ingurumen-eskumenak administrazio batzuen artean banatzea (1), (2), (3), (4), (5), (6), (7).<br>o Konformismoa lortutako jasangarritasun-adierazleek erakusten dituzten emaitzen aurrean (1), (2), (3), (4), (5), (6), (7). |

## INGURUMEN-ALDERDIAK

Ura (1); hondakinak (2); energia (3); ingurumen-kalitatea (4); klima-aldaketa (5); arriskuaren kudeaketa (6) eta erosketa publikoa eta Udal-administrazioaren ingurumen-kudeaketa (7)

| INDARRAK | AUKERAK |
|---|---|
| o 2009tik udalerriko uraren eskaera osoa %16 murriztu da (1).<br>o Ur-galeren gutxitze esanguratsua 2007tik (1).<br>o Etxeko ur-kontsumoaren murrizketa arina biztanle eta eguneko (1).<br>o Etxebizitzen %99 saneamendu-sarera konektatuta dago (1).<br>o Etxeko hondakinen sorketa murriztu egin da (2).<br>o Gaikako bilketaren portzentajea gehitu egin da (2011n %24,4) (2).<br>o Hondakin arriskutsuen sorketa pixka bat murriztu da (2).<br>o Argiteria publikoaren energia-kontsumoa %40 murriztu da 2009an, Energia-eraginkortasuneko Plana abiarazi zenetik (3).<br>o Galdarak berriztatzea, burututako galderen inbentarioko proiektutik abiatuta (14 gasolio-galdaretatik 4 bakarrik geratzen dira) (3).<br>o Airearen kalitatea hobetzeaz arduratzen diren baliabideak (4).<br>o 2005.urtetik, airearen kalitate ona edo onargarria erregistratzen den egunen kopurua gehitu egin da (2011n 318 egun) (4).<br>o BEGen isuriak pixka bat murriztu dira Durangon 2007 eta 2010 bitartean (5).<br>o Udalaren BEGen isuriak pixka bat murriztu dira 2007 eta 2010 bitartean (5).<br>o Erosketa eta kontratazioaren publiko berdearen ezarpen-maila finkatzen ari da udal-mailan (7).<br>o Ingurumen-kontuetan kontzientzia eta sentsibilizazio handiagoa, bai herritarren aldetik, bai Udaleko teknikari eta ordezkari politikoen aldetik (1), (2), (3), (4), (5), (6), (7).<br>o Ingurumenaren kontrol teknikorako bitarteko eta baliabide gehiago daude (1), (2), (3), (4), (5), (6).<br>o Eragileek gehiago parte hartzen dute (1), (2), (3), (4), (5), (6), (7).<br>o Egitura sektorial eta espezializatuak daude, hala nola: Ihobe, URA… (1), (2), (3), (4), (5), (6), (7).<br>o Tokiko Agenda 21en garapena eta ezarpena (1), (2), (3), (4), (5), (6), (7). | o Hiri hondakin organiko eta basoko hondakinen kudeaketa (2).<br>o Auto elektrikoaren aldeko apustua (3).<br>o Energia berriztagarrien sustapena (3).<br>o Energia-eraginkortasuna hobetzea (3).<br>o Kontzientzia eta sentsibilizazio handiagoa (1), (2), (3), (4), (5), (6), (7).<br>o Beherakada ekonomikoa (1), (2), (3), (4), (5), (6), (7).<br>o Teknologia berrien erabilera (1), (2), (3), (4), (5), (6), (7). |

## SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNEKO KOORDINAZIOA

Komunikazioa, herritarren partaidetza, elkartegintza eta sentsibilizazioa (1) eta barneko koordinazioa eta zeharkakotasuna (2)

| AHULEZIAK | MEHATXUAK |
|---|---|
| o Gazteen partaidetza txikia. Gazteentzako Udala ez da erakargarria, ezta interesgarria ere (1).<br>o Elkarteen artean ezagutza, koordinazio eta komunikazio falta (1).<br>o Talde eta elkarteetan boluntario falta (1).<br>o Durangoko etorkizunari buruzko prozesuetan parte-hartze gutxi (1).<br>o Partaidetza gehiago eta handiagoaren beharra TA21eko foroan. (1).<br>o TA21ek gaztediarekin harreman gutxi izatea (1).<br>o Lokal eta azpiegituren kudeaketa sistema aztertu beharra, egun antolatuta dagoen moduan, lokalak eta azpiegiturak falta direlako elkarteek beren jarduerak burutzeko (1).<br>o Antzeko elkarteak sortzen dira, horrek dakarren bikoiztasunarekin, bai eskaintzetan, bai diru-sarreren eskaeran (1).<br>o Boluntario edo elkarteko kide izan nahi dutenentzako informazio falta (1).<br>o Udalak eskainitako kalitatezko informazioaren falta (1).<br>o Administrazioari dokumentuak aurkezterako garaian gehiegizko burokrazia elkarteentzako (1).<br>o Partaidetza integraleko eredua falta da. Ez da ezagutzen sustatu behar den partaidetza mota, errealitatera egokitzen dena. Partaidetzaren kalitatea aztertzea ahalbidetzen duten adierazlerik ere ez dago (1).<br>o Udalaren egitura, egokitzapenen beharra (2).<br>o Eskualdearekin koordinazio gutxi (2).<br>o Gardentasun handiagoaren beharra (2).<br>o Zeharkakotasunerako zailtasuna sailek dituzten helburu ezberdinak direla-eta (2).<br>o Maila politikoan adostasunik ez dagoenez, Durangorentzako onuragarriak izan litezkeen proiektuen onespena eragozten du (2).<br>o Ikuspegi estrategikoaren falta Udal-mailan (2).<br>o Barneko sustapenerako pizgarri falta (2).<br>o Sail eta zerbitzuen arteko koordinazioa ez dago araututa (2). | o Partaidetzaren polarizazioa, batzarretan egon daitezkeen eztabaiden polarizazioa (1).<br>o Elkarte eta eskola ezberdinak desagerraraztea ekarri dezake krisi ekonomikoak (1).<br>o Mesfidantza klase politikoarengan (2).<br>o Udalaren berregituraketa-prozesua krisialdiaren eraginez (2).<br>o Krisialdiaren eragina TA 21en ekintza planaren etorkizunerako baliabideak jartzerakoan (2). |

## SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNEKO KOORDINAZIOA

Komunikazioa, herritarren partaidetza, elkartegintza eta sentsibilizazioa (1) eta Barneko koordinazioa eta zeharkakotasuna (2)

| **INDARRAK** | **AUKERAK** |
|---|---|
| o Elkarteen sare indartsua (1).<br>o 2007-2011 tokiko ekintza planaren ekimen asko tokiko agenda 21eko foroaren partaidetzaren bidez garatu dira (1).<br>o “Zubiguneak” ekimena elkarteen arteko koordinazio eta kolaborazio lanaren adibide gisa (1).<br>o Elkarte eta taldeen aldetik lana egiteko gogoa (1).<br>o Udalaren laguntza ekonomikoa elkarteei emandako diru laguntzen bidez (1).<br>o TA 21eko prozesua aintzat hartzea (1).<br>o Udal batzordeak eta horiek mantentzea (1).<br>o TA21en ezarpen-maila (1).<br>o Udaleko langileak, ondo prestatutako langileak eta profesional onak (2).<br>o Sailen arteko koordinazioa eta sareko lana Eusko Jaurlaritza eta beste erakunde batzuekin (2).<br>o Autonomia kudeaketa ekonomikoan, sail edo udal-eremu bakoitzean.(2).<br>o Teknikarien arteko konfiantza (2).<br>o Proiektu osoagoak lortzea zeharkakotasunezko politikarekin (2).<br>o Alkatea eta Garapen Iraunkorraren batzordeak buruzagitza garrantzitsua dute TA21i dagokionez (2).<br>o Kudeaketarako tresnak badaude (plan sektorialak) (2).<br>o Tokiko Agenda 21eko teknikariaren Tokiko Agenda 21en kudeaketa eta koordinazio positiboa (2). | o Gazteen partaidetza (1).<br>o Herritarrek aldaketarako duten “gogoa” (1).<br>o Adineko pertsonen boluntariotza (1).<br>o Generazio-arteko erlazioei bultzada (1).<br>o Parte hartzeko interes gero eta handiagoa dago, eta horrek udal-kudeaketa hobetzen laguntzen du (1).<br>o Internet eta teknologia berriak erabiltzea partaidetzarako (1).<br>o Berrikuntza partaidetzan (1).<br>o Partaidetza-aurrekontuak auzoen bidez (1).<br>o Udalarekin kanal zuzen eta etengabea (1).<br>o Udala hurbileko administrazio gisa (2).<br>o Publikoa dena aintzat hartzea (2).<br>o Erabakiak partekatuta hartzea (2). |

## GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

Biztanleria (1); egitura ekonomikoa (2); lan-merkatua (3); ongizate soziala eta gizarteratzea (4); hezkuntza, euskara, kultura eta kirola (5)

| AHULEZIAK | MEHATXUAK |
|---|---|
| o Barneko migrazio-saldo negatiboa, beste udalerrietako biztanleria erakartzeko gaitasuna agortu denaren seinale (1).<br>o Lehenengo sektorearen atzerakada (2).<br>o Berrikuntza galtzea (2).<br>o Gutxi aprobetxatutako ahalmen turistikoa (2).<br>o Laneko ezegonkortasuna gehitzea eta egonkortasun falta (3).<br>o Lana hondatzea (3).<br>o Sektore ekonomiko guztien bilakaeran dagoen joera negatiboa, kontratu kopurua eta langabezian dauden pertsona kopurua kontuan hartuz (3).<br>o Doako aterpetxeen falta (4).<br>o Ospitalearen falta (4).<br>o Etorkinen desarrotzea eta gizarteratze falta (4).<br>o Gizarte zerbitzuen zehaztasun-eza. Gizarte zerbitzuen helburua zehazterakoan desberdintasunak daude administrazioen arabera (4).<br>o Droga-menpekotasuna gehitu egin da udalerrian (4).<br>o Bertatik pasatzen direnentzako jantokiaren falta (4).<br>o Gizarte-arloko eremuko azpiegituren kokapena eta baldintzak eskasak dira (4).<br>o Gizarte-larrialdiko laguntzak eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaerak gehitzea (4).<br>o Euskararen erabilera falta administrazioaren eremuan eta herritarren artean (5).<br>o Euskara umeekin komunikatzeko “bakarrik” erabiltzea (5).<br>o Kalitate txarreko euskara erabileran (5).<br>o Jai-Alai frontoia gutxi erabiltzen da (5).<br>o Emakumezkoen kirolean eskaintza eta ibilbide falta (5).<br>o Durangon egun dagoen kirol eskaintza gazteei aurkeztu beharra dituzten aukerak ezagutzeko (5).<br>o Club batzuetan kirolari ona izan behar zara kirol horretan jarraitu ahal izateko (5). | o Biztanleriaren zahartzea: menpekotasuna (1) eta (4).<br>o Krisialdi-egoera (2), (3).<br>o Likidezia falta sisteman (2).<br>o Hirugarren sektorearekiko dependentzia (2).<br>o Enpresen alde-egitea (industrialak) (2).<br>o Langabezia-maila gazteen artean, eta horrek emantzipaziorako aukerak murrizten ditu (3).<br>o Laneko eskubideak galtzea (3).<br>o Biztanleriaren pobretze orokorra (4).<br>o Gizarte-zerbitzuen ziurgabetasuna. Ez dakigu amaituko diren eta zenbat denbora barru (4)<br>o Krisialdiaren ondorioz gizarte ekintzarako baliabide gutxiago (4).<br>o Frustrazioa krisialdiagatik (1), (2), (3), (4) eta (5). |

## GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

Biztanleria (1); egitura ekonomikoa (2); lan-merkatua (3); ongizate soziala eta gizarteratzea (4); hezkuntza, euskara, kultura eta kirola (5)

| | |
|---|---|
| o Nahiz eta kultura eskaintza zabala den, jendearen partaidetza ez da oso handia (5). | |

## GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

Biztanleria (1); egitura ekonomikoa (2); lan-merkatua (3); ongizate soziala eta gizarteratzea (4); hezkuntza, euskara, kultura eta kirola (5)

| | |
|---|---|
| o Kontserbatorioko eskaintza ez da nahikoa (5).<br>o Durangoko musika taldeek ez daukate aukerarik udalerri bertan (5).<br>o Futbolerako ez dituzte nahikoa futbol zelai; bi zelaien erabilpenean oreka eta koordinazio falta (5).<br>o GR Mikeldi mantentzea eta marken falta (5). | |
| **INDARRAK**<br><br>o Jaiotza-tasaren hazkundea (1).<br>o Biztanleria gazteagoa Bizkaiko biztanleriaren egiturarekin alderatuz gero (1).<br>o Hazkunde begetatibo positiboa 2000-2010 aldian (jaiotza-heriotzen arteko aldea) (1).<br>o Hirugarren sektoreak ekonomian duen garrantzia (2).<br>o Durangaldeako inguruak erakargarritasun garrantzitsua du turismoarentzako (2).<br>o Gazteen prestakuntza-maila (3) eta (5).<br>o Gizarte-eremuan pilatutako ezagutza (4).<br>o Gizarte-kohesioa, familia-sarea (4).<br>o Gizarte-sailak beste eragile batzuekin duen lankidetza eta lan koordinazioa (4).<br>o Berdintasunaren gaian egin den aurrerapena (4).<br>o Gizarte sailaren zerbitzuen zorro zabala: hirugarren adina, droga-menpekotasunak, haurtzaroa, gazteak eta familiak; gizarteratzea, etorkinak; aniztasun funtzionala duten pertsonak; immigrazioa, etab. (4).<br>o Durangoko biztanlerik gehienek euskaraz badakite (5)<br>o Eskaintza kultural zabal eta anitza (5).<br>o Antzokia erreferente kulturala (5).<br>o Hezkuntza-sarea eta hezkuntza-eskaintza (5).<br>o Administrazioan euskararen erabilera gehitzea (5). | **AUKERAK**<br><br>o Biztanleriaren zahartzea, pertsona nagusiek eskaintzen duten ahala, beren partaidetza eta ekarpen sozialaren bidez (1).<br>o Enpresa-ezagutza eta ezagutza industriala (2).<br>o Proiektu desberdinduak (2).<br>o Tokiko ekoizpen ekologikoa (2).<br>o Durangaldeako (ez bakarrik Durangokoa) Plan Industriala sustatzea proiektu berritzaileekin (2).<br>o Barneko eta kanpoko turismoa sustatzea (2).<br>o Krisialdi-egoerak sormena sustatzen du (2).<br>o “Kudeatzaile gazteak”, beren gune kulturalen sortzaileak.(5). |

| GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA | |
|---|---|
| Biztanleria (1); egitura ekonomikoa (2); lan-merkatua (3); ongizate soziala eta gizarteratzea (4); hezkuntza, euskara, kultura eta kirola (5) | |
| o Euskara hutsean argitaratzen den Anboto aldizkaria (5).<br>o Kirol-ekipamendu eta kirol-eskaintza zabala (5).<br>o Kirol egokitua egiteko aukera (Geu Be elkarteri esker) (5).<br>o “Durango Kirola”-ren kudeaketa ona. | |